


Zu hemen zaude. goiena



HERRIA GIDATZEKO TALDEA, PREST

Domekako hauteskundeetan zinegotziak aukeratuta, lanean hasi da Leintz Gatzagako udalbatza berria / 22

Jon Sasiain, Eugenio Otxoa, Garazi Orobengoa, Beñat Agirreurreta eta Juanito Bengoa. IMANOL BELOKI



Felix Sanchez
oñatiarraren argazkia,
onenen artean
nazioarteko lehiaketa
prestigiotsu batean / 36



Laura Mendizabali
elkarrizketa, Korta
saria jaso berrian

Trukeguna: trukean
oinarritutako
kontsumoa

**Urteko bilketaren
laurdena batu nahi du
Elikagaien Bankuak
asteburuko bilketa
handian / 4**

**Aparkatzeko TAO
sistema erdialde
osora hedatu nahi du
"2020 amaierarako"
Arrasateko Udalak / 12**

**Izotz pista jarriko
dute Eskoriatzan,
lehen aldiz, 'Gabonak
Eskoriatzan' planaren
ekintzen barruan / 20**

SINADURAK

 XABIER ARREGI MURGIENDO / 8	 SEBAS ARANZABAL / 33
 ARITZ KANPANDEGI / 10	 JOSU ZUBIA / 35
 RAMON UGALDE / 14	 ANDER ETXEBERRIA / 48



Hemen
GARBIKETAK

ZURE KONFIANTZAKO
GARBIKETA ENPRESA

ESKORIATZA • T. 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com



SKODA KODIAQ

DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70





Asteleheneko ekitaldiaren bukaeran, talde argazkia atera zuten guztiek batera. E.A.

55 milioi euro inbertituta, inauguratuta dago planta

Fagor Ederlanen Bergarako lantegia ofizialki inauguratuta geratu da asteon, ekitaldi instituzional batekin, eta 2016an abiatutako prozesua bukatuta geratu da hala; gaur egun, autoetarako 1,7 milioi pieza ekoizten dituzte urtean, eta 220 langilek dihardute

Eneko Azurmendi BERGARA

Hainbat urte martxan egon den arren, asteon inauguratu dute ofizialki Fagor Ederlanen Bergarako lantegia. Lantegia erabat hornitu ahal izateko, 55 milioi euroko inbertsioa egin behar izan du Fagor Ederlanek.

Behe presioko aluminio galdaketan eta mekanizazioan espezializatutako lantegia da Ber-

garakoa, eta BMW, Daimler eta Jaguar LandRover markei ematen die zerbitzu. Urtean 1,7 milioi pieza fabrikatzen ditu eta 220 langilek dihardute.

Juan Mari Palencia Fagor Ederlaneko zuzendariak azaldu duenez, merkatuan dauden bi ibilgailutatik batek Fagor Ederlan marka darama. "Horrez gain, lantegi honek gure maila tek-

nologikoa eta gestio maila zehazten ditu". Autoen osagaiak fabrikatzearekin batera, "segurtasuna" fabrikatzen dutela dio.

Gaineratu du Fagor Ederlanek beti jakin duela merkatuaren erronka berrietara egokitzen. "Automobilgintzaren sektorea eraldatzen ari da, baina diseinuan eta teknologia berrikuntzaren alde egiten dugun apustuari es-

ker, %50 gutxiago pisatzen duten osagaiak garatu ahal izan ditugu, eta BMW, Mercedes eta halako bezeroen eskakizunei erantzun".

4.500 langile Fagor Ederlanek

Orotara, 4.500 langile ditu Fagor Ederlanek, bost herrialdetan banatutako hemezortzi lantegitan –Brasil, Eslovakia, Mexiko, Txina eta Euskal Herria–. Urtean 50 milioi pieza ekoizten dituzte fabrika horietan. Horren harira, Aitor Axpek nabarmendu du mundu zabalean hedatzen jarraitzeko, erroak hemen sendotzea "ezinbestekoa" dela. "4.500 langile horietatik erdiak baino gehiagok hemen dihardute lanean, etxean. Gure ereduaren indar bat hori da".

Iaz, 2018an, 657 milioi euroko fakturazioa izan zuen Fagor Ederlanek eta 2019ko salmenten aurreikuspena 700 milioi eurokoa da. Horrela, 2022ra begira, 750 milioi euroko fakturazioa gainditzea aurreikusten du.

Sektore lehiakorra eta zorrotza

Iñigo Ucin Mondragon korporazioko presidentek, aldiz, gaur egungo lehia globala azpimarratu du. Sektore errazik ez dagoela aitortu duen arren, automobilgintzarenean dagoen zailtasuna nabarmendu du, bereziki. "Sektore globala, lehiakorra eta zorrotza da. Asko exijitzen da sektore horretan, eta kostuak jaisteko borroka gogorra da. Baina Ederlan taldea hor dabil, inbertsioak eta apustuak egiten eta dinamika lehiakor hori garaitzen", adierazi du.

Iñigo Urkullu lehendakariak, bestalde, etorkizun berri baten hasiera aipatu du, eta fokua balio kooperatiboetan jarri. "Gakoa da lan egiteko kultura eta balioak partekatzea, elkarlana, koope-

razioa edo auzolana bultzatzea eta balioetan oinarritutako proiektuak garatzea. Hori guztia aurkitu dugu gaur planta honetan; hori lortzeko, kooperazioa da erabiltzen duzuen indarra".

Lehendakariak azaldu du Eusko Jaurlaritzak "kolaboratzen eta kooperatzen" jarraituko duela euskal sistema ekonomiko eta industrial lehiakorragoa indartzeko, "munduari begira irekiagoa" izango dena. "Bide horretan, planta berri honekin beste urrats bat egin duzue. Proiektuak dituzue, eta horrela irabazten duzue lekua mundu zabalean. Inaugurazio honekin, Euskadik lehiakortasunean urrats bat egin du eta ekosistema indartu, era berean".

Zortzi lantegi Debagoiengan

Fagor Ederlanek hemezortzi lantegi ditu mundu osoan. Lantegi bat Eslovakian, bi lantegi Txinan, bi Brasilen eta bi lantegi Mexikon. Espainian hamaiika lantegi daude, horietatik hamar Euskal Herrian; eta zortzi, gainera, Debagoiengan: Eskoriatzako burdin galdategia; Bergarako mekanizazio lantegia; Markuleteko behe presioko aluminio lantegia; Markuleteko burdin galdategia; Bergarako behe presioko aluminio eta mekanizazioko lantegia –inauguratu berri dutena–; Markuleteko mekanizazio lantegia; Eskoriatzako Aluminio Injekzioa eta Aretxabaletako Aluminio Injekzioa.

FAGOR EDERLANEK 700 MILIOI EUROKO FAKTURAZIOA IZATEA AURREIKUSTEN DU 2019 BUKAERARAKO

Lau bazkari Debagoiengan, elkar ezagutzeko helburuarekin

'Bizilagunak' egitasmoaren baitan, 35 pertsona inguru elkartu dira asteburuan Arrasaten, Bergaran eta Elgetan

E.A. ARRASATE

Arrasaten, Bergaran eta Elgetan bazkari bana egin zuten domekan, eta astelehenean beste bazkari bat egin zuten Arrasaten. Orotara, 35 lagun inguru batu dira, eta, parte-hartzeak zertxobait

behera egin duen arren, pozik azaldu da Nora Ugarteburu SOS Arrazakeriako kidea. "Gure ondoan bizi den hori ezagutzeko aukera eskaintzen dute bazkari hauek, eta, horrez gain, estereotipoak eta aurreiritziak gaindi-

tzeko ere balio dute", dio. Normalean, anfitrioi izaten da kozinatzen duena, eta jatorri askotariko janak prestatu dituzte aurten. Nikaraguako eta Hondurasko janaria dastatu dute, esaterako, eta baita euskal babarrunak ere.

Gipuzkoan 1.000 lagunetik gora

Euskal Herri mailako egitasmo hau SOS Arrazakeriak koordinatzen du Gipuzkoan. 131 bazkari egin dira probintzian, eta 1.000 lagunetik gora dira.



Elgetan egindako bazkari talde argazkia. SOS ARRAZAKERIA

Korta saria jaso du Laura Mendizabal oñatiarrak

Lehendakariaren eskutik jaso du saria, beste hiru enpresarekin batera; 2000. urtean alargundu zen eta familia-negozioaren erantzukizun guztia hartu zuen; egun, 74 urte ditu eta lanean jarraitzen du bere enpresak kudeatzen, alaben laguntzarekin

Eneko Azurmendi OÑATI

Joxe Mari Korta Sariak banatu dituzte asteen Gasteizen eta horietako bat Oñatin jaiotako Laura Mendizabal enpresariak jaso du. Gainontzeko hiru sariak Pedro Luis Uriarte, Javier Roquero eta Maria Angeles Aménabarrentzat izan dira.

Mendizabal pozik azaldu da saria jasota. "Asko poztu nauen saria izan da. Bereziki, nirekin gogoratu direlako. Ohorea izan da etxekoen eta lagunen aurrean saria jasotzea. Esker onekoa izatea besterik ez zait geratzen", dio -gaur kaleratu den *Puntu* aldizkarian elkarrizketa luze eta zabala dago irakurgai-.



Laura Mendizabal, Iñigo Urkullu lehendakariaren alboan. IREKIA

74 urterekin, oraindik indartsu Mendizabal 1978an hasi zen gasolindegien esparruan lanean, Santa Engracia eta Gamarra familia-negozioetan. 1978az geroztik, Fernando Gorbea senarrek batera erabateko dedikazioz jardun du hornitegi berriak garatzen eta sortzen: Foronda hornitegia (1978), Zurbano (1996) eta Gorbea (2011).

2000. urtean alargundu zen Mendizabal eta familia-negozioaren erantzukizun guztia hartu zuen. Egun, ordea, lanean jarraitzen du bere enpresak kudeatzen, alaben laguntzarekin, eta, oraingoz, behintzat, ez du erretiroa hartzeko asmorik. "Birbilobekin denbora luzeagoa pasatzeko gogoia daukat, baina oraindik indartsu nago. Lau alaba ditut, eta bederatzi birbiloba. Babestuta sentitzen naiz".

Iñigo Urkullu lehendakariak goraiatu egin du lau sarituen lana. "Baliok, ezagutza eta konpromisoa metatzen dituzue. Sari hauek aitortza bat dira zuen lanari eta azpimarratu egiten dute enpresaren funtzio ekonomiko eta sozial baterako proiektutzat hartuta".

Enpresa ekimen onenaren Naos saria jaso du Eroskik

Osasun, Kontsumo eta Ongizate Sozialeko Ministerioak elikadura osasuntsua eta jarduera fisikoa sustatzea eta obesitatearen prebentzioa helburu dituen Naos Estrategiaren Saria banatzen du, eta Eroskik bigarren jaso du enpresa ekimen onenaren saria. Ekilibra programatik saritu dute, "elikadura osungarriaren alde erakutsitako konpromisoagatik".

Guztira, 93 proiektu aurkeztu dira Naos Sarien XII. ekitaldira, eta, epaimahaikoen iritziz, Eroskirena izan da enpresa ekimenik onena Ekilibra programari esker.

Agustin Markaide presidentek jaso du saria, eta zera adierazi: "Eroskin, orain 50 urte sortu ginenetik, konpromiso sendoa dugu kontsumitzaileen osasunarekin eta ongizatearekin. Kontsumo kooperatiba garen aldetik, gure izaeran doa hori. Aitortza honek balioan jartzen du elikatzeko ohitura osungarriak hartzearen alde egiten dugun ekarpena".



AR Na Sa GARA

www.amasagara.eus



Arnasguneak euskarari hauspoa ematen

Arnasguneak euskararen biziberritzean duten garrantzia azpimarratzeko **Arnas Gara** ekimenaren aurkezpen ekitaldiak egingo dira Euskal Herrian zehar abendura arte.

Kartzela serie digitalaren aurre-estrenaldia ikusteko eta aktoreekin solasteko aukera izango dute bertaratzen direnek.

LEINTZ GATZAGA

AURKEZPEN
EKITALDIA
+ Mokadua

2019
AZAROAK 28

18:30
KULTUR ETXEAN

DATA	HERRIA
Urriak 3	AZPEITIA
Urriak 4	OREXA
Urriak 24	ALTZO
Urriak 25	AJANGIZ
Urriak 26	LESAKA
Urriak 26	ITZIAR
Azaroak 8	DIMA
Azaroak 9	ZEANURI
Azaroak 15	ABALTZISKETA
Azaroak 16	LEITZA
Azaroak 17	ETXARRI ARANATZ
Azaroak 22	ADUNA
Azaroak 23	GOIZUETA
Azaroak 23	URNIETA (Goiburua auzoa)
Azaroak 24	LEKEITIO
Azaroak 28	LEINTZ GATZAGA
Azaroak 29	ZERAIN
Azaroak 29	ARAMAIO
Abenduak 1	MARKINA-XEMEIN
Abenduak 3	BERMEO
Abenduak 13	AIA
Zehazteke	Ipar Euskal Herrian



LEINTZ GATZAGA
Hiriko Udala



Bergarako elikagai bankuko bolondres bat, elikagaiak kutxatan sailkatzen. JONE OLABARRIA

Elikagai bilketa handia egiteko, elkartasun deia

Gaur eta bihar, egun osoan zehar eramango dute aurrera elikagai bilketa Euskal Herri osoan. Beharra dutenei laguntzeko ekimena sasoi honetan egiten dute urtero, eta bailarako supermerkatuetan jasotakoa Bergarako biltegia hornitzeko baliatuko dute

Maialen Santos DEBAGOIENA

Urteroko ohiturari jarraiki, egubakoitzean eta zapatuan –gaur eta bihar– egingo dute Euskal Herri osoan elikagai bilketa handia. Goizeko bederatzietatik gaueko bederatzietara izango da kolaboratzeko aukera, hain zuzen, tarte horretan izango baita elikagaiak edota higiene produktuak erosi eta supermer-

katuetan jarriko dituzten kutxetan uzteko aukera; boluntarioek ere ordu horietan jardungo dute nork bere alea jartzen.

Gipuzkoan, zehazki, 91 saltokitan eramango dute aurrera elkartasun bilketa, elikagaien bi banku baitaude martxan gaur egun: bata Oiartzunen eta bestea Bergaran. Debagoiengan, Debarrean, Goierrin eta Urolan

bildutako guztia Bergarako bankua hornitzeko baliatuko dute, horrenbestez.

Erronka, kilo bat pertsonako

Kanpaina berrian, bi egun hauetan, elikagai bankuak urtean behar duenaren %25 biltzen dute, Bergarako elikagai bankuko arduradun Jose Antonio Agirrebeñak azaldu duenez.

"Urteko garrantzitsuenaren izaten da; izan ere, gure biltegiak janariz gehien hornitzen dituen bilketa izaten da egunotakoa".

Gipuzkoan 700.000 biztanle baino gehiago izanik, pertsonako "gutxienez" kilo bat produktu edota elikagai biltzea dute aurtengo erronka. "Iaz ez ginen kopuru horretara iritsi; zehazki, 661.000 kilo bildu genituen. Aurtun, kopuru hori handitu egin nahiko genuke", argitu du.

Erraz hondatzen ez diren elikagaiak bilduko dituzte kanpaina, urtero legez: pasta, lekaleak, olio eta arrain edota barazki kontserbak, besteak beste. Higiene produktuak ere "beharrezkoak" izaten dituzte elikagai bankuetan, hala nola fardelak eta konpresak. Horretaz gain, haurrentzako produktuak ere "bereziki" kontuan hartu beharrekoak izaten dira: gailetak eta esnea, adibidez.

Laguntza-bonuak eskuragarri

Aurtun ere laguntza emateko bi modu ezberdin daude: ohiko moduz gain –elikagaiak erosi eta supermerkatuan bertan daudden kutxetan uztea–, dirulaguntza-bonuen bitartez laguntzeko aukera ere izango da. Hala, bonuak erosketara ordaintzeko kutxan eskatu daitezke; eta norberak nahi duen balioa eman diezaieke horiei. Agirrebeñak azaldu duenez, bonuak funtsezkoak izaten dira laguntza moduan, elikagaiak "beharraren arabera" kudeatzea ahalbidetzen baitute: "Esnea bezalako elikagaiak oso epe laburra dute eta berehala banatu behar ditugu. Aldiz, dirulaguntza-bonuen bitartez, beharrezkoa dugunean erosi eta banatzen ditugu". Gaineratu duenez, sarritan, jendeak ez du jakiten zer erosi, eta, beraz,

zuzenean laguntza ekonomikoa ematea ere alternatiba ona izaten da. Iaz, 260.000 euro batu zituzten laguntza-bonutan, eta aurtun kopuru hori berdin edo gainditzea espero dutela azaldu du arduradunak.

646 boluntario lanean

Bergarako biltegia hornitu ahal izateko, 646 pertsonak jardungo dute boluntario lanetan Debagoieneko, Debarreko, Goierriko eta Urolako 40 supermerkatutan. "Egun hauetarako errefortzua behar izaten dugu, eta izugarri estimatzen dugu bere alea jarri nahi duen edonoren laguntza", azaldu du. Halere, dio ezin ahaztu daitekeela boluntarioek urte osoan zehar egiten duten lana, pertsona asko baitira egunero edota astean zenbaitetan Bergarako biltegiara gerturatzen direnak, bertan elikagaiak antolatu edota talde ezberdinetara banaketa egitera. Hain zuzen, boluntario hauek kontaktu eta sailkatuko dute datozen asteetan jasotako guztia, bildutako produktuak beharra duten horiei helarazi ahal izateko: "Gabonetarako edo urte hasierarako jakingo dugu aurtengo kanpainak zenbat eman duen, eta espero dugu asko izatea". Bien bitartean, itxuraren gain, supermerkatuetan saldu ezin daitezkeen produktuak batzen eta banatzen jarraituko dute, hori baita bankua hornitzeko eguneroko beste bide bat.

ELIKAGAI BANKUAK URTEAN BEHAR DUENAREN %25 KANPAINA HONETAN BILTZEN DUTE

Debagoieneko Enplegu Azokan izena emateko epea luzatu dute

Otsailean egingo dute Enplegu Azoka eta abenduaren 13a baino lehen eman beharko dute izena enpresek

M.S. DEBAGOIENA

2020ko otsailaren 13an eta 14an egingo dute Debagoieneko Enplegu Azoka. Bertan parte hartu nahi duten enpresek aurrez eman beharko dute izena, eta, hasiera batean horretarako epea

gaur amaitzen zen arren, azkenean, abenduaren 13ra arte luzatu dute, enpresa gehiagok parte hartzeko aukera izan dezaten. Lan-orientazioa@debagoiena.eus helbidera idatzi behar dute parte hartu nahi dutenek.

Debagoieneko Mankomunitateak lehenengoz antolatu du azoka –aurreko urteetan ere egin izan da, baina ez du Mankomunitateak antolatu–. Garaia Parke Teknologikoan egingo dute azoka, eta enpresentzako eta herritarrentzako prestakuntza saioak, lan bitartekaritza zerbitzua eta lan orientazioa uztartuko dituzte bi egunetan.

Enpresei dagokienez, erakargarritasuna hobetu eta talentua erakarri eta mantentzea izango dute helburu, baita enpresen

beraien online presentzia hobetzea ere. Horretaz gain, lan bila aktiboki ari diren pertsonen eta enpresen arteko gune bilakatu nahi dute azoka, hala, hautaketa prozesuak erraztu daitezken.

Enpresek, egiteko ugari

Bertan jarriko dituzten standetan egongo dira enpresetako ordezkariak; eta gerturatzen diren herritarren profilak ezaugu eta curriculumak jasotzeaz arduratuko dira. Lan elkarriketak ere gauzatuko dira: au-

rretiko hitzorduarekin zein gabe. Horretaz gain, enpresek beraien balio proposamena azaldu ahal izango diete gerturatzen direnei.

Azokako egunetan ez ezik, Mankomunitateak ekintza gehiago antolatu ditu enpresetara begira. Azokaren aurretik, talentua nola erakarri lantzeko tailerra egingo dute. Azokaren ondoren, bestalde, enpresek topaguneak antolatuko dituzte, eta enpresen online presentzia hobetzeko estrategiak garatuko dituzte, besteak beste.

EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA

TREBETASUNA ETA PROFESIONALITASUNA

BASQUE
LABEL
HARATEGIAK



**BASQUE
LABEL
HARATEGIAK**

— %100 GURE —
BASERRITARREKIN



EUSKO LABEL PRODUKTUTAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

ANTZUOLA:
GABILONDO ARREGI HARATEGIA - Kalebarren, 5

BERGARA:
LETURIA HARATEGIA - Pedro Deuna, 24

ARRASATE O MONDRAGÓN:
AGIRRE-ETXE AUTOSERBITZUA - Zarugalde, 33

OÑATI:
JESÚS ODRIOZOLA HARATEGIA - Arantzazuko Ama, 2 Behea
ANTXON HARATEGIA - San Lorentzo, 5



2019ko Tokikom Sarietako irabazleen talde argazkia. TOKIKOM

Goienak sari bikoitza jaso du Tokikom sarietan

'Puntua' aldizkariako 'Antropozenoa' azalak eta 'Debagoiena eraldatzen' ikus-entzunezkoak eraman dute saria; biak dira Goiena Komunikazio Taldeak sortutakoak. Basauriko lbaigane kultur etxean banatu zituzten Tokikom Sariak, joan den ostiralean

Maialen Santos DEBAGOIENA

Puntua aldizkariaren *Antropozenoa* azalarekin batera finalista izan ziren *Barren* aldizkariako *Krosaren egun handia* eta *Guaixe* aldizkariaren *Bizipozen bizi!* Epaimahaiak, baina, "irudi sinplea" eta "diseinu arriskatu eta moderno" baloratu ditu, besteak beste, saria *Antropozenoa* azalari emateko: "Sarritan, irudi sinple batek hamaika berbak baino gehiago konta dezakete, eta horixe da epaimahaiak saritutako azalaren kasua". Diseinu "arriskatu" eta "moderno" erabiliz, oso elementu gutxirekin jokatuz, azal honek "irudi in-



Puntua-ren Antropozenoa azala.

dartua" sortu du, eta ikuslea hunkitzera ere iristen dela zioen epaimahaiak: "Hunkitze horretan paper garrantzitsua jokatzen du elementuen disiposizio orekatu eta zainduak, osotasunari oso ukitu dotorea ematen diona".

Ikus-entzunezko onena, berriz, *Debagoiena eraldatzen* deituriko bideo-sortarentzat izan zen, eta horrekin batera finalista izan ziren Euskaraldiari buruzko ikus-entzunezkoak eta Aiaraldearen *Bizitzak erdigunera eraman dituzten milaka emakumek Aiaraldean*. Gauzak horrela, epaimahaiak *Debagoiena eraldatzen* lanak gizarte osoari eragiten

diola goraipatu zuen: "Kasu honetan ere, gizarte osoari eragiten dioten problematikak gertuko errealitatetik abiatuta aztertzeo hautua goraipatu nahi dugu". Plano lokala eta globala "oso ondo" uztartzen ditu bideo sorta honek, euren aburuz. Alde teknikoak, gainera, faktura bikainarekin: enkoadratzeak, argiztapena eta soinu kalitatea bikain zainduta. Horretaz gain, errealizazioa eta muntaketan egindako hautuei aipamena egin nahi izan zieten: "Oso hautu originalak egin dituzte sortzaileek, eta elkarrizketen arteko loturei balio handiko elementu narratiboak erantsi dizkiete, metafora bisual ederrak sortuz".

'Ttap', Rikardo Arregin finalista Bestalde, *Ttap* aldizkari digitala 2019ko Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietako lau finalistetako bat da. Aurten lehen aldiz emango dute Komunikazio Saria, eta sail horretan hautatu dute. Beste hiru finalistak honako hauek dira: 2019ko Korrikaren komunikazio kanpaina, *Egunean behin* jokoa -CodeSyntaxen eskuatik-, eta, azkenik, *Barruan gaude* podcasta, Oier Aranzabalek *Zuzen-n* argitaratzen duena.

Finalisten artean aukeratuak zeintzuk diren sari-banaketa ekitaldian jakinaraziko dute; hain zuzen, azaroaren 28an, Andoaingo Bastero Kulturgunean.

52 zenbaki eta 100 elkarrizketa Euskarazko *Ttap* aldizkari digital multimedia 2019an sendotu den proiektua da. Egubakoitz honetan, azaroaren 21ean, 54. zenbakia kaleratuko dute eta dagoeneko 100 elkarrizketa inguru jaso dituzte; horretarako, kolaboratzaileak izaten dituzte. 70 inguru dira, guztira.

Huheziko hiru irakasle hiru lortu dute Martin Ugalde beka

Eneko Bidegain, Ainhoa Larrañaga eta Zuriñe Maguregi ikus-entzunezko alorrean ikerlariak dira

M.S. DEBAGOIENA

Izan ala ez izen? Euskal Herriaren irudikapena euskal hedabideetan proiektuari esker Martin Ugalde beka irabazi dute Mondragon Unibertsitateko Huheziko fakultateko irakasle Eneko Bidegainek, Ainhoa Larrañagak eta Zuriñe Maguregik. Hiru egiten dute lan komunikazioaren alorrean; hain justu, ikus-entzunezko komunikazioko graduan.

Zehazki, urtebeteko epea eta 8.000 euroko dirulaguntza izango dute beka proposatutako honako gai hau lantzeko: *Euskal Herria hedabideetan. Euskal hedabideek nola irudikatzen dute Euskal Herria? Lurraldea nola izendatzen da? Izendapen horren azpian zein da eremua? Zein dira mugak?* Eneko Bidegain bekako irabazleak batek Goiena telebistan egindako elkarrizketan azaldu duenez, hedabideek albisteetan egiten dituzten erreferentzietan jarriko dute fokua: "Zein eremutako erreferentziak ematen diren eta Euskal Herria nola izendatzen den aztertuko dugu". Gaineratu duenez, "kezagarria" da izendapenak nola egiten diren ikustea, eta dio "sarritan" Euskal Herria, Euskadi eta Euskal Autonomia Erkidegoa nahastu egiten direla.

Ekonomia Ituna
zerikus handia... nirekin!

Eta euskal herritar guztiekin; izan ere, haren bidez, erantzukizunez, zorrotasunez eta sentsibiltatez kudea ditzakegu-eta euskal baliabide eta zerbitzu publikoak.

Euskadi, auzolana, bien común

TUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
OGASUN ETXEA EKONOMIA SAIALA DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ECONOMIA

"Genero indarkeriarekiko heziketa ezinbestekoa da"

IXUSKO ORDEÑANA ZUZENBIDEAN ADITUA

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren bueltan, ekintza asko antolatu dituzte. Horien artean, 'Zuzenbideko estatua eta genero indarkeria' hitzaldia atzo Bergaran

Amaia Aranegi ARRASATE

EHUko irakasle titularra eta UNED Bergarako zuzenbide prozesalean tutorea da Ixusko Ordeñana. Urte asko daramatza indarkeria matxistaren inguruan lanean, eta, azaroaren 25an, Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna eguna dela eta, hitzaldia eskaini zuen UNEDek Bergaran duen egoitzan; gaiari buruz egindako ikerketak partekatu zituen, indarkeria matxistaren gainean legelariak egiten ari diren lana zein den ezagut zezan jendeak. **Nola hasi zinen indarkeria matxistan sakontzen?**

15 urte daramatzat genero indarkeria ikertzen. Tesia Harvarden egin nuen, gatazkak ebazteko bestelako bidez. Ameriketako Estatu Batuetan berehala konturatu nintzen nire arloko irakasleek emakumearen eta justiziaren inguruan sentsibilizazio oso handia zeukatela, oraindik Espainian eta Euskal Herrian ez zegoena. Hor, bonbilla piztu zitzaidan eta honen inguruan lanean hasi nintzen.

Gaur egun, gizartea indarkeria matxistarekin sentsibilizatuta dago? Duela hogeita urte baino gehiago bai, baina oraindik lan asko dago egiteko. Langabeziaren ondoren dagoen arazorik larriena genero indarkeria da, nire ustez. Genero indarkeriak gizartea gaixorik dagoela islatzen du.

Indarkeria matxistaren trataera hedabideetan hizpide izan zen hitzaldian. Zein iritzi duzu horretaz? Komunikabide guztiak ez dira berdinak, baina, nire ustez, tamalez, oro har, nahiko txarto tratatzen dute genero indarkeriaren kontua. Batez ere, bi arlotik: biktimaren intimitatea gehiago babestu behar da, legeak argi eta garbi esaten du biktimak bere intimitatea babesteko eskubide konstituzionala daukela, eta ez da egiten. Bestetik, gizonaren errugabetasun-presuntzioa. Komunikabideetan,



Ixusko Ordeñana, Deustuko Unibertsitatean hitzaldia ematen. DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

"LEGEAK GUK, HERRITARROK, EGITEN DITUGU PARLAMENTUAK AUKERATUZ"

askotan, ez da gizonezkoaren oinarritzko eskubidea, errugabetasun-presuntzioa, errespetatzen.

Azkenengo kasu mediatikoekin gertatutakoak gizarteak justizian konfiantza galtzea eragin du?

Epaileek legea ezartzen dute, epaileek ez dute legea asmatzen. Epaileei egiten dizkiegun kritikak benetan legeari egin beharreko kritikak dira. Zigor kodeak aldatu behar dira eta horiek parlamentuetan aldatu behar dira. Orain dela gutxi, hauteskundeak izan ditugu, eta, atzerako den Gobernuaren arabera, lege progresista edo lege kontserbadoreagoak izango ditugu. Eta horien arabera epaituko dute epaileek. Interpretatzeko gutxiengo bat daukate, baina epaileek egiten duten legearen aplikazioa legeak dakarrena da eta hau da gizarteak ez dakiena.

Indarkeria matxistaren kontra dagoen tresnarik garrantzitsuena heziketa da.

Bai, baina ez dugu hitz egin behar umeen edo gazteen heziketaz bakarrik. Gizartean aritzen garen talde desberdinekin, medikuekin, poliziek, epaileekin, kazetariek... genero indarkeriarekiko heziketa izan behar dugu. **Legeak aldatu egin behar dira; al daketak epe luzera etorriko dira?** Nik uste dut baietz. Kontuan hartu behar da Vox Espainiako hirugarren taldea dela Parlamentuan, eta genero indarkeriaren inguruko legeak bukatu nahi ditu, horren kontra egiten du. Ni benetan oso arduratuta nago, azkenengo 15 urteetan egindako pausoak atzera joan daitezkeela uste dudalako.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Optimista naiz, aurrerapausoak eman dira; gizartea sentsibilizatuta dago, genero indarkeriarengatik zigortuak izan diren gizonezkoendako tratamendu ikastaroak daude, eta orain, atzera pausorik eman gabe, baliabideak jarri eta gizartea hezi behar da, hau gure herriko bigarren arazo nagusia izan ez dadin.

Gesalibarrerako garraio publiko eskaintza urria dela salatu dute

Arrasateko San Juan de Dios ospitaleko langile batek lanera joateko zailtasunak dituela salatzen du

A.A ARRASATE

Arantzazu Ampudia Arrasateko Gesalibar auzoan dagoen San Juan de Dios ospitalean lan egiten duen erizaintza-laguntzaile oñatiarra da. Gidatzea ahalbidetzen ez duen desgaitasuna dauka, eta, ondorioz, garraio publikoaren menpe egon behar du lanera joan ahal izateko. Ia bi hilabete darama lanean eta ezinezkoa egiten zaio ordutegiak behar bezala jarraitzea garraio publikoak eskaintzen duen zerbitzuekin. "Nik daukadan desgaitasunarengatik ezin dut gidatu eta egun batzuetan ez daukat lanera nola joan. Oñatitik Arrasatera autobusean joaten naiz, eta gero, bertan, lankide batzuek itxaroten didate eurekin autoz joateko. Beraiengatik izango ez balitz, ez nuke modurik izango ospitaleraino heltzeko".

Garraio publikoak eskaintzen duen zerbitzua ez dator bat bere ordutegiarekin eta horrek arazoak sortzen dizkio: "Askotan, ordutegiak aldatu behar izan ditut. Asteburuetan goizez lan egitea egokitzen bazait, arratsaldera aldatu behar dut eta jaiegunetan gauza bera gertatzen da. Hilabete honetan, adibidez, zazpi egunetan ezin naiz lanera joan".

Gesalibar auzoan bi ospitale daude eta langileak, gaixoek eta familiarrek maiztasun handiz egiten dituzte joan-etorriak. Horregatik, garraio publikoaren eskaintzan langileen ordutegia kontuan hartu beharko lukete.

la gaineratzen du oñatiarrak. "Langileak autoz gerturatzen dira bertara; nik, esan bezala, ezin dut gidatu, baina beste langile batzuekin joaten naiz. Uleritzen dut Gesalibar auzora orduro garraio publikoaren eskaintzarik ez egotea, baina dagoen eskaintzan langileen ordutegia kontuan hartuko beharko litzatekeela pentsatzen dut. Garraio publikoa sustatu nahi bada, langileek bertara autobusez joateko aukera eduki beharko lukete. Gesalibar auzoan 08:00etan, 15:00etan eta 22:00etan egoteko zerbitzuak egotea garrantzitsua iruditzen zait, gauza bera bertatik Arrasatera bueltatzeko".

Konponbide eske

Arantzazu Ampudia Foru Aldundiko Mugikortasun arloarekin jarri da kontaktuan egoeraren berri eman eta hau konpontzeko asmoz: "Mezu bat bidali nien nire egoera azaltzeko, baina Araba Bus-ek eta Arrasateko urbanoak eskaintzen dituen zerbitzuak haien esku ez daudela erantzun zidaten. Ez dakit noren esku dagoen, baina bertara joateko dagoen garraio publikoaren eskaintza zabalagoa izan beharko litzateke".

"EZIN DUT GARRAIO PRIBATU BAT GIDATU, EZTA MANTENDU ERE; EGOERA HAU JASANEZINA DA"

ZUZENKETA

Joan den egubakoitzeko GOIENA aldizkarian, 837. zenbakian, Miguel Altuna Lanbide Heziketako ikastetxearen gaineko albistean, datu bat ez zen zuzen argitaratu. Hain justu ere, ikastetxe horretan erdi mailako zortzi prestakuntza ziklo eskaintzen direla esaten zen albistean, eta ez zen zuzena. Izan ere, goi mailako bost heziketa ziklo eta erdi mailako hiru eskaintzen dira.

'Auzoko' egitasmoa ezagutzeko aukera eguaztenean

Herritarrak, aniztasuna eta euskara oinarrian dituen egitasmoa da Auzoko. Helburu nagusia euskal hiztunen laguntzarekin euskarara gerturatzeke lehen pausoak ematea da. Egitasmoa eta honek duen eragina aurkezteko, *Auzokoak* dokumentala eskainiko dute azaroaren 27an, Kulturateko Loramendi gelan, Arratsaldeko sei eta erdietan.



ZABALIK

XABIER ARREGI MURGIONDO

Korapiloak askatuz!

Elgoibar eta Oñati herriak lotu genituen Debagoieneko Sarekideen artean antolatutako bizikleta martxan. Ezer ospatzekorik ez, baina giro ederrean igaro genuen ibilaldia, Elgoibarren hasi, Bergaran geldialditxo bat egin eta Oñatin azken ekitalditxo baten bidez amaiera emanez.

Herritar ugari bildu ginen, adin eta sentsibilitate askotariko herritarrak.

Guztiok, Sebas Etxaniz elgoibartar eta Joseba Arregi oñatiar presoen egoera krudela gogoan.

Izan ere, biak dira preso kolektiboaren pertsona adinduenak. 76 eta 73 urte, Sebasen eta Josebaren adina, hurrenez hurren. Biak ala biak aske beharko lukete, legeak berak jasotzen duen moduan: *Libertad condicional de los penados que hubiesen cumplido 70 años o los cumplan durante la exención de su condena* -196. artikulua, RP-.

Baina biak ala biak preso daude oraindik.

Beraien eskubideen ukazioari eta adinak dakartzan zailtasunei, espetxean bizi duten salbuespen legediaren neurri zorrotzek eta urrunketak sortarazten dizkieten egoera

DENBORA EZ DA GELDITZEN, EZTA ATZERA BUELTATZEN ERE, AURRERA EGITEN BAINO EZ DAKI

jasangaitza gehitu behar zaie.

Eta denbora aurrera doa, etenik gabe. Denbora ez da gelditzen, ezta atzera bueltatzen ere, aurrera egiten baino ez daki.


Horrela gogorazi zigun Itziar Ugartek, bizikleta martxaren amaierako ekitaldian bertaratutakoekin partekatu zuen gogoetan: "Denbora pilatu ahala, denbora galtzen goaz". Denbora. 76 eta 73 urte.

Gehiegizkoa zain dagoenarentzat, eta bereziki zabala, luzea, sufritzen duenarentzat!

Denborak gure kontra jokatzeko badu ere, aurrera begiratu beharra dugu. Iraganeko oinaze eta minak sendatuz, konponbiderako, elkarbizitzarako eta bakearen garaia dela uste dugulako. Korapiloak askatzeko unea delako, denok batera presoak etxera ekarri nahi ditugulako. Ziur gaudelako, Itziarren hitzak gogoratu, gau beltzenak ere egunaren promesa dakarrela berekin.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Basoak udazkenean eta beti

ASIER HILARIO ORUS

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Gehiago edo gutxiago, baina guztiek begiraten diegu basoei urte garai honetan. Onddoak, gaztainak... eta neurtzeko askoz ere zailagoa den beste zerbait: udazken koloreak. Benetan pentsatzen dut udazken baso batek gizarte hobea bat osatzen laguntzen duela. Balio ukiezina da hori, edo ez.

Baina baso guztiak ez dira berdinak. Azken mendean landatutako baso komertzialek ez dute udazkenik. Hamarkada gutxi batzuetan egurra moztu eta

saldtu daiteke. Hori ekonomia da, bai, baina konifera baso bat landatzen den bakoitzean, gure paisaiak galdu egiten du. Udazkenak galdu egiten du. Guk guztiok galdu egiten dugu.

Ukiezinak diren balio horietaz gain, basoek guztiz beharrezkoak diren beste zenbait zerbitzu ematen dizkigute. Aldaketa klimatikoaren aurrean jatorri antropogenikoa duten karbono igorpenen %25 xurgatzen dute, gure lurraldearen biodiversitatearen zaindari nagusiak dira eta uholdeen aurkako neurri ezin hobea dira mendietako lurzorua egonkortzen dutelako. Baina

honetan ere baso guztiak ez dira berdinak. Zenbat eta baso anitzagoak izan, are eta handiagoa karbonoa finkatzeko ahalmena, biodibertsitatea aberatsagoa eta uholde eta luizien aurrean lurzorua egonkorragoak izango ditugu. Eta Udazken ederragoak. Hori ere bai.

Hau ere ekonomia da. Aspaldi ekologoek ikasi zuten kontserbazioan lana egiteko naturari balio ekonomikoa ere jarri behar zitzaioela. Gure lurraldean zuhaitz exotikoen landaketak %20 murrizteak, 40.000 ha inguru, EAerentzat 50 milioi euroko irabazi garbia ekarriko luke, 1.200 euro lehengoraturiko hektarea bakoitzeko.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.
Administrazioa
Ane Berezibar,
Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kultura),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Euskararen legea da aukera bat hizkuntza garatzeko"

ESTEPAN PLAZAOLA BERGARAKO UDALEKO EUSKARA TEKNIKARIA

Eneko Azkarate Laspiur BERGARA Euskararen gaineko dekretua argitaratu berri du Eusko Jaurlaritzak. Horren gainean, Euskaraldiaren gainean eta aurkeztu berri den Bergarako euskararen ekintza planaren gainean dihardu Estepan Plazaolak.

Udal legearen barruan jasotzen diren euskarari buruzko arauak dekretu bidez garatu ditu Eusko Jaurlaritzak orain?

Udal legeak berak udalei aitortzen dizkie hizkuntza irizpideak ezartzeko eskumenak. Legearen aurretik, udalek garatuta zituzten berez haien eskumenekoak diren alorrak, hirigintzarekin zerikusia dutenak, eta abar. Udalek bete beharreko hainbat zerbitzu zehaztuta zeuden, baina, hizkuntzaren normalizaziorako araua berri samarra denez, zehazteke zegoen. Orain, udalen legeak ondo zehazten ditu eskumen horiek eta dekretuak garatu egiten du hori.



Estepan Plazaola, Bergarako udaletxearen ondoan. ENEKO AZKARATE LASPIUR

Gauzak asko aldatzen dira?

Orain baino lehenago ere, bideratuta zeuden legeak planteatzen dituen hainbat ekimen. Legeak eta dekretuak markatzen du norabide bat; Jaurlaritzatik dator eta udal

guztiori markatzen digu norabide berbera. Kasu batzuetan, gainera, erakunde ezberdinen arteko elkarlana eta jokatzeko modu bera zehazten du: kulturean, berdintasunean... Horrekin,

gizarteari mezu bat helarazten zaio: lan hizkuntza zein izan behar den, erabilera dela ardatza...

Eragin linguistikoa ere aipatzen da Jaurlaritzaren dekretuan. Zer esan nahi da?

Berritasuna da eragin linguistikoaren neurketa. Arnasguneak babeste aldera, gune horiek hizkuntzaren aldetik hondatu ahal dituzten proiektuek izan ditzaketen eragina neurtzea du helburu, eta baita ze neurri zuzentzaile jarri ahal dakioken. Esaterako, merkataritza-gune handi bat jartzeak ze inpaktu izan dezakeen, eta zer egin daitekeen inpaktu hori leundu edo saihesteko...

Zein da legearen eta dekretuaren alderik inportanteena edo onena euskararen normalizazioaren ikuspegitik?

Berez da aukera bat. Garapenerako eta normalizaziorako aukera bat. Pauta batzuk markatzen ditu, norabidea ezarri, norabide egokia. Udal batek gara dezake gehiago eta beste batek gutxiago, hori ere hala da. **Kontrako ahotsak ere badira. Euskadiko PPri ez zaio gustatzen dekretua...** Sare sozialetan ere zabaldu dira Bergaran onartu den ekintza planaren kontrako iruzkinak: gaztelania

desagerrarazteko egindako plana dela... Datorren diskurtsoa da eta prestatuta egon behar dugu halakoei argumentuekin erantzuteko. Helburua izan behar da euskara izatea ohiko hizkuntza. Euskarak ez badauka gunerik hegemonikoa izateko, pikutara doa. Horregatik, inportantea da arnasguneak babestu eta indartzea; hortik dator, esaterako, Arnasa Gara ekimena. Hori guztia ondo mamituta izan behar dugu, euskararen kontrako ekimenei modu egokian erantzuteko.

Euskaraldia badator berriro.

Oraingo astean aurkeztu dute. Emaizta positiboak izan zituen iazkoak?

Bai, bai. Iazko azaro-abenduko 11 egun haietan egin genuen neurketa eta ikaragarria izan zen hobekuntza. Gerora, Euskararen Soziolinguistika Klusterrak ere neurtu du Euskaraldiaren ostean eta datu positiboak ematen ditu horrek ere. Euskaraldiak ekarri zuen diskurtso berri bat, elkarlan bide berriak... Oraingo astean aurkeztu eta datorren urtean egingo den Euskaraldian entitateak sartuko dira ariguneak sortzeko. Beste urrats inportante bat izango da.

ITURRI ONETIK

Automozioiko neska ikasleen topaketa

Lanbide Heziketako Automozioiko emakumezko ikasleen Euskadiko lehen topaketa egingo dute abenduaren 17an Aretxabaletako Lanbide Heziketa Eskolan. Lanbide Heziketako arlo industrialean eta, bereziki, automozioan emakumearen presentzia indartu nahi dute, gaur egun alor horretan dabilzan neskei ikusgarritasuna eman eta egiten duten lana aitortzeko. Era berean, posible izanez gero, ikasle hauen arteko sare bat sortu nahi dute. 30-50 bat ikasle elkartzea gura dute.

ALBISTE IZAN ZEN

2005-11-20

Mario Padilla txistulari ohiari omenaldia

Eskoriatzarrek Mario Padilla txistulari eta euskaltzalea omendu zuten. Urteetan herriko txistuaren, dantzaren eta, oro har, euskal kulturaren alde egindako lana eskertu zioten herritarrari. Hainbat ekitaldi antolatuta zituzten asteburu osoan, eta, domekan, txistu ikasle ohien kalejiraren ostean, omenaldia egin zioten udaletxe osteko kale-txokoan; bide batez, *Txistularien arratia* izenez batailatu zuten plazatxoan, Padillaren omenez.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Berri Txarrak taldeari agur

Aste bukaera honetan agur esango du Berri Txarrak-ek, eta Gorka Urbizuk gidatutako taldea *trending topic* izan da:

@bakardadetik: "Asteko plana: Errepasoa. Astelehena: Berri txarrak + ikasten. Asteartea: Eskuak + Libre. Asteazkena: Jaio Musika hil + Payola. Osteguna: Haria + Denbora da poligrafo bakarra. Ostirala: Infrasoinuak. Larunbata: Iruñara *#berri txarrak kontzertua!*".

@bira kultura: "Amets egin badezakegu, geuk ere lortu dezakegu. Eskerrik asko Berri Txarrak osatzen duzuen guzti-guztiori!!".



DEBAGOIENA ERALDATZEN

ARITZ KANPANEGI / MONDRAGON UNIBERTSITATEKO LANKI IKERTEGIKO KIDEA

Eskualdeko kooperatiben gizarte eraldaketa bokazioa aro berriaren aurrean

Aberastasuna sortu eta banatzeko orduan eredu aitzindaria eratu dute kooperatibek, bai mundu zabalean, baita gure eskualdean ere. Baina diferentzial kooperatiboa ez da hor amaitzen. Eredu kooperatiboaren zentzu-ezaugarri nagusietakoa da gizarteko beharrei erantzuteko bokazioa. Arrasateko Kooperatiba Esperientzia, enpresaren limiteak gainditu izan ditu Arizmendiarrietak abiatuturiko utopia kooperatiboak, ortzi mugan irudikatuz komunitate autoeratu, justu eta kohesionatua.

Ezin da Arrasateko Kooperatiba Esperientzia ulertu honen eraldaketa sozialerako bokazioa aintzat hartu gabe. Hastapeneko urte haietan, oinarriko hiru aspiraziotik bultzatu zuten mugimendu kooperatiboaren sorrera eta garapena: aberastasuna sortu eta modu justuan banatzea; enpresa eredu humanizatzea, langileen eta lanaren burujabetza oinarrian jarritz; eta egiturak sortzea, komunitate justu eta kohesionatua osatuko zuten pertsonen garapen integrala ahalbidetzeko. Lehen hamarkadetako gizarte eraldaketa bokazioaren zentralitate hori apurka-apurka moldatzen joan zen, kooperatiba esperientziaren ziklo berrietara egokitzen. Ekonomiaren globalizazioarekin eta merkatuen nazioarteratzearekin batera, kooperatiben gizarte eraldaketa bokazioa kalitatezko enpleguaren sorreran eta kooperatiben arteko fondo sozialetan hezurmamitu izan da.


Egun, aldaketa sakonen garaia bizi ditugu eta hauek nabarmen eragingo dute etorkizun hurbileko gizarte

eta ekonomian: klima larrialdia eta krisi energetikoa, aldaketa demografikoa, desoreka sozialen areagotzea, iraultza teknologiko eta digitala, ezagutzaren ekonomiak etorkizuneko lanean eragingo dituen aldaketak... Joera eta aldaketa hauen izaera globala kontuan izanda, hauek lantzeko estrategiak irudikatze aldera, ezinbestekoa izango da tokiko agendetatik (ere) erantzutea erronka global hauei. Eszenatoki honetan, dimentsio estrategikoa hartzen du tokiko lurraldeak; gure kasuan, eskualdeak.

Tokikoaren balioa

Tokiko lurraldea ez da "edukiontzi" geografiko soil bat. Tokiko lurraldearen balio nagusia bertako eragile-multzoak osatzen du, eragileen arteko harreman, antolaketa, kultura eta instituzionalizazioarekin batera. Garapen sozio-ekonomikoko prozesuen subjektu da tokiko lurraldea. Lurralde berrikuntza modelo nagusien azterketatik (distrito industrialak, "milieu" berritzaileak, cluster politikak, gertutasun dinamikak, berrikuntza sistema lokalak, "learning region"-ak...), hiru ideia nagusi atera ditzakegu: lehena, ezagutzaren ekonomiaren testuinguruan, hurbiltasun geografikoa abantaila lehiakorra izan daitekeela; bigarrena, balioan jartzen direla garapenaren ezaugarri ukiezinak (konfiantza, lankidetzak, kultura, harremanak...), eta

EZINBESTEKOA IZANGO DA TOKIKO AGENDETATIK ERANTZUTEA ERRONKA GLOBALEI



PIXABAY / GMB

hirugarrena, lurraldeak subjektu dinamikoak direla, zeinetan askotariko eragileen harremanak eta interakzioak sortzen den ezagutza.

Aro berriaren aurrean

Aldaketa sakonen testuinguru honetan, eskualdeko kooperatibak aro berri baten aurrean aurkitzen dira. Aro berri honen aurrean, eraldaketa sozial bokazioari dagokionez, kooperatibek bi dimentsio nagusi zaindu beharko dituzte: kanpo dimentsioa eta barne dimentsioa. Lehenengoari dagokionez, eragileen arteko lankidetzak dinamikak ezinbestekoak izango dira. Lanaren etorkizuna, klima larrialdia, biztanleriaren zahartzea... bezalako erronken konplexutasunaren aurrean, beharrezkoa izango da lankidetzak bide berriak arakatzea eskualdeko eragileen artean.

TOKIKO LURRALDEAREN BALIO NAGUSIA BERTAKO ERAGILE MULTZOAK OSATZEN DU

Administrazio publikoak, kooperatibek, hezkuntza eta ezagutza zentroek, gizarte eragileek, eta abarrek elkarrekin heldu beharko diete etorkizuneko erronka sozial hauei, eskualdeko agenda bateratu batetik.

Ezagutzaren ekonomiaren testuinguruan, badira askotariko eragileen arteko lankidetzaren bide hau jorratzen duten kasu enpiriko eta marko kontzeptualak: helize laukoitzean (eta boskoitzean) oinarritzen diren berrikuntza sistemak, gizarte berrikuntzaren paradigma, berrikuntza irekiko ekosistemak, eta abar.

Barne dimentsioari dagokionez, proiektu sozio-enpresarial sendoak beharko dira. Hala, atzean utzi beharko dira kooperatiben dimentsio enpresariala eta dimentsio soziala bananduta irudikatzen dituzten logikak. Etorkizun hurbileko

ADMINISTRAZIO PUBLIKOA, ENPRESA ERTAIN ETA TXIKIAK, KOOPERATIBOAK DIRA ESKUALDE HONETAN

testuinguruan, dimentsio soziala eta dimentsio enpresariala uztartuta landu ahalko dira, proiektu sozio-enpresarial sendoak garatuz. Horrela, oso modu naturalean irudika genezake, adibidez, aktibitate kooperatibo berrien negozio estrategiak ere lerrokatu ahalko direla karbono baxuko ekonomiaren trantsizioerantz; edo eraldaketa sozialerako bokazioa bihurtzeko daitekeela kooperatibetan talentua erakarri eta mantentzeko strategiaren palanketako bat.

Ziurrenik, Debagoiena izango da munduko dentsitate kooperatibo altuena duen eskualdea. Esan gabe doa, kooperatibak ez direla kooperatiboak diren eragile bakarrak: administrazio publikoa, enpresa ertain eta txikiak, gizarte eragileak, eta abar ere badira kooperatiboak eskualde honetan. Eskualdeko etorkizuneko erronkei heltzeko, beharrezkoa izango da elkarren arteko lankidetzak dinamikak berritzaileak sustatzea. Eta egiteko horretan eragile guztiek izan beharko dute proaktibo, eskualdearen etorkizunaren hobe beharrez.

Piztu da piztia

ÍÑIGO LOUVELLI NIEVES

ARETXABALETA

Azken egunotan zinean bi film ikusteko aukera izan dut, biak ala biak Espainiako gerra zibilean girotutakoak. Amenabarren *Mientras dure la guerra*-k Miguel de Unamuno *vasco*-aren azken egunak ditu ardatz, nola pasatu zen Errepublikak diskurtso ezkertiarrez babestetik altxamenduko kolpisten konplize izatera eta nola konturatu ordurako jadanik atzera bueltarik ez zuen izan: piztia geldiezina zen jada.

Beste filmak, moriartitarren *La trinchera infinita*-k, bestalde, faxistek harrapatu eta hilko zuten beldurrez etxean urteak ezkutaturik pasa zuten *sator* delakoan historia dakar gogora eta nola aliatuek faxismoaren aurkako gerra irabaztea zuten esperantza izpi bakar, ondoren Francoren aurka joko zutelakoan. Baina euren esperantza hori zapuztuta ikusiko zuten Eisenhowerrek lehenengo Franco aliatu gisa hartu eta, ondoren, Espainia frankista Nazio Batuen Erakundean onartu zutenean.

Egunotan Bolivian estatu kolpe larria bizitzen ari dira eta horren berri jasotzen ari gara, bereziki sare sozialen bitartez, jakin baitakigu komunikabide handiak, tartean *gure* EITB, nolako jarraipen hutsala dabiltzan egiten izugarri larria den gertakari horren inguruan. Horregatik, ziurrenik, askok ez duzue jakingo Europako Batasunak, tartean EAJren aldeko botoarekin, bere onspena eta zilegitasuna eman diola bere burua Boliviako

presidente gisa autoproklamatu duen Jeanine Añez ultraskuindar ultrakatolikoari. Modu honetan, Europako Batasuna, oposizioko indarrek eta indar militarrek burutzen ari diren Evo Morales presidentearen jarraitzaileen garbiketa sistematikoa zurituz, hilketen konplize bilakatu da.

Ziur nago Pinochet, Videla, Bordaberry, Stroessner, Rios Montt... diktadoreek Ameriketako Estatu Batuen laguntzarekin estatu kolpeak gauzatu zituztenean Europako Batasuna existitu izan balitz, logika berean, hauen aldeko babesa ere bozkatuko zukeela Izaskun Bilbaoren EAJk, euren demokraziaren ikuskera oligarkikoz mozorrotuko lituzkeela estatu kolpe horiek eta ondorengo sarraskiak ere. Zorionez, historiak epaitu ditu horiek guztiak. Zoritxarrez, ordea, historia etengabean errepikatzen den errotarria dugu: Trump, Netanyahu, Bolsonaro, Piñera, Salvini, Abascal, Guaido, Añez... piztia bera dira. Eta zuek, EAJ, piztia hori elikatzen zabilzate.

Zerbitzu publikoa ulertzeko moduak eta moduak

MAIDER MORRAS AZPIAZU
ARRASATEKO EH BILDUREN UDAL
TALDEAREN IZENEAN
ARRASATE

Arrasateko Udala gobernatzen duten PNV-PSOE hileta eta ezkontza zibilen gaian erakusten ari diren jarrera kezkatzekoa da oso.

Hiletekin hasita, egoskorkeriaz ukatzen digute agur zibilak modu intimo eta goxoan egiteko toki publiko bat.

Aurreko legealdian, 1.800 sinadura aurkeztu genizkien, arrasatearrek horrelako espazio bat eskatzen dutela ulertarazteko. Azkenean, baina, enpresa pribatu batek hartu behar izan du inizatiba, Udalak bermatu nahi ez duen zerbitzua herritarrei eman ahal izateko.

Ezkontzen kasuan, berriz, egutegi bat egin du udaletxean noiz ezkondu daitekeen erabakiz. Hala, urriaz geroztik, udal gobernuak soilik larunbat goizetan egingo ditu ezkontzak eta uztailearen 18tik irailaren 12ra, *tancat*, oporregatik itxita. Medioetan lau haizetara iragarriko ez duten arren, hainbat herritarri ukatu zaio jaurreikusita zeukan datan udaletxean ezkontzeko aukera. Erabakia justifikatzeko, ezkontzen eskaerakin "nahaspila" dagoela argudiatu dute. Ez zaigu pisuzko arrazoia iruditzen. Bai, ordea, susmagarria opor garaia tartean dela.

Egia da legez Udala ez dagoela behartuta ezkontzak egitera, ez eta herritarren hiletez arduratzera ere. Halere, non geratzen da gobernu honen zerbitzu bokazioa, non herritarrekiko konpromisoa hitzetatik harago?

Hileten kasuan, EH Bildutik tinko jarraituko dugu espazio publiko duin bat aldarrikatzen, enpresa pribatu batek eskaini arren, egongo direlako zerbitzua ordaindu ezin dutenak. Eta, ezkontzei dagokienez, gu prest gaude udal gobernuak ospatu gura ez dituenak gure gain hartzeko.

Erakunde publikoetan kargu politikoak ditugunok herritarren beharrei zor diegu gure lana. Horixe baita kargu

politikoa izatearen funtsa, denbora zehatz batez gure herrikideen zerbitzura egotea, denon ongizatea bilatzeko. Eta helburu horrek baino ezin du gidatu gure egunerokoa erakundeetan gauden bitartean. Gure erosotasun, ideologia eta interes partikularren gaintetik, herriaren zerbitzura egoteko obligazioa dugu eta obligazio hori ondo betetzeko modu bakarra dago: zerbitzu bokazioz aritzea.

Eltzikorta etxera: preso gaixoen aldeko dinamika

MAIALEN GURIDI LOIDI ETA UNAI
ARANTZABAL ANDUAGA

SARE
DEBAGOIENA

Urgentziazkoa da preso gaixoen egoerari amaiera ematea. Larritasun horren berri eman nahi diogu bailarako jendarteari, eta egoera hau iraultzeko bide berriak lantzen ari garela esatera gatoz.

Azkenaldian, duen larritasuna agerian gelditu da Jose Angel Otxoa de Eribe hil denean, 19 urte kartzelan egon ondoren etxean gaixorik larri utzi eta lau hilabetera hil denean. Hirugarren preso ohia da aurten hiltzen dena baldintza berdinetan, Juan Mari Maizkurrena eta Oier Gomezekin batera. Salbuespeneko espetxe politikak hil ditu.

Larriki gaixo diren presoek beraien gaixotasuna baldintza duinetan artatua izateko eskubidea dute berau gaintzeko helburuarekin, eta ez gaixotasunak jada atzera bueltarik ez duenean, hiltzera etxera bidaltzea.

Baldintza duinak dira: konfiantzazko

medikuaren jarraipena izatea, senideen gertutasun eta babesa jasotzea, egokitutako gune erosoan zaintza jasotzea...

Egoera lazgarri honetan 21 euskal preso politikoko daude; beraien artean, gure bailarako herrikidea den Joseba Erostege Bidaguren *Eltzikorta* dago; beraien askatasuna eta zaintza duina aldarrikatzeke ekimen sorta antolatuta da bailarako herrietan eta, bereziki, Antzuolan.

Joseba Erostege Bidaguren. Herrera de la Manchán dago preso, 1997. urtetik dago preso, 22 urte luze. 1953an jaio zen; beraz, 66 urte ditu. Bere gaixotasunaren diagnosis ondorengoa da: koloneko askotariko polipoak kolektomiarekin; uzki-perineo aldeko fistula konplexua, uzki kartzinoma berrukosoa, kolon zatia kendu behar izan diote.

Egoera lazgarri hau berriro mahaigaineratu eta aktibazioa sustatzeko asmoz, hemendik aurrera garatzeko herrialdez herrialde, eskualdez eskualde, herriz herri –lehenasunez gaixo larriki dauden herrietan–, gaixo larriki bizi duten errealitatearen berri eman eta egoeraren larritasuna irudikatu asmoz, *Anbulantzia*-ren dinamika martxan jarriko dugu bailaran, azaroaren 29 eta 30ean. Bukatzeko, herritar guztiei Antzuolan egingo dugun manifestaldi eta ekitaldirako gonbidapena egin nahi diegu, zapatuan, 30ean, 18:30ean, Antzuolako plazan.

Gaixotasun larriki dituzten presoek etxean egon behar dute.

Eltzikorta etxera.



Herritar bat Ferixalekuko aparkalekuko TAO makinan. XABI GOROSTIDI

Aparkatzeko modua irauli egingo da 2020an

TAO sistema erdialde osora hedatuko da "2020 amaierarako", baita San Andresera eta Munarrera ere. Musakolan eta auzo garaietan ez dute jarriko, "hasiera batean", eta urtarrilean prozesu parte hartzailea egingo du Udalak herritarren ekarpenak jasotzeko

Xabi Gorostidi ARRASATE

Gutxi barru, Arrasate erdialdean aparkatzeak ez du zerikusirik izango gaur egungo moduarekin. Udalak TAO (OTA) sistema ezarriko du erdialde osoan, San Andresen eta baita Bizkaia etorbidean eta Munarren. Azken bi leku horietan jartzearena bizilagunen eskakizunak eragin dute. Unibertitate inguruan dagoen TAO sistemaren eraginez, auto asko aritzen da bi gune horietan aparkatu nahian, eta egoera hori amaitzeko neurriak eskatu dituzte bizilagunek. Gogoratu behar da, gainera, gaitz honek baduela adostasun politikoa, Arrasaten TAO sistema ezartzeko beharra barne hartzen baitzuen 2018an aho batez onartu zen Mugikortasun Planak.

Lehen kontaktuak

Udalak bi enpresa kontratatuko ditu TAO sistemarekin laguntzeko. Bidein da bata, hainbat herritan TAO sistema ezartzen lan egin duena; berriki, Herna-

nin, esaterako. Bestea Aztiker da, eta hauen zeregina izango da herritarren ekarpenak sistema berrian txertatzeko parte hartze prozesua egitea. Prozesua urtarrilean hasiko da, eta, egin aurretik, postontziz postontzi bidaliko dute informazioa. Bidein enpresak egindako zirriborro baten gainean egingo dira herritarren ekarpenak. Martitzenean egindako agerraldi batean, gaiari buruz galdetuta, udal ordezkariak adierazi zuten zirriborro hori "bukatu gabe" dagoela, baina, GOIENAK jakin duenez, oposizioarekin eta herriko dendariekin jada egin dituzte gaiari buruzko bilerak, sistemari berriaren zertzelada nagusiak azaltzeko.

HIRU MOTATAKO TAO GUNEA EGONGO DIRA, ETA BAITA EGOILIARRENTZAKO APARKALEKUAK ERE

Hiru TAO mota eta egoiliarrak

Errotazio altuko guneak egongo dira -30 minutu inguru-, gune normalak -egonaldi luzeagoak- eta egun erdiz edo egun osoz aparkatzeko guneak ere. Non kokatuko diren eta zenbat iraungo duten ez dute zehaztu, baina bai, ordea, "hasiera batean" ez dutela sistema Musakolara eta auzo garaietara hedatuko.

Egoiliarrentzako guneak ere egongo dira: Grupo San Juane-ko bi plazatan ziur, eta baliteke Pablo Urangan ere.

"Joera handiegia"

Herriko mugikortasuna lau hilabetez aztertu ostean, Intra enpresako kontsultore Joan Esteveordali elkarrizketa egin zion GOIENAK duela bi urte, eta garbi zuen Arrasatek zer zuen hobetzeko: "Ibilbide laburretarako, autoa hartzeko joera handiegia dago". Neurri honekin hori konpondu nahi du Gobernuak, "nahiz eta ez den prozesu erraza ez atsegina izango".

Indarkeria matxistaren aurkako manifestazioa astelehenean

Manifestazioa izango da azaroaren 25eko ekintza nagusia, baina aurretik eta ostean ere landuko dute gaia

X.G. ARRASATE

Azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Eguna ospatuko da. Horren harira, *Urratzen gaituzten sasi guztien gainean, saretu* kanpainaren baitan, ekimen berezi ugari antolatu ditu Udalak herriko mugimendu feminista osatzen duten talde eta elkar-teekin elkarlanean.

Aurretik eta ostean

Zapatuan, autodefentsa feminista tailerra egingo dute Emakume Txokoan (10:00-14:00 eta 15:30-19:30). Ikastaroa doakoa izango da -gaztekeraz- eta interesdunek aurrez izena eman beharko dute. Astelehenean, manifestazioa egingo dute, 19:30ean, Seber Altubetik abiatuta. Herriko Plazan amaituko da, eta bertan ekitaldi berezia egingo dute. Egun bererako,



2017ko manifestazioaren une bat. GOIENA

Ikasle Abertzaleak plataformak lanuzte deialdia du deituta, eta 10:30ean indarkeria matxistari buruzko tailerra egingo dute, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan. Azkenik, azaroaren 28an, *Zauriak* dokumentala proiektatuko dute, Kulturaten, 18:30ean.

Ika-mika udaltzainekin lotutako bi kontratazio kasuren harira

EH Bilduk eta Erne sindikatuak "irregulartasunak" salatu dituzte, eta Udal Gobernuak gezurtatu egin ditu

X. G. ARRASATE

Arrasateko udaltzainen lantaldean afiliaturen bat edo beste duen Erne sindikatuak -ez dute zehazten zenbat diren- oharra kaleratu zuen pasa den ostegunean, "gidabaimena indarrean ez zuten udaltzain baten kontratazioa" salatuz. Hurrengo egunean, EH Bilduk gaiari buruzko agerraldia egin zuen, esanez 2018ko urrian gidabaimena "erretiratu" zuen udaltzain bat kontratatua zuela Udalak, eta gaineratu zuen Arrasateko udaltzainek salaketa jarri zutela kontratua baliogabetez eskatuz. Udal Gobernuak azaldu duenez, udaltzain horrek ez zuen gidabaimena "erretiratuta" edo "punturik gabe, erregulatzeko prozesuan" baizik. Haren aurkako salaketaren harira udaltzainari gidabaimena eskatu zioten, eta une hartan indarrean

zeukala diote. "Guk ez dugu irregulartasunik egin", azaldu du Personal Saileko batzordeburu Ander Garayk.

GOIENAK jakin duenez, kontratatzeke uanean udaltzain horrek ez zuen gidabaimena indarrean, ikusmenarekin lotutako ebakuntza baten ondorioz. Gidabaimena berriz indarrean edukitzeko, test psikotekniko bat gainditu behar zuen, eta udaltzainek salaketa jarri ostean test hori gainditu zuen.

Curriculumen kasua

EH Bilduk beste kasu bat salatu zuen: azaro hasieran Udalak hiru udaltzain kontratu zituela salatu zuten, hauek Udalera curriculumak bidali ostean. Gobernuak azaldu du kontratazio horiek Arkauteko lan-poltsaren bidez egin direla, eta hiru ordezkari udaltzain izan zirela.

Emakume Txokoa lekuz aldatu nahi du EH Bilduk

Laster hutsik geratuko denez Monterron Jauregira lekualdatzea aztertzeke eskatu diote Gobernuari, 2020ko aurrekontuak onartu aurretik. Herriko "puntu ilun batean" dagoela eta "txiki geratzen ari dela" argudiatu dute, eta Gobernuak ez du gaizki ikusi

Xabi Gorostidi ARRASATE

Jakina da Monterron jauregia hutsik geratuko dela, bertan egoitza duten Arrasate Musikaleko kideek etxe berria dute-eta zain: Juan Arzamendi Musika Etxea, hain zuzen. Dena ondo bidean, 2020ko udarako prest egongo da eraikin berritua, eta, une horretan, herri erdian dagoen jauregia hutsik geratuko da.

Hauteskunde kanpainan iragarri bezala, EH Bilduk beharrezko ikusten du Emakume Txokoa egun dagoen kokalekutik "erdigunera" eroatea, eta lekualdatzea "teknikoki" egingarria den ikusteko azterketa egitea eskatu diote Gobernuari,



Emakume Txokoa, Jose Luis Iñarra pasealekutik ikusita. XABI GOROSTIDI

2020ko aurrekontuak onartzeke daude eta. "Gure proposamena Emakume Txokoak dituen zenbait beharri erantzutera dator: ireki zenetik 16 urte pasatu direlarik, gaur egun erabiltzen duen espazioa txiki geratu da eskaintzen dituen zerbitzu eta jarduera guztiak baldintza onetan aurrera eramateko. Bestalde, zoko ilun batean dago kokatuta, herriko puntu ilun larrietako batean, eta horrek arriskuan jartzen du egunero zerbitzuko teknikarien, garbitzaileen eta erabiltzaileen segurtasuna", argudiatu du EH Bilduk, ohar bidez.

Gobernuaren erantzuna

2020ko aurrekontuen proposamena aurkeztu du asteon Gobernuak, eta, lekualdatzeari buruz galdetuta, zera erantzun zuten: "Hasiera batean, ados gaude Emakume Txokoa Monterron jauregira ekartzarekin, baina gustatuko litzaiguke, baita ere, oposizioak gure aurrekontuak babestea. Azterketa hori egiteko dirua zein partida kenduta lortuko litzatekeen definitzea ere nahiko genuke".

OHARRAK

Pentsiodunak

Astelehenean elkartuko dira, 12:00etan, Herriko Plazan.

Dokumentala Iratin

Huerta de Peralta herriko nekazarien borroka sindikalari buruzko *Hokoke* dokumentala emango dute domekan, 18:30ean.

'Iragana astintzen'

Jose Angel Achonek Arrasateko Erdi Aroa aztertuko du, asteazkenean, 19:00etan, Kulturateko areto nagusian.

Nagusien Kontseilua

Caritasek, Sasoibidek, Goienagusik, Duintasunak eta herriko erretiratu elkarteek elkarte bat sortu dute, Arrasateko Nagusien Kontseilua izenpean. Lehen ekintza gisa, menpekotasunari buruzko hitzaldia antolatu dute astelehenerako. Ander Rodriguezek gidatuko du; 18:30ean, Kulturaten.

ALMACENES
ARRASATE

BLACK
FRIDAY

AZAROAREN 25etik
ABENDUAREN 2ra
BEZik gabeko eguna baino hobea!

 <p>ZANUSSI A+++ 1200 b/min 7 Kg</p> <p>GARBIGAILUA ZW71243W 540 -%42 315 €</p>	 <p>Ecolab A+++ 1200 b/min 8 Kg</p> <p>GARBIGAILUA 3T9986BT 550 -%33 365 €</p>	 <p>Whirlpool A+++ 60 cm</p> <p>ONTZI-GARBIGAILUA WFO-3T132X 650 -%35 425 €</p>	 <p>Whirlpool A+++ 60 cm</p> <p>ONTZI-GARBIGAILUA WFO-3T132 599 -%33 399 €</p>	 <p>beko</p> <p>LABEA + BITROA BSE2120X 399 €</p>
 <p>AEG</p> <p>INDUKZIO PLAKA IKB63341FB 770 -%48 399 €</p>	 <p>AEG</p> <p>LABE PIROLITIKOA BPS351120M 745 -%40 450 €</p>	 <p>Whirlpool A+++ 2030 x 595 x 650</p> <p>HOZKAILUA WNF9T3ZHX 999 -%37 635 €</p>	 <p>BOSCH A+++ 1860 x 595 x 650</p> <p>HOZKAILUA KGN39M3A 880 -%32 599 €</p>	 <p>Panasonic</p> <p>SMARTH TELEBISTA 4K ULTRA HD 50" — 399 € 65" — 699 €</p>

Eskaintza balagarria akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxe: 943 77 13 13 Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

Erguingo lau igogailuak, 2020ko inbertsio nagusi

Gobernuak prest du 2020rako aurrekontu proposamena, 34.800.000 eurokoa; laztik hona %4,5 handitzen da eta 5.355.000 euro daude inbertsioetarako. 2.300.000 euro –BEZik gabe– hartuko ditu Erguingo igogailuak eta lanak abenduan hasiko dira

Xabi Gorostidi ARRASATE

Aldez aurretik oposizioari aurkeztu ostean, martitzenean komunikabideen aurrean aurkeztu zuen Udal Gobernuak 2020rako aurrekontu proposamena: 34.800.000 eurokoa izatea proposatu zuten, iaz baino milioi eta erdi euro pasatxo handiagoa. "Foru fondoak, Udalak eskatutako dirulaguntzek eta obren zer-gak eragin dute igoera", azaldu zuen Ogasun batzordeburu Ander Garayk. Pertsonal eta zerbitzu gastuek ia aurrekontuaren %70 hartuko dute, baina aurtengo igoerak eragina izango du inbertsioetan. 5.355.000 euroko inbertsioak egitea aurreikusten dute, iaz baino %15 gehiago. Inbertsio nagusia Erguingo igogailu sistema exekutatzera bideratuko dute, baina, hura gauzatzeaz gain, Santa Teresako igogailu proiektua aurten idatziko dela gaineratu zuen Maria Ubarretxena alkateak. Mugikortasunarekin lotuta badaude inbertsio gehiago:

Araba etorbideko lanak amaitzeko 600.000 euro daude –bertan bidegorria doa–, eta, bidegorriarekin jarraituz, 100.000 euro jarriko dituzte Ekoboulevard proiekturako; hain zuzen, Maalako biribilguneetik Araba etorbidera doan bidegorri zatirako. Aurreko agintalditik datozen eta martxan dauden proiektuetarako ere badaude finantzaketa lerroak. Juan Arzamendi Musika Etxera 519.000 euro bideratuko dituzte –219.000 lanak amaitzeko eta 300.000 euro ekipamendurako– eta Kulturolara, adibidez, 500.000 euro. 25.000 euro bideratuko dituzte Musakolako kiroldegia berritzeko prozesu parte hartzaile, eta, behin hori eginda, bukaerako proiektua idaztea falta litzateke.

Abenduaren 3ko osoko bilkuran onartuko dituzte aurrekontuak, eta oposizioaren ekarpenak eta onarpena lortzeko nahia azaldu zuten Gobernu ordezkariek.



Andre adindun bat, bigarren igogailuaren kokalekuan eskailerak igotzeko prest. x.g.

Gabônetako 50 otarreren zozketa

Egin zure erosketak Arrasaten abenduaren 14ra bitartean eta lortu saski hauetako bat!



...edo ibaiarte.eus webgunera sartu eta parte hartu zozketan.

Arrasateko kultura gida eta promozio gehiago

www.ibaiarte.eus

NIRE USTEZ



RAMON UGALDE

Azaroaren 25eko manipulazioaz

1960ko azaroaren 25ean, Dominikar Errepublikako Trujillo diktadorearen aginduz, euren senarrak kartzelan bisitatu ondoren, Mirabal hiru ahizpa eta Rufino de la Cruz txoferra atxilotu, torturatu eta hil egin zituzten. Laurak disidente politikoak ziren, klandestinitatean Trujilloren kontra arituak.

1981ean proposatu zuten, azaroaren 25ean, Mirabal ahizpen oroimenez *Emakumeen aurkako indarkeria gehiago ez* eguna ospatzea. Nazio Batuen Erakundeak onartu egin zuen, funtsean, bikote harremanetan emakumeek jasaten duten bortizkeria salatzen. Ez al da euren borroka eta konpromiso politikoa desitxuratzea esatea emakumeak zirelako hil zituztela?

Zergatik banatzen dute Rufino de la Cruzek jasan zuen indarkeria eta neskek jasan zutena? Ez dago loturarik benetan gertatu zenaz eta ospatu nahi dutenaren artean. Gainera, Mirabal ahizpak ez ziren feministak. Bere garaian, Trujillok lauren heriotza "trafikoko istripu tragiko bat" izan zela adierazi zuen. Orain, eraildakoen erresistentzia eta konpromiso politikoa "genero indarkeria" arazo bihurtu dute. Estatuek egindako krimenak zuzitzeko?





Marta eta Inma Ruiz ahizpak. BELUN UNE AHAZTEZINAK

Bueltan da Kapikua, irudi eraberrituarekin

Berritasun askorekin zabaldu zituen berriz ere atea Kapikua dendak azaroaren 14an. Ilusio handiarekin ekin diote proiektu honi Ruiz ahizpek: "Denda berritu dugu, eta, emakumezkoen modan eskaintza zabala daukagu"

Familia negozioa da Arrasateko San Andres auzoan dagoen kapikua denda, eta Inma eta Marta Ruiz ahizpak daude haren atzean. 2006an lokalaren ardura

hartu zutenetik, lanean jardun dute urtez urte. "13 urteko ibilbidean, bezeroen beharrei egokitzen joan gara. Hasieran, gizezkoentzako osagarriak eta

emakumeentzako moda eta osagarriak saltzen genituen. Baina bezeroen eskaria aldatzen joan da eta gu ere berrasmutzen joan gara. Orain, emakumezkoen moda

eskaintzen dugu, neurri handiko arroparen eskaintza zabalarekin".

Hiru astez denda berritzeko lanetan ibili ondoren, azaroaren 14an berriz ere zabaldu zituen atea Kapikua dendak. "Denda berritzeko beharra ikusten genuen, oso garrantzitsua da guretzat bezeroak dendara sartzeko dena ikusgai eta eskuragarri izatea".

Atentzio pertsonalizatua, gertutasuna eta aholkularitza dira Kapikua dendaren bereizgarri. "Gure lehentasuna bezeroak pozik egotea da. Dendara sartzen diren guztiek atentzio pertsonalizatua jasoko dute. Laguntza nahi duen guztiari aholkuak emango dizkiogu, bakoitzaren gustuak eta nahiak kontuan izanda. Profesionalak gara eta gure bezeroak erosten dutenarekin pozik egotea nahi dugu".

Emakumezkoen moda

Ibilbide berri honetan, emakumezkoen moda eta osagarriak dira Kapikua dendaren eskaintza. Gainera, neurri handietako arropetan eskaintza zabala dute. "38 eta 60 arteko jantziak aurki daitezke gure dendan. Neurriak ez du norberaren janzkera mugatu behar, eta, horregatik, neurri eta gustu guztietarako arropak ditugu Kapikuan". Nazio mailako ekoizleak dituzte, gehienbat, eta produktuen kalitatea beraien lehentasunetako bat ere bada. "Ekoizle txikiekin egiten dugu lan, kalitatea asko zaintzen dute, eta hori oso garrantzitsua da guretzat".

Bezeroei eskertuta

Kapikua denda Arrasateko komertzio txiki bat da eta herriko eta inguruko herritarren babesagatik jarraitzen du aurrera. "Gure bezeroen konfiantza ezin-

bestekoa da lanean jarraitzeko. San Andres auzoan gaude, baina Arrasateko herritar guztiak eta dendara etorri nahi duten guztiak oso pozik jasoko ditugu. Inolako konpromisorik gabe, dendara sartzeko eta gure arropak ikusteko gonbidatzen dugu jendea, ez dezatela beldurrik izan, horretarako gaude". Gainera, Kapikua dendak egubakoitzetan ordutegi jarraitua dauka eta eguerdian ez da ixten. "Lanagatik edo bestelako betebeharrengatik ohiko ordutegian etorri ezin direnei aukera hau eskaini nahi diegu. Beraz, egubakoitzetan 09:30etik 20:00etara zabalik daukagu denda eta zapatuetan zabalik daukagu denda goizetan eta arratsaldetan".

Kapikua dendak Facebook eta Instagram kontuak dauzka eta bertan oso aktiboak dira. "Sare sozialak jendearengana hurbiltzeko erabiltzen ditugu; dendaren galderak erantzuten ditugu".

Astebete pasa da Kapikuak berriz ere atea zabaldu zituenetik, eta Marta eta Inma ahizpak gogotsu daude: "Ibilbide berri hau ilusio eta gogo handiarekin hartu dugu".

"INOLAKO KONPROMISORIK GABE DENDARA SARTZEA ANIMATZEN DUGU JENDEA"

"GUK LANEAN JARRAITZEA POSIBLE EGITEN DUTEN BEZEROEI ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIEGU"



Eskerrik asko urte guzti hauetan gurekin egoteagatik! Orain berrituta gertu!!

kapikua
moda denda

Doctor Bañez Kalea, 4,
20500 Arrasate
Tel.: 943 79 19 94

hurrengo erosketan

-15%

instagram.com/kapikua

facebook.com/kapikua



Aikido taldekoak, duela 10 urte, Mojategin egindako erakustaldi batean. AIKIDO TALDEA

Hiru hamarkada luze aikidoaren onurak lantzen

Indar handirik gabe aurkari indartsuagoak mendean hartzea ahalbidetzen duen arte martziala da aikidoa. Kung-fu irakasle zenean ezagutu zuen teknika Jose Matasek, eta 30 urte daramatza horren onurak irakasten; zapatuan, urteurrena ospatuko dute

Xabi Gorostidi ARRASATE

Duela 30 urte baino gehiago aikidoarekin txundituta geratu zen Jose Matas. "Garai hartan, kung-fu irakasle nintzen, eta Donostian egindako nazioarteko jardunaldi batzuetara joan nintzen. Fisikoki oso ondo prestatuta egotea eskatzen du kung-fuak, eta momentu hartan oso oso indartsu nengoen. Hala, jardunaldien barruan, ni baino zaharragoa eta ahulagoa zen aurkari batekin lehiatzeko aukera izan nuen, eta bizitza osorako lezio bat eman zidan. Munduko indar guztiarekin erasotzera joan nintzen, eta apenas indarririk erabili gabe lurrera bota ninduen. Esan nion nire buruari: zer demontre egin du tipo horrek ni hala menderatzen? Ba, erantzuna aikidoa zen".

Yasunary Kitaura zuen izena japoniar jatorriko borrokalari hark, eta harekin harremanetan aritu zen Matas, diziplina horretako irakasle izan ahal izateko. "Hark emandako kurtsoe-

tara joan nintzen, Madrilerla, Zaragozara, Frantziara... lau eguneko kurtsoak ziren, egunero bost ordu saioak... Hainbat kurtso egin ostean, inguruko japoniar elkarteek erabaki zuten banuela maila nahikoa irakasle jarduteko".

Buru azkarra, indarraren orde
Behin irakasle izateko bermeak jasota, 1989an Musakolako kiroldegian hasi ziren Matas eta konpainia aikidoa jorratzen.

Esaera zaharrak honela dio: *Anitz balio du indarrak, gehiago buru azkarrak*. Eta aikidoa horren erakusle garbia dela dio Matasek. "Kung-fuan fisikoki hobeto dagoenak lortzen du irabaztea, orokorrean, baina aiki-

DUELA BI URTETIK, AIKIDOA LANTZEN DUTE AUTODEFENTSA HOBETU NAHI DUTEN EMAKUMEEKIN

doak ez du horren beharrik. Funtsean, bi oinarrizko zeregin ditu aikidoak: kolpeak xurgatzea eta aurkaria desorekatzea. Hori lortzeko teknikan sakontzen duen arte martziala da".

Aikidoa, emakumeak babesteko
Emakumeen aurkako biolentzia kasuek eraginda, ABAE elkarteak aikidoa barne dagoen doako autodefentsa feminista ikastaroak antolatzen hasi zen, emakumeak defentsa gaietan ahalduntzeko. "Aikidoa oso eraginkorra da emakumeen defentsarako, batez ere, orokorrean erasotzaileek eurek baino indar handiagoa edukitzen dutelako. Bi urte daramatzagu hilerdo doako tailerrak eskaintzen, eta beharrezkoak dira, errealitate oso latzak dituzten emakumeak daude eta".

Zapatuan ospakizuna

30. urteurrena ospatzeko, zapatu goizean lan-saio jendetsua egingo dute, eta ostean, poteotxoak, bazkaria eta hitzaldi bat ere.



Margo Taldekoak, iaz, euren lokalean aterako talde argazkian. AMAIA TXINTXURRETA

Margo Taldearen beste erakusketa bat, gaurtik aurrera ikusgai

Aurtengo uzta Kulturaren erakutsiko dute azaroaren 22tik abenduaren 20ra, iaz baino akuarela gehiagorekin

X.G. ARRASATE

Arrasate Margo Taldeko partaideek gehien gustatzen zaien hori egiten jarraitzen eta azken urtean sortutako margolanak herritar guztiak ikusteko moduan jarriko dituzte gaur.

"Urtero legez, gure lana ikusgai jarriko dugu erakusketa honetan. Esango nuke aurten akuarela gehiago egongo direla iaz baino. Ez ditut koadro guztiak ikusi, baina inpresio hori daukat", azaldu du taldeko kide Bea Arregik. Baina ez dira dena akuarela izango: "Olioarekin egindako eta margo akrilikoen osatutako lanak ere egongo dira".

Teknikak definitu ostean zerenolako gaiak ikusi ahaliko diren galdetuta, hona Arregiren erantzuna: "Koadro askok abstraktiotik edango dute, beste batzuek argazkiak imitatuko dituzte... denetarik egongo da". Guztira, taldeko 20 pertsona inguruk

parte hartuko dute abenduaren 20ra arte ikusgai egongo den erakusketan. Ikusleren bat koardoren batekin maiteminduz gero, margolariekin kontaktuan jar daiteke hura erosteko: "Ez diegu preziorik jartzen, baina jendeak galdetzea dauka".

Taldearen osasun puntua ona dela dio Arregik: "24 lagun gauden elkarteetan, nahiz eta egia den egunerokoa ez garena hainbeste lagun ibiltzen. Gaur egun gauden tailerlean ez gara gehiago sartzen, eta, orokorrean, baten bat joaten bada segituan betetzen dugu haren lekua".

Laster, lokal berria

Taldeak ospitale alboko lokalean jarraitzen du, baina 2021ean egoitza berria izango dute Kulturolan zain. "Bertan lagun gehiago sartuko gara, ziurrenik. Pena bakarria, ez dugula hemen adinako argitasunik edukiko".

Teknika hobetzeko ikastaroa prestatu dute tailugileek

Arrasateko Tailugileen elkarteak aurten ere erdi mailako hobetze ikastaroa prestatu du. Ikastaro hau abenduaren 9an hasiko da eta 30 ordu iraungo du. Lehen mailako ikastaroa gaingitu ostean tailugintzan trebatu edo hobetu nahi dutenei zuzenduta dago. Apuntatu nahi dutenek dei dezatela 618 88 64 32 telefono zenbakira.

Gaiteroak eta Banda Gaztekoak elkarrekin gaur arratsaldean

Gaur, azaroak 22, musikarien patroia Santa Zeziliaren eguna da, eta Arrasate Musikalekoek euren patroia omenduko dute. Banda Gazteko partaideek 10-15 urte arteko 26 lagun- kalejira hasiko dute, 17:30ean, eta alboan edukiko dituzte gaiteroak ere. Guztiak ez egon arren, hamar gaitero eta perkusio-jole batuko zaizkie.

**GRUPO
EASO
MOTOR**

www.grupoeasomotor.com



GRUPO EASO MOTOR AURRERATU EGIN DA

BLACK

FRIDAY

**Azaroan ESKAINTZA HANDIAK marka guztietan:
FORD, HYUNDAI, CITROËN, MAZDA, JAGUAR eta LAND ROVER
0 KM-ko kotxe ugari prezio berezietan**

**Zatoz Grupo Easo Motor-en kontzesionarioetara
eta eskaintza handiak aprobetxatu!**

**GRUPO
EASO
MOTOR**
www.grupoeasomotor.com

Lintzirin-Olartzun
A8 salida 4B N1 a Irún
Polígono Lintzirin 10
Teléfono 943 260 426

Lasarte-Oria
Pabellón 2
(Salida N1, nº 451)
Teléfono 943 376 753

Beasain
Automóviles Mujika,
Carretera N1. Km 419
Teléfono 943 887 400

Irún
Vertiz
J. Thalamas
Teléfono 943 629 200

Arrasate
Automóviles Mugarri
C/San Andrés, 6
Teléfono 943 790744

*OKM-ak matrikula duten kotxe berriak dira, estreinatzerak. Stock-a amaitu arteko eskaintza. Finantziazio kanpaina gehitu gabeko azken prezioa, 120 hilabeterako sarrerarik gabeko kuota kalkulaturik. Talde komertzialari kuota sarrerarekin, beste epeak, eskura ordainduz ateratzen den prezioa eta gainontzeko baldintzak galdetu. OKM-ko eta Erdiberriko prezioak.



Udaleko Hirigintza teknikari Xabi Otxoa, bidegorria egingo den espaloian. MIRARI ALTUBE

Santa Kurtzeko bidegorri zatiaren proiektua, gertu

Egokitu egingo du Udalak Kurtzebarri eskola inguruko bidegorri tarte, oinezkoen eta bizikletan dabilzanen segurtasuna hobetze aldera. Obraren lizitazioa hilabete honetan jarriko dute abian, eta lanak 2020ko ekainean hasi gura dituzte

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Azbe lantegia zenaren biribil-gunetik hasi eta Sarasate kale-raino dagoen Santa Kurtz kale-zatia egokitu egingo du Udalak, bidegorriari lekua egiteko. Proiektu horrek eguaztenean jaso zuen oniritzia Hirigintza batzordean eta obraren lizitazioa hilabete honetan bertan abian jartzeko asmoa agertu zuen Xabi Otxoa zinegotziak.

Birmoldatuko den zatiak 278 metro ditu, eta, horretarako, 230.550 euro aurreikusi dituzte, 2019ko udal aurrekontuan sartuko dituztenak. Lanak datorren urteko ekainean hasi gura dituzte, eskola-oporrak aprobetxatuta, eta hamabi aste iraungo dute.

Garajeetatik saihebidera

Bidegorria egokitzearen arrazoi bat da gaur egun Kurtzebarri eskolaren jolastoki erditik pasatzen den zatia handik ateratzea. "Eskolaren aurrean oinezkoen eta txirrindularien segurtasuna hobetzeko pentsatuta dago proiektuan jaso dena", adierazi du Otxoak, eta hori zelan lortuko den ere zehaztu du: zirkulaziorako erreiak estutuko dituzte eta sigi-sagan jarri bidean, ibilgailuen abiadura murrizteko asmoarekin.

Era berean, garajeen sarbideei beste irtenbide bat emango diote: "Santa Kurtz kaletik sarbidea duten garajeetatik datorren gehiegizko zirkulazioa kendu

egingo da 21 eta 27. zenbakien artean, saihebiderrantz zuzenean irteteko aukera eskainita. Horrela, orain arte Kurtzebarri eskolaren aurretik derrigorrean pasatu behar zuten ibilgailuen zirkulazioa murriztea lortuko da", argitu du Otxoak.

Mugikortasuna helburu

Arrasatetik datorren eta Eskerriatzen doan bidegorria osatuko duela zati horrek gaineratu du Hirigintza zinegotziak: "Helburua da mugikortasun iraunkorrean pausoak ematen jarraitzea, eta oinezkoen eta txirrindularien joan-etorriak erraztea, herri barruko zein herri arteko sarean".

Bidegorriaren ezaugarriak

LEHEN TARTEA:

- Basabe kaletik pilotalekuraino.
- Egungo espaloitik doa.
 - Bi metroko kolore gorriko zoladura jarriko da.
 - Autoen zirkulazioa bi noranzkotan, garajeetatik irteera errazteko.

BIGARREN TARTEA:

- Pilotalekutik Kurtzebarri eskolaren hasierara.
- Zuhaitzak kenduko dira eta kale argiak aldatu.
 - Lehen zatian, eskumako aparkalekuak lekuz aldatuko dira.
 - Bigarren zatian, gorri margotuko da bidegorria eta galtzada-harri itxurako akabera emango zaio zoruari.
 - Espaloiak eta aparkalekuak, linean, bina metro izango dituzte, erreiak hiru metro, eta bidegorriak beste bi metro.

HIRUGARREN TARTEA:

- Eskolaren aurrealdea.
- Bidegorria errepidetik doa.
 - Bi metroko espaloia eskuinaldean.
 - Zamaletarako bi gune ezkerrean.

LAUGARREN TARTEA:

- Eskolatik trenbideraino.
- Espaloia behean Santa Kurtz eta Sarasate kaleen arteko bidegurutzean.
 - Aldapa eraiki propano-biltegiaren ondoan.

Elkarretaratzea astelehenean, azaroaren 25a gogoan

'Gure arteko arrazakeria' lantzeko tailerra egingo dute gaur, Mugimendu Feministak deituta

M.A. ARETXABALETAKO

Indarkeria Matxistaren Kontra Eguna lantzeko ekimenak antolatu dituzte Udalak eta Aretxabaletako Mugimendu Feministak, eta astelehenerako, azaroaren 25erako, elkarretaratzea deitu dute, emakumeek bizi duten indarkeria hori agerian uzteko; 19:00etan izango da, Herriko Plazan.

Horren aurretik, gaur, hausnartzeko elkartuko dira hainbat lagun, Arkupen (18:30). Luciana Alfaro feministak bideratuta, *Gure arteko arrazakeria* izango dute berbetarako gai mahaiaren bueltan. V. Jardunaldi Feministen ostean sortutako hainbat kezka antolatu dute.

Aksotariko ikuspegiak

Beste hitzaldi batzuk ere izan dira egunotan, gaiaren gaineko ikuspegiak jasotze aldera. Batetik, Kolonbiatik etorritako Combos hezkuntza elkarteko kideek herrialde hartan emakumeek bizi duten egoeraren gaineko azalpenak eman zituzten. Eta bestetik, Nerea Barjola idazleak Alcaseren gertatutako krimenari esanahi berria eman nahirik *Microfísica sexista del poder* liburuan jasotako berri eman zuen.

Odontologia estetikoak	Ortodontzia
Endodontzia	PADI zerbitzua
Inplantologia	Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 08:30-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55
www.duranahortzklinika.eus

"Herritarrok: etorri gosez, lan asko dago-eta egiteko"

EÑAUT ZUBIZARRETA LORAMENDIKO TEKNIKARIA

Urriari hartu zuen Loramendi euskara elkartearen gidaritzaren eta 2020ko Euskaraldiaren berotze eta gertatze lanetan buru-belarri dihardu orduz geroztik

Mirari Altube ARETXABALETA

Musikari jarduna Loramendiko teknikari lanarekin bateratzen dabil azken hilabeteotan Eñaut Zubizarreta aretxabaletarra.

Zelan doaz lehen asteak?

Oso ondo, neurria hartzen lanari, eta oso gustura. Aurtengo urteak dagoeneko egin du eta hurrengoari begira jarrita gauden, horri buelta bat emateko helburuarekin.

Euskaraldia da Loramendiko esku artean duen proiekturik garrantzitsuenak une honetan?

Nazio mailan landu beharreko proiektu garrantzitsua bada Euskaraldia, eta guk gure alea jarriko dugu. Baina herri mailan beste lanketa asko daude egiteko, eta horiei heldu gurako genieke 2020an.

Herritarren artean badago lanerako gogoia?

Potziala egon badago, baina mugiarazi egin behar dira herritarrak. Horretarako, formatu berriak sortu behar ditugu; hori da, behintzat, gure asmoa.

Herritarrak lo daudela esango zenuke?

Guztiok gaudela erdi lo uste dut; zelan iratzarri? Hor dago gakoa. Aretxabaletan zelan ikusten duzu euskararen egoera?

Ondo ez, baina alde guztietako kontua dela esango nuke. Erabilera mailan egiten dugu huts, ezagutza handia bada ere.

Non jarri beharko litzateke fokua? Gazteengan, adibidez?

Adin tarte guztietan eragin behar dela uste dut. Umeei eta gazteei etxean jasotakoa errepikatzen dute. Gurasoek esan izan dute etxean euskaraz egiten dutela, baina kontua ez da hori bakarrik; zer kontsumitzen duten, irakurtzen duten edo ez... Beste makinatxo bat faktore dago.

Euskaraldiarekin bat egiteko urte dator berriro; zer esan herritarrei?

Hausnartze urtea izaten dabil 2019a, iaz egindakoa gogoratze eta hurrengo urtekoari begi-



Eñaut Zubizarreta. MIRARI ALTUBE



Euskaraldia gertatzeko elkartutakoak, eguazteneko bileran. M.A.

Abenduaren 3ko ekitaldiak

Euskararen Nazioarteko Eguneko ekitaldiak lotu ditu, astean, horretarako sortutako lantaldeak. Kalebarrenetik eta Portasol aldetik abiatuta kalejirak egingo dituzte eta ospakizun nagusia Herriko Plazan izango da; besteak beste, dantzariekin eta musikariek.

ra jartzeko. Indarrak hartu behar ditugu orain; hortaz, gosez etor daitezela esango nieke; izan ere, lan asko dago egiteko eta guztion beharra dago.

Hori girotzen joateko, abenduaren 3ko ekitaldia antolatu duzue.

Bai; ekitaldi apala izango da, baina ez dugu behar handikeriarik. Euskara ardatz hartuta egingo dugun ospakizun horrekin bat egitera deitzen ditugu herritarrak, gonbidapen zabala da guztiendako.



M.A.

100 lagun inguru Sare babesten

Euskal presoen urrutze politika bukatzeko eskaera egin zuten zapatuan, Aretxabaletako Sarek deituta, eta hori lantzen hasteko gertu agertu ziren 100 bat herritar. Konponbiderako eta elkarbizitzarako unea dela adierazi zuten, eta sufritu duten guztientzat "aitortza eta erreparazioa" aldarrikatu zituzten; ildo horretatik, Garikoitz Gartzia Arrieta presoaren egoera salatu zuten.

Hamabi bikotek jardungo dute frontenis txapelketan

Aste bukaeran izango dira Aretxabaletako kirol elkarteak antolatutako frontenis misto txapelketako partidukoak. Hamabi bikotek jardungo dute, eta lau multzotan banatu dituzte horiek. Hain zuzen ere, lehenengo faseko partidukoak bihar, zapatua, jokatuko dituzte, 08:00ak eta 13:30ak bitartean, Iturrigorri pilotalekuan.

Domekan, ostera, zortzi partiduko izango dira. Aurreko eguneko sailkatutako bikotek final-laurdenak jokatuko dituzte, 09:00etan hasita, eta irabazleek finalerdietarako txartela lortuko dute. Partidu horiek irabazten dituzten bi bikotek sailkatuko dira finalerako; hori 12:30ean izango da. Beste bi bikotek, ostera, hirugarren eta laugarren postuak jokatuko dituzte.

Antolatzaileen asmoa da pilotalekua zalez betetzea eta kirolaren bueltan giro polita sortzea.

Emakume poetak bistartzeko 'Andre eta jabe' ikuskizuna

Poesia musikatu saioa ekarriko dute Lekaixoka bertso eskolako kideek bihar, zapatua, udaletxe zaharrera (19:00), *Andre eta jabe* ikuskizunarekin.

Euskal literaturako emakume ahaztuen ahotsak agerian uztea du helburu emanaldiak; hori horrela, sasoi bateko bertsolarietatik hasi, Emakume Abertzale Batzako andreetatik pasatu eta gaur egungo poetetara bidea egingo dute. Zuzeneko ikuskizunarekin uztartuko dituzte poesia errezitaldiak, bertso kantukoak eta antzerkia, eta hori bideratuko dutenak izango dira Eider Perez eta Leire Etxezarreta musikariak –soinujolea eta gitarrista–.

OHARRAK

Ipuin kontaketa saioa

Miriam Mendoza kontalariak 5 urtetik aurrerako haurrei zuzendutako saioa eskainiko du bihar, zapatua, liburutegian (11:30).

Gaztaina-jana

Basotxoko erretiratuek gaztaina-jana izango dute gaur (18:00) elkartean bertan.

Jostailu erakusketa

Jostailuen erakusketa jarriko du Algara ludotekak mojen komentuan, azaroaren 28an eta 29an (17:00). Helburua da jolas eta jostailu aukeraketan gurasoei zein umeei laguntzea. Trebetasun jolasak eta jostailuak, kooperatiboak eta hizkuntza lantzekoak egongo dira.

Gabonetan Eskoriatzan geratzeko arrazoï ugari

Eskoriatzako Udalak jarduera asko prestatu ditu Gabonetarako. Horren guztiaren berri emateko, 'Gabonak Eskoriatzan' lelopean aurkezpena egin zuten, eguaztenean. Hain zuzen ere, data hauetan izango diren ekintza guztien berri eman zuten

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gabonak iristear daude, eta data hauetan herrian geratzeko eta bertan gozatzeko ekintza mordo izango dira. Horien berri arlo ezberdinetako teknikari eta batzordeburuek eman zuten eguaztenean, osoko bilkuren aretoan. Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak, Eneritz Zubia Garapen Ekonomiko eta Turismo teknikariak, Mari Karmen Arrieta Euskara teknikariak eta Arantxa Unzueta Kultura teknikariak hartu zuten hitza, eta urteroko ohiko ekintzez gain zenbait beritasun egongo direla azpimarratu zuten.

IV. pintxo lehiaketa

Azaroko azken asteburuan –egubakoitzetik domekara bitartean, biak barne–, esaterako, Eskoriatzako IV. pintxo lehiaketa izango da. Aurten, sei tabernak hartuko dute parte lehiaketan, inoiz baino gehiagok. Naira, Akeita, Mirentxu, Toki Alai,



Gabonak Eskoriatzan aurkezpenen batutakoak talde argazkian. IMANOL BELOKI

Urrestilla eta Compostela dira parte hartuko dutenak.

Taberna parte hartzaile bakoitzak pintxo bakarra aurkeztuko du, eta zenbait baldintza ere bete beharko dituzte. Hain zuzen ere, Eskoriatzako produktuak erabi-

li beharko dira: herrian bertan erositako hiru produktu gutxienez erabiltzea derrigorrezkoa izango da. Gainera, produktuen jatorria publiko egingo da. Pintxo bakoitzak 1,80 euroko prezioa izango du, eta ordutegi hauetan

probatu ahal izango dituzte herriarrek: 12:00etatik 14:30era eta 18:30etik 21:00etara. "Domekarako ez da ezer berezirik antolatuta sari banaketara begira. Izan ere, tabernetakoek lan asko dela adierazi digute, eta pertsonal aldetik ere ez dela beraiantzat bideragarria. Horrekin batera, herritar askok pintxo guztiak sari banaketa egunean probatu izan dituzte, eta hori ez da egitasmoaren helburua... Hala, pintxo onena aukeratzeko, pintxo guztiak probatu beharko dira. Aldiz, 50 euroko bi sariren zozketan parte hartzeko, ez da beharrezkoa izango pintxo guztiak probatuta izatea", adierazi du Eneritz Zubiak, Garapen Ekonomiko eta Turismo teknikariak.

Izotz-pista pilotalekuan

Aste bukaera berean izotz-pista jarriko dute Joseba Inurrategi pilotalekuan eta azaroaren 30etik abenduaren 15era bitartean egongo da irekita. Lehenengo aldia da Eskoriatzan izotz-pista jarriko dutena, eta astegunetan arratsalde eta asteburuetan eta jaiegunetan goizez eta arratsalde izango da zabalik. "200 metro karratu ditu eta sarrerak 20 minutuko txandakoak izango dira. Adin txikikoentzat euro bat izango da sarrera eta 18 urtetik gorakoentzat bi euroko kostua izango du. Honekin batera, herriko merkatarien artean sarrera batzuk banatuko ditugu, eta beraiek nahi duten moduan

banatuko dituzte", adierazi du Zubiak.

Gabonetako argien piztuera

Abenduaren 5ean, eguena, izango da Gabonetako argien piztuera ekitaldia Fernando Eskoriatza plazan. Haurrentzako eskulan tailerrak izango dira, txokolate-jana, eta herriko txistularien, trikitilarien eta musika eskolako ikasleen musika saioa amaitzean piztuko dituzte Gabonetako argiak.

Iazko argi berak mantendu dituzten arren, zenbait auzotan argi berriak jarri dituztela adierazi zuten. Hain zuzen ere, Kua-truenan eta Elorretan.

Euskararen Eguna prest

Bestalde, azaroaren 29an eta azaroaren 30ean izango dira Euskararen Egunaren bueltako ekintzak. Ekitaldi guztiak Fernando Eskoriatza plazan jarriko den karpan izango direla adierazi zuten, eta, honekin batera, datorren urteko Euskaraldiaren berri ere emango dutela adierazi zuten. Horretarako ekitaldi berezia egingo dutela gaineratu zuten Mari Karmen Arrieta Euskara teknikariak.

JOSEBA INURRATEGI PILOTALEKUAN IZOTZ-PISTA JARRIKO DUTE AURTEN, LEHENENGOZ



I.B.

Autobusek buelta emateko

Marin auzoan arazoa izan dute autobusek buelta emateko. Hala, "Diputazioak emandako dirulaguntza bati esker, Eskoriatzako Udalaren aurrekontutik eta partikular batek utzitako lur zatiarekin, irtenbidea ematen saiatu gara arazoari", adierazi du Iñaki Kerexetak, Eskoriatzako Elizateen Elkarte bozeramaileak.

I. Mus Txapelketa antolatu dute Dorleta elkarteak

Eskoriatzako Dorleta Elkarteak I. Mus Txapelketa antolatu dute azaroaren 30erako. 16:00etan hasiko dituzte partidak, eta izen-ematea 15:30 aurretik egin beharko dute jokatu gura dutenek. Parte hartzeko, 40 euro ordaindu beharko du bikote bakoitzak.

Lehenengo lau sailkatuentzat sariak egongo direla adierazi dute antolatzaileek. Bikote irabazleak trofeoa, oparia eta bildutakoaren %45 jasoko ditu; bigarren postuan geratzen denak, trofeoa, oparia eta bildutakoaren %20; hirugarrenak, oparia eta bildutakoaren %15; eta laugarrenak, berriz, oparia eta bildutakoaren %10.

'Ez dok hiru' antzerki akustikoa izango da domekan Zaldibarren

Euskal Herriko kantutegian oinarritutako ikuskizun teatrala da domekan Zaldibar antzokian izango dena. 19:00etan hasiko da eta sarrerak lau eurotan erosteko aukera izango da, egunean bertan, leihatilan.

Publiko helduari zuzendutako ikuskizunak 75 minutu iraungo du, eta oholtza gainean Patxo Telleria eta Mikel Martinez izango dira antzeztan. Euskal musikaren historia ezagutarazten saiatuko dira, eta, horretarako, berrehun kanta baino gehiago erabiliko dituzte. Horrekin batera, umorea barra-barra erabiliko dute, eta euskaraz izango da *Ez dok hiru* antzerki akustikoa.

Maidar Galartzak ipuin kontaketa eskainiko du

Eskoriatzako Udal Bibliotekak antolatuta, ipuin kontaketa izango da azaroaren 28an, 18:00etan, bibliotekan bertan. 4 urtetik gorako haurrentzat zuzenduta egongo da eta kontaketa Maidar Galartzak eskainiko du.

Askotariko ipuin saioak eskaintzen ditu Maidar Galartza ipuin-kontalariak. Haurrentzako ez ezik, gazte eta helduentzat zuzendutakoak ere egiten ditu. Haurrentzat direnen artean, lau sailtan banatzen ditu bere kontaketa: maleta kontuak, beldurrei aurre egiteko ipuinak, printzesak kontu kontari eta Europako ipuinak. Hori horrela, sail horretako maleta kontuak eramango ditu Eskoriatzara.



laz, abenduaren 25ean Fernando Eskoriatza plazan egindako elkarretaratzean. ESKORIATZAN FEMINISMOA BIZIRIK

Indarkeria matxista gaitzesteko ekintza ugari

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna azaroaren 25ean da, eta, horren bueltan, zenbait ekintza izango dira Eskoriatzan datozen egunotan. Besteak beste, Atama taldekoek emakumeentzat prestatutako autodefentsarako aholku-tailerra

Imanol Beloki ESKORIATZA

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna da azaroaren 25ean, eta, horren bueltan, zenbait jardura antolatu dituzte Eskoriatzan: ikus-entzuzko baten proiektzioa Zaldibar antzokian, elkarretaratzea Fernando Eskoriatza plazan, hitzaldia kultura etxean eta autobabes aholkuei buruzko tailer bat Joseba Iñurrategi pilotalekuan.

Lehenengo ekintza bihar izango da. *Solo mía* pelikula proiektatuko da, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Javier Balaguer zuzendariaren filma da, eta Sergi Lopez eta Paz Vega dira protagonista nagusiak. Senar-emazte batzuen istorioa kontatzen da bertan. Bikotea ezkontzen deanean, guztia da zoriontasuna, baina, emakumea haurdun geratzean, hor hasiko dira arazoak. Irainak hasiko dira, lehenengo oihiak, lehenengo belarrondoak... eta emazteak bere senarraren benetako izaera bortitza ezagutuko du.

Elkarretaratzea eta hitzaldia

Astelehenean, azaroaren 25ean, berriz, elkarretaratzea izango da, 18:00etan, Fernando Eskoriatza plazan. Eta gero, Eskoriatzan Feminismoa Bizirik Taldeko kideek deituta, Las Guerreras Talde Feministako hiru kideren *Lo que no se ve de la violencia de genero* izeneko hitzaldia izango da kultura etxean, eta bertaratzeke dei egin dute Eskoriatzan Feminismoa Bizirik Taldeko kideek: "Hizlariak bailarakoak dira, eta indarkeria matxista sufritzearen gainean hitz egingo dute. Ez soilik ikusten denaz, barruan geratzen diren sentimenduez... Hemengo errealitatea ardatz izanda, ikuspuntu ezberdinak

AZAROAREN 25EAN, ELKARRETARATZEA IZANGO DA, 18:00ETAN, FERNANDO ESKORIATZA PLAZAN

ezagutarazteko asmoz antolatu dugun saioa da. Erakundeen egitekoek, gizartea kontzientziazteaz eta jokaera batzuen normalizazioa gaitzesteaz ere jardungo dugu...".

Autodefentsa tailerra

Horrekin batera, azaroaren 27an, Atama Arte Martzial eta Borroka Kiroletako Eskolako hiru irakaslek –Leire Rato, Argitxu Zubillaga eta Ariane Piñero– autobabes-aholkuei buruzko bi orduko tailerra emango dute emakumeentzat, 18:30ean, Joseba Iñurrategi pilotalekuko Atama taldearen lokalean. Lehenengo eta behin, indarkeria matxistaren bilakaera izango dute hizpide. Jarraian, prebentzio-aholku batzuk emango dituzte, eta, amaitzeko, erasoei aurre nola egin landuko dute, defentsa pertsonalaren oinarri gisa: bultzadak, norbaitek heldutakoan zer egin, eta kolpeak nola eman irakatsi. Izena emateko, 943 71 31 36 telefonora deitu beharko da.

Eskoriatza Korrika Taldea sortu guran ari dira zenbait herritar

Zapatuan izango da lehen hitzordua: 09:00etan, Manuel Muñoz kiroldegi aurrean batuta

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatza Kirol Elkartetik korrika talde bat sortzeko gogoz ari dira zenbait herritar. Korrika egiten hasteko gogoz ari direnei zuzenduta, eta Gabez Takarraran mendi lasterketa noizbait egiteko gogoia sentitu dute nentzat izango da, besteak beste.

Hala, lehenengo hitzordua zapatuan izango da. 09:00etan, Manuel Muñoz aurrean batuko dira, eta korrika egiteko gogoia izatea eta arropa eroso eramatea gomendatu dute antolatzaileek.

"Herritar orori zuzenduta dago. Hala, zapaturo egingo dugu hitzordua kiroldegi aurrean. Agerzten direnen arabera, ibilbide bat edo beste egingo dugu, eta asmoa aste barruan ere batzea da", adierazi du Julian Mari Ezeiza taldeko kideak.

Bizitza osasuntsua bultzatzea, kirola praktikatzea, talde giroa eta pertsonen arteko lotura bultzatzea eta Gabez Takarraran lasterketa modu erosoan amaitu ahal izatea dira taldearen helburuak. Informazio gehiagorako: Eskoriatzamt@gmail.com.

Unibertsitateko bi eraikinak lotzeko zubi berria

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko lanak martxan dira, erritmo onean. Dorleta eraikinean egiten ari diren azken gain, aste honetan, campuseko bi eraikinak lotzen dituen zubian aritu dira lanak egiten. Izan ere, orain arte egon den zubiak kendu, eta laster, beste zubi egokiago batek batuko ditu bi espazioak.



Campuseko zubiak kentzen. HUHEZI

Euskararen Herri Egunerako bazkarirako txartelak, salgai

Inkernu eta Goxo Txiki tabernetan erosi daitezke; helduek 11 eurotan eta haurrek 9 eurotan

I.B. ESKORIATZA

Euskararen Eguneraren bueltan zenbait hitzordu antolatu dituzte, eta horietako bat azaroaren 30ean ospatuko den Euskararen Herri Eguneko bazkaria da. Fernando Eskoriatza plazan jarriko den karpan izango da, 14:30ean, eta dagoeneko jarri dituzte txartelak salgai, Inkernu eta Goxo Txiki tabernetan –helduek 11 euro eta 12 urtetik beherako haurrek 9 euro–.

Menuari dagokionez, paella izango da plater nagusia. Gero, Santa Ana gozotegiko *bonba*

pastela izango da, eta edariak norberak jartzea erabaki dute antolatzaileek. Gainera, Eingeinke elkartekoek barra jarriko dute karpa barruan, hala, bertan edariak hartzeko aukera zabaldua. Paella begetarianoa nahi duenak ere eskatzeko aukera izango du, baina mahai erreserba egiten dutenean, orduan abisatu beharko dute.

Mahai erreserbak egiteko, kultura etxera 943 71 46 88 telefono zenbakira deitu beharko da, edo 636 78 59 71 zenbakira *whatsapp*-a idatzi.



Udalbatza osatuko dutenak: Juanito Bengoa, Jon Sasiain, Garazi Orobengoak, Beñat Agirreurreta eta Eugenio Otxoa. IMANOL BELOKI

Udalbatza aukeratuta, datozen lau urteotako proiektuetara begira

Domekako udal hauteskundearen ostean, azaroaren 28ko bileran edo, beranduenera, abenduaren 7rako banatuko dituzte Udaleko ardurak, alkatetzarena tartean. Eta, horrela, beharrera, hainbat lan eta proiektu interesgarri dituzte-eta esku artean

Julen Iriondo LEINTZ GATZAGA

Herrian, martxan edo egitekoen artean dituzten proiektuek segida izango dute agintaldi berrian, domekan udal hauteskundeak egin eta gatzagarrek udalbatzarako kideak aukeratu ostean. "Jende ona sartu da, eta herrian, oro har, pozik gaudela esango nuke. Hori da inportantea; urte askotako proiektuak ditugu, eta kanpoko norbait sartu izan balitz, agian, etena egongo zatekeen. Orain, ordea, jarraikortasuna izango dute", zioen herritar batek domekan.

187 lagun zeuden hauteskundeotan botoa ematera deituta, eta 122 izan ziren hauteslekuak %65,24ko parte-hartzea, duela lau urtekoa baino bi puntu handiagoa. 250 bizilagun baino gutxiagoko herria izanda, boz-keta sistema desberdina da, eta, zerrenda beharrean, aurkeztu-

tako boskoteko pertsoneri eman behar zieten botoa herritarrek; bakoitzak lauri, gehienez: honela, Garazi Orobengoak jaso zituen boto gehien, 99; Eugenio Otxoa, 97; Jon Sasiainek, 88; Beñat Agirreurretak, 81; eta jarduneko alkate Juanito Bengoak, 79 –zazpi boto zuri eta baliogabe bat ere izan ziren-. "Gazteei kosta egin zitzaizen pausoa ematea, baina jendeak oso ondo ikusi du; gaztea eta emakumea, oso gustura hartu du hori jendeak", zioen Bengoak, boto gehien jaso zuen Garazi Orobengoagatik.

IBILBIDE TEMATIKO BAT EGOKITZEA DA UDALBATZA BERRIAK ESKU ARTEAN IZANGO DUEN PROIEKTU BAT

Ikusi egin behar, dena den, alkate ardura nork hartuko duen. Hilaren 28an egingo dute bilera bat, eta orduan edo, beranduenera, abenduaren 7rako, karguhartze eguna, erabakiko dute ardurak nola banatuko dituzten –alkatetzaz gain, hirigintza, ogasuna, kultura eta mendiak-.

2020rako aurrekontuak prestatzen ere hasi beharko dute: "Ezer egin barik dugu oraindik", zioen Bengoak. Eta hor isla izango dute hainbat proiektuk; horien artean, bat da Gure Ametsa, Hiruerreketak eta Dorleta lotzen dituen ibilbide zirkularrean "parke tematiko" bat prestatzea: "PR bat da, oso ibilbide polita, eta inguruan ditu ikaztegiak, karobiak, trikuharria, erreka txikiak... Eta parke tematikoa egiteko proiektua dugu hor", bisitariak erakartzeko, Bengoaren arabera.

Agintaldi berrirako asmoak



Santa Columba ermita. GOIENA

Gatz Museoa Gatza lortzeko gela berria martxan jartzekoak dira laster –galdara batek berotuko du ura horretarako, eta instalazioetarako beroa ere sortuko du, bide batez-. Horrekin batera, Santa Columba ermita harrera izateko egokitzen ari dira.



Bide berdea egokitu nahi duten ingurua. LEINTZ GATZAGAKO UDALA

Bide berdea osatzea Leintz Gatzagako lurraz zeharkatzen dituen bide berdea egokituta dago ia osotasunean; Gure Ametsa eta Teileria arteko 400 metroko zati bat falta da, eta hor errepidera irteten dira erabiltzaileak, lokaztuta-eta egoten delako.



Garro jauregia. URANZU

Udal eraikinetako teilatuak Garro jauregia, udaletxea, eskola, frontoia... teilatua konpondu beharra dute hainbat eraikinek, eta asmoa da poliki-poliki hori egitea, urtean bat-edo, behintzat, konponduz.



Norma Vazquez. SORTZEN

Indarkeria matxistaz, Norma Vazquezekin

Azaroaren 25aren bueltako egitaraua hasteko, 'Emakumeen kontrako indarkeria mota desberdinak' hitzaldia izango da gaur kultura etxean. Norma Vazquez psikologo feminista da, hainbat taldetan ibilitakoa eta Sortzen aholkularitzaren sustatzailea

Julen Iriondo ARAMAIO

1998a ezker Bilbon bizi da Norma Vazquez mexikarra. 40 urte daramatza feminismoan militatzen, eta hainbat taldetan ibili da: CIDHALen –Latinoamerikako lehen zentro feminista–, Mujeres En Accion Sindical delakoan eta DFko Koordinakunde Feministan. 1992 eta 1998 arteko urteak, berriz –Euskal Herrira etorri aurrekoak, beraz–, El Salvadorren eman zituen, Las Dignas emakume elkartekoekin harremanetan.

Bilbora iritsita, Sortzen aholkularitza jarri zuen martxan Vazquezek. Bertan jarraitzen du beti gehien interesatu izan zaion gaiarekin, emakumeen kontrako indarkeria ikertuz eta askotariko erakundeak horren gainean formatuz eta aholkatuz.

Izan ere, indarkeria matxistaren analisisan eta haren kontrako ekintzan espezializatutako aholkularitza da Sortzen; horrekin batera, emakumeen ahalduntzea bultzatzea ere badu

helburu. Elkarre eta erakundeekin eta haien lan egiten dute, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko politika publikoak hobetzen eta haiek ikusgarri egiten lagunduz.

Gaurko hitzaldia

Gaurko hitzaldiak –18:00etan kultura etxean– *Emakumeen kontrako indarkeria mota desberdinak* izango du izenburu: "Indarkeria matxista nork eta zergatik darabilen azalduko dut. Planteatuko ditut indarkeria sustengatzen duten egiturak; izan ere, emakumeei tratu txarrak ematen dizkieten gizonen borondatez egiten dute hori, eta horretarako aukera ematen dioten inguru bat dutelako. Eta

KALEJIRA ZARATATSUA IZANGO DA, BERRIZ, ASTELEHENEAN, HILAREN 25AREKIN

inpunitatea onartzen jarraitzen badugu, ezin izango dugu emakumeentzat segurtasun eta askatasun handiagoa lortu", dio Norma Vazquezek.

Hizlariak dio emakumeen kontrako indarkeriarako "espazio desberdinak" daudela, eta modu askotara gauza daitekeela indarkeria hori: "Indarkeria fisikotik harago doa; oso arriskutsua da soilik kolpeak jotzea indarkeriatzat, oso kaltegarri diren beste jokabide batzuk normalizatzen direlako, esparru psikologikokoak, sozialekoak, ekonomikokoak edo sexualekoak".

Vazquezek azpimarra jarriko du bikote heterosexualetan ematen den indarkeriaren zenbait aspektutan, zenbait dinamikan, eta indarkeria mota honen biktimak babesteko eta erreparatzeko ekintza eraginkorragoak nola egin azalduko du.


Gaurkoaren ostean, astelehenean kalejira zaratatsua izango da, 17:30ean kultura etxean hasita, talde feministaren eskutik.

Isasi eta Gomez nagusi, eta lehen aldiaren balorazio ona

Eguraldiak ibilbidea lokaztu eta gogortu arren, 80 lagun animatu ziren Untzillako lehenengo mendiko duatloira

J.I. ARAMAIO

Iñigo Alzola arrasatearrak eta Iker Eskibel eskoriatzarrak osatutako bikoteak egin zuen Untzillako lehen mendi duatloiko denbora onena –bikotea ere parte hartu bai baitzitekeen, kideetako batek korrikako zatiak eta besteak bizikletakoa eginaz–, ordu bat, 26 minutu eta 14 segundo. Bakarka parte hartu zuten artean, berriz, lehen gizonetako Iñaki Isasi arabarra izan zen (1:34:30 eta lehen emakumezkoa, Maria Gomez errioxarra (2:10:10).



Parte-hartzaileak korrika. IBAI ZABALA

Egunak emandakoarekin pozik 80 parte-hartzaile ingururekin estreinatu zen Aramaioko mendi duatloia; euriari, lokatzari eta giro deserosoari aurre egin zioten 80 ausartekin. Hain justu, eguraldiagatik, antolatzaileek moldatu egin zuten iragarritako

ibilbidea, planteamendua aldatu gabe: Untzillatik Murura korrika eta buelta, bizikletako tartea, gero, eta kilometro eta erdi korrika, amaitzeko.

"Hobetzeko gauzak" eduki arren, lehen edizioarekin gustura geratu ziren antolatzaileak.

Musika emanaldiak, zaindariaren eguna ondo ospatzeko

Santa Zezilia eguna da gaur, azaroak 22, eta, hori dela eta, ospakizuna izango da domekan San Martin elizan. 12:00etan meza egingo dute, eta amaieran kontzertua eskainiko du Bizente Goikoetxea abesbatzak. Bihar, zapatua, berriz, Maiora Canemus abesbatza izango da kultura etxean emanaldia egingo duena –19:00etan–.



Bizente Goikoetxea korua. IMANOL SORIANO

'Arnasa gara', hurrengo barikuan kultura etxean

Hilaren 29an, 18:00etan, izango da *Arnasa gara* ekimenaren Aramaioko ekitaldia. Arnasguneek euskararentzat eta Euskal Herriarentzat duten garrantzia nabarmenduko du kanpainak, herritarrek horren kontzientzia hartzeko. 22 udalerritan egingo dira ekitaldiak. Uema, Gipuzkoako eta Bizkaiko aldundiak eta Jaurilaritza dira bultzatzaile.

Bikoizketa lehiaketa, bigarren, hurrengo egunean, hilak 28

Udalaren webgunean aurki daitezke bikoizteko proposatutako pasarteak. Batuan edo euskalkian egin ahalko da bikoizketa, eta bi eta lau pertsona arteko taldeek hartuko dute parte. Hiru kategoria egongo dira, eta askotariko adinetako kidez osatutako taldeek ere parte hartu ahalko dute. Eszenaratzeak 17:30ean hasiko dira, kultura etxean.



Ponportola taldeko gurasoak, umeekin eta auzotar batzuekin, Osintxuko Herri Eskolan, eguazten iluntzean. JOKIN BEREZIARTUA

Eskola barik ez dute etorkizunik

Osintxuko eskolaren etorkizuna kinka larrian dago 2019-2020 ikasturterako ume falta dutelako; Ponportola taldea eta Osintxuko Herri Batzarra eskolako proiektua ezagutzera ematen ari dira, inguruko herrietako gurasoek umea bertan eskolaratzera gonbidatzeko

Jokin Bereziartua OSINTXU

Osintxuko Herri Eskolak umeak behar ditu zabalik mantentzeko eta auzotarrentzat "ezinbestekoa" da eskola bizirik mantentzea nortasun propioa duen auzoaren biziraupenerako. Azken urteetan guraso gazte batzuk etorri izanak itxaropena piztu du Osintxuko Herri Batzarrean, baina 2020-2021 ikasturte begira ume gehiago beharko dituzte bai ala bai.

Nazionalak, Ikastola eta eskola

Osintxuko eskola nazionala zenean, 14 urtera arteko eskaintza zuen. Ikastola sortu zenean, bertako parte moduan funtzionatu zuen hainbat urtez, Ikastolak ezin mantendu eta 1994an itxi zuen arte. Lau urtez itxita egon ostean, 1998an, guraso talde bat elkartu eta San Martin Agirre eskolarekin adostu zuten ateak berriro zabaltzea; ordutik,

Osintxuko Herri Eskola San Martin eskolaren gela desplazatu bat da. 20 urte luze pasatu dira, eta urteen poderioz gainbeheran joan da ikasle kopurua; 2019-2020 ikasturtea lau umeekin abiatu dute. Osintxuko eskola zabalik mantendu nahi duen Ponportola guraso taldea kezkatuta dago ume barik geratuz gero eskola itxi egin beharko dutelako. Osintxuko Herri Eskola bera ezagutzera ematea ari da izaten haien lehen eginbeharrak: "Bergaran jende askok ez daki Osintxun eskola dagoela eta gurasoek eskola horretarako proiektu bat


**1994TIK 1998RA
ITXITA EGON ZEN ETA
1998TIK SAN MARTIN
ESKOLAKO GELA
DESPLAZATU BAT DA**

idazten ari garela. Guraso izan berri diren bergararrek, soraluzetarrek edota inguruko herrietakoek aukera hau badagoela jakin dezatela, gutxienez".

Euren eskaerak ezagutzera emateko, San Martin jailetako azokan postu txiki bat jarri zuten eta domekan bigarren esku azoka egingo dute Osintxuko plazan, 11:00etatik 14:00etara, euren helburuari begira dirua batzeko. "Ikasturtean beste ekitaldi batzuk antolatuko ditugu, hurrengo ikasturtean eskola ixteko arrisku handia dago eta".

San Martin eskolaren babes dute San Martin Agirre eskolak, oraingoan, ez die oztoporik jarriko: "Eskola zabalik mantentzeko garatuko ditugun ekimenak babestu egingo dituztela esan digute, ez dutela oztoporik jarriko. Eta hori ez da gutxi...".


Umea Osintxun eskolaratzeko arrazoiak



IONE SANTAMARIA UMEA
ESKOLAN NAHI DU

"Jende askok ez daki Osintxun eskola dagoela"

"Duela sei urte etorri ginen Osintxura eta oso gustura gaude hemen. Ederra litzateke umea Osintxuko eskolara ekarri ahal izatea; aukera oso ona iruditzen zaigu, txikitutasunak ematen dituen erraztasunetan sinisten dugulako. Guraso moduan parte hartzeko, irakasleen eta umeen arteko ratioak ez daudelako... Hainbat arrazoi daude. Bergaran jende askok ez daki Osintxun eskola bat dagoenik; gutxienez, jakin dezatela aukera badagoela".



SARA PEÑALBA ESKOLAN
IZAN DU LEHEN UMEA

"Naira ez genuen ikusten eskola handi batean"

"Soraluzekoak gara eta duela urte batzuk erabaki genuen mendian bizitzea. Orduan, Nairak [alabak] 2 urte zituen eta ez zen askorik harremantzen beste umeekin; ez genuen ikusten Naira eskola handi batean. Osintxun adin ezberdinetako umeak daude gela berean eta hori oso aberatsa da umearentzat. Naira oso gustura dago hemen. Osintxun bizi gara orain eta bigarren umea ere hemengo eskolan haztea nahiko genuke, ea posible den".


Eskolaren garrantzia Osintxurentzat



JOSETXO URBIETA
AUZOTARRA

"Eskola barik, Osintxun hiltzera kondenatua dago"

"Herri baten etorkizunerako zerbitzurik garrantzitsuen da eskola. Eskolarik gabe herria hiltzera kondenatua dago. Eskola ez da bakarrik umeen gurasoena, herri osoarena da; Osintxura jende gaztea etortzea nahi badugu ezinbestekoa izango da eskola bat eskaintzea. Batzuek diote dirua ezin dela gastatu lau edo bost ume bakarrik daudenean; defizitarioak diren beste zerbitzu batzuetan gastatzen da, ezta? Eskola izatea da zerbitzurik garrantzitsuen".



LEIRE ARBELAITZ B.
UMEAK IZAN DITU ESKOLAN

"Erabat gomendatzen dut Osintxuko eskola"

"Osintxuarra izanda, oso garrantzitsua izan da umeak bertako eskolara eraman ahal izatea. Erabat gomendatzen dut; izugarri ikasten dute, askotan iriteten dira kalera... Nire seme-alabak primeran egon dira. Osintxurentzat ezinbestekoa da eskola; zenbat eta ume gehiago, orduan eta bizitza handiagoa. Ikastolan ibilitakoa naiz Osintxun eta ume mordoan egoten ginen hemen Lehen Hezkuntzara arte; oso oroitzapen onak gordetzen ditut ordutik".

Jokin Bereziartua BERGARA

1953an egin zen lehenengoz, eta, 66 urte pasata, 2019ko azaroaren 30ean, eguerdian, errepikatu egingo dute. Berriatuan (Bizkaia) izan zen, ziklista baten eta zaldun baten arteko desafioa. "Ikuskizun handia izan zen. Oskar Elgezabal txirrindularia eta Angel Arriola zalduna nor baino nor gehiago; Aita Kurutz ermitaren ate parean hasi eta San Juan ermitaren ate pareraino 330 metroko lasterketa egin zuten. Orain, ikuskizuna errepikatuko dugu protagonista berriekin", adierazi du desafioaren antolatzaile Ander Txakartegik.

Erkiaga eta 'Lanbro'-ren kontra

Desafioaren baldintzak duela 66 urteko berberak izango dira: 330 metroko esprinta 1953ko leku berean, ia erabat laua den errepide tarte batean. Protagonista berriak izango dira Bakene Erkiaga zaldun gaztea eta *Lanbro* zaldia, batetik, eta Mikel Aristi ziklista bergarra, bestetik. "Niri eskatu zidaten ziklista topatzea, eta Markel Irizarrengan pentsatu genuen lehendabizi. Izan ere, desafioa irailean egin nahi genuen hasieran, eta, Markel erretiratu berri zenez, omenalditxo moduan eskaini nahi genion. Gainera, beste ziklistak denboraldi betearen zeuden eta oso zaila izango zen horietako batek parte hartzea. Denboraz oso justu genbiltzan eta, ganoraz egitearren eta azaroaren 30ean Berriatuan *Erroak loran* jaia ospatzen dugunez, atzeratzea erabaki genuen", argitu du Txakartegik. Euskal txirrindularien artean gaur egungo azkarrenen artean dago Aristi eta horregatik egin zioten proposamena bergararrari: "Pozarren gaude, ilusioz onartu zuelako".



1953ko desafioa: Oskar Elgezabal txirrindulariak irabazi zion –irudian, txapelarekin– Angel Arriola zaldunari. ANDER TXAKARTEGI

Zaldia edo ziklista: zein azkarragoa esprintean?

Mikel Aristi txirrindulari bergararraren eta 'Lanbro' zaldiaren gainean joango den Bakene Erkiaga zaldunaren arteko desafioak ikusmin handia piztu du asteon; 330 metroko esprint laua izango da, eta Berriatuan (Bizkaia) egingo da azaroaren 30ean

Aristi: "Aukerak ditut irabazteko"

Antolatzaileek argi utzi dute "ohorea eta giro ona" egongo direla jokoan. Ikusminik ez zaio faltako desafioari; Berriatuko jendeaz gain, ziur Bergarako eta bailarako herritar asko joango direla ikuskizunaz bertatik bertara gozatzeko asmoz. Aristirekin asteon egon da GOIENA: "Nire lehen esperientzia izango da halako desafio batean; erabat berria izango zait lasterketa, eta ez dakit neurtzen. Geldi egotetik irtengo gara eta esprint moduan luze samarra izango da, baina uste dut aukerak izango ditudala irabazteko. Oso gogotsu nago eta sasoioko helduko naizela uste dut; onenak irabaz dezala".



Aristi asteon Labegarrietan, Amaia Aranegi kazetariaren galderak erantzuten. GOIENA

Danobatgroup: Euskararen Eguna dela-eta lehiaketa

'Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia' du lelo; parte hartzeko azken eguna abenduaren 3a da

J.B. BERGARA

Danobatgroup industria taldeak euskararekin duen konpromisoaren adierazle, lehiaketa abiatu du aurten ere Euskararen Egunaren bueltan. *Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia* jarri diote lelo: "Danobatgroupen urte luzetako ibilbidea daramagu euskararen erabilera bultzatzeko, langileen eta bezeroen artean. Euskara batzen gaituen esentzia da, denok bat egiten gaituena, lotu eta elkarren arteko harremanak konfiantzan eraikitzen laguntzen diguna. Horregatik, aurtengo leloan hori adierazi nahi izan dugu".

Euskarak presentzia izateko maila teknikoa landu beharra dagoela sinistuta daude eta, horregatik, aurtengo lehiaketaren bidez euren hiztegi teknikoa ezagutzeko eta elikatze aukera zabaltzeko. Parte hartzeko, webgunean sartu behar da (<https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2019.html>); galderen erantzunak bilatu; galderak erantzun; eta *bidali* botoia sakatu: "Irabazteko aukera izango duzu zozketako irabazle suertatuz gero; bi lagunendako 360 graduko esperientzia gastronomikoa dago jokoan, Basque Culinary Center-en eskutik".



HARTU PARTE DANOBATGROUPen EUSKARAREN EGUNeko LEHIAKETAN!

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko gure ekimenak eta irabazi bi lagunentzako 360°ko esperientzia gastronomikoa Basque Culinary Center-en eskutik.

<https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2019.html>
*Parte hartzeko azken eguna: 2019ko abenduak 2, 00:00

Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia

DANOBATGROUP



DANOBATGROUP KOOP. E. | DANOBAT KOOP. E. | GOIMEK KOOP. E. | GOITI KOOP. E. | IDEKO KOOP. E. | LATZ KOOP. E. | SORALUCE KOOP. E.




Indarkeria matxistaren aurkako kiribila egin zuten iaz, San Martin plazan. JOKIN BEREZIARTUA

Indarkeria matxistaren hariak, "soka erraldoira"

Azaroaren 25ean, ekintza "politikoa eta artistikoa" egingo dute Martxantere San Martin plazan (19:00); Udalak gogora ekarri du gizarte zerbitzuak "espazio seguru bat" direla: "Informazioa eta laguntza jasotzeko dira, inor ez dago derrigortuta salaketarik jartzera"

Jokin Bereziartua BERGARA

Indarkeria matxistaren kontra egunaren bueltan ekitaldi bereziak izango dira aurten ere Bergaran. Udalak gogora ekarri du gizarte zerbitzuak "espazio seguru bat" direla erasoren bat jasan duen pertsona batentzat: "Gizarte zerbitzuetan egin dai-teke informazioa eskatu, kontrastatu, eta profesional ezberdinen laguntza jaso. Azpimarratu nahi dugu erritmoa norberak jartzen duela, zerbitzu hau informazioa zein laguntza eskatu eta jasotzeko dela; eta horretarako inor ez dagoela derrigortuta salaketa jartzera".

Bestalde, Udalak oso baliagarria ikusten du, baita ere, Eusko Jaurlaritzak martxan duen 24 orduko telefono zenbakiaren zerbitzua, erabat anonimoa dena, larrialdi kasuetarako eta gaiarekin lotutako edozein kontsulta egiteko: 900 84 01 11. Horrez gain, Udalak iaz Jabekuntza Eskola jarri zuen martxan, eta urtero ahalduntzea helburu

duen hainbat ikastaro antolatzeke konpromisoa dauka. 2019ko eskaintzaren barruan, bukatu berri da Tuppersex ikastaroa, "oso arrakastatsua" izan dena. Laster hasiko da hurrengo ikastaroa, maitasun erromantikorekin lotutakoa; izena emateko aukera dago azaroaren 28ra arte: berdintasuna@bergara.eus edo 943 77 91 00.

Durangoko jardunaldi feministak
Azaroaren 25erako bi ekitaldi antolatu dituzte: erretiratu Duintasuna elkarteak *Emakume helduetan indarkeriarik ez!* lelopean elkarretaratzea deitu du San Martin plazan, 12:00etan. Egund eta leku berean, baina 19:00etan, Martxantere *Endre-*

ERRITMOA NORBERAK JARTZEN DUELA AZPIMARRATU DUTE GIZARTE ZERBITZUEK: 010 / 943 77 91 00

duan izeneko kale ekintza egingo dute: "Espazio publikoa hartuta ekintza politiko-artistiko bat egingo da herritarrekin batera. Asmoa da gorputzak eta irudimena erabiliz indarkeria matxistaren inguruko gogoeta sustatzea, begiradak zorroztea. Indarkeria matxista elkar-gurtzatzen den bestelako indarkeriak irudikatzeke, soka erraldoi bat egingo dugu denon artean eta gero bertan elkar-korapilatuko gara. Bitartean, hainbat testigantza, testu eta poema entzungo dira. Jardunaldietatik [Durangoko Salda Badago jardunaldi feministak] pentsakor bueltatu ginen, eta ikaspenak herrian lantzeko aukera ere izango da".

Seminarixoko zineklubak ere bat egin du indarkeria matxistaren kontra eta *Indarkeriatik harago, emakumea protagonista* izena jarri diote azaroko zikloari. Hilaren 27an emango dute azken filma, Seminarixoan (20:00): *Chicas nuevas 24 horas*.



Kike Amonarriz hitzaldia ematen, astelehen iluntzean, Irizar jauregian. MAIALEN SANTOS

Lau egun gehiagoz eta entitateei ere begira dator Euskaraldia

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra izango da eta, 'ahobizi' eta 'belarriprest' rolez gain, ariguneak sortuko dira

J.B. BERGARA

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra izango da hurrengo Euskaraldia. 2018koa arrakastatsua izan zela ikusita, hori abiapuntutzat hartu eta 2020koa prestatzen hasteko beharraz jardun zuen Euskaltzaleen Topaguneko presidente Kike Amonarrizek astelehenean, Irizar jauregian: "Iaz lortu genuena finkatu nahi dugu 2020an; iazko oihartzuna handitu nahi dugu norbanakoengan. Alegia, 2018an milaka lagunek hartu bazuten parte, kopuru hori handitu nahi dugu eta herrietan batzorde gehiago eratzea nahi dugu".

Bi rol ezagunez gain, ariguneak
Norbanakoetan jarri zuen arreta 2018ko Euskaraldiak. Bigarren edizioan harago joan nahi dute. "Entitateetara ere egingo du jauzi 2020ko Euskaraldiak. Entitate bat izan daiteke enpresa bat,

erakunde bat, elkarte bat edota musika talde txiki bat. Horietan guztietan bilatuko dira euskaraz funtzionatzeko aukera ematen duten guneak. Horiei arigune deituko diegu; hala, entitateek babesa emango diete arigune horiei Euskaraldiaren barruan euskaraz jarduteko", dio Amonarrizek. *Ahobizi eta belarriprest* rola mantendu egingo dira kasu guztietan, baita entitateen barruko ariguneetan ere.

Beste nobedade bat da 2020ko Euskaraldiak lau egun gehiago iraungo duela, azaroaren 20tik abenduaren 4ra izango delako; data urrun egonagatik ere, herrietako batzordeak sortzen eta prestatzeko lanak egiten joatea komenigarria da: "Abantaila handia da mundu guztiak bada-kiela zer den Euskaraldia, baina desabantaila bihur daiteke urrun ikusi eta oraindik ez mugitzea. Martxa hartu behar dugu".

OHARRAK

Elikagaien bilketa handirako boluntario bila

Elikagaien bankuak dei egin du hilaren 22ko eta 23ko bilketarako: 943 76 21 90 edo bergara@bancodealimentosgipuzkoa.org.

NovemBer Gara: Carracedo eta Irizarren saioa

CIC Bioguneko ikertzaile Arkaitz Carracedok *Pasado y futuro del cancer* hitzaldia emango du; ondoan izango du Markel Irizar txirrindulari ohia. Azaroaren 26an izango da, Seminarixoan (19:00).

Kalera Eguna egingo dute bihar, lehenengoz

Euskal presoen etxeratzea aldarrikatuko dute: Manifesta izeneko ekitaldia (frontoitik, 18:30) eta Kaleko Urdangak eta Tximeleta taldeen kontzertuak izango dituzte (22:30, gaztetxea).

"Itsasoari beldurrik ez, baina errespetua beti"

NEREA AGIRREZABAL ONDARROAKO ARRAUNLARIA

Bergararrak hirugarren denboraldia hasiko du Ondarroako taldean: "Abenduan hasiko gara itsasora sartzen; taldekide berriak taldera ondo moldatzea da lehentasuna"

Xabier Urzelai BERGARA

Ondarroara bidean hartu du Nerea Agirrezabalek (Bergara, 1994) GOIENAREN deia. Aste barruan, normalean, Labegarietan entrenatzen da, baina, giroz aldatzeko, taldekideekin elkartzeko eta *fosoan* -arraunean egiteko simulagailu moduko bat-jarduteko doa gaur Ondarroara: "Abenduan hasiko gara itsasora sartzen; oraingo, denboraldiurreko lanean dihardugu".

Zer dela-eta arraunean? Eta Ondarroan?

Amaren partetik familia dut Ondarroan, eta lagun kuadrilla dut bertan. Horrek izugarri lagundu dit, lagunak askotan animatu izan nautelako arraunean hastera. Eurek, eta begirale titulua ateratzen nabilenean ezagututako lagun getariarrek. Hirurak ziren arraunlariak, eta eurek bultzatu ninduten kirol hau probatzera.

Lehenago, baina, futbolekin ibilitakoa zara...

Bai; Bergaran hasi nintzen futbolekin, eta Leintz Arizmendin jokatu nuen gero. Baina belauenean bigarren ebakuntza egin zidaten momentuan futbola uztea erabaki nuen, ez zuen mezezi arriskatu jarraitzerik.

Eta, konturatu orduko, arraunak harrapatu egin zaitu...



Nerea Agirrezabal. GOIENA

Bai, oso gustura nabil. Futbola bezala, arrauna ere taldeko kirola da. Hasieran, errespetua ematen zidan traineruarekin itsasora sartzeak, eta traineruan, gainera, prolean jarduten baduzu -traineruaren puntan-, olatuen kontrako kolpe handienak bertan hartzen dira. Baina ohitu egiten zara. Beti diogu

"IKUSTEKOA DA KATEGORIA TXIKIETAN ZENBAT NESKA DABILTZAN HERRIAN ARRAUNEAN"

gauza bera: itsasoari beldurrik ez, baina errespetua beti.

Lea Artibai taldean hasi zinen, duela bi urte; aurtengo hirugarren denboraldia izango duzu.

Halaxe da. Lea Artibai Ondarroako eta Lekeitioko arraunlariak batu zituen proiektua izan zen. Duela hiru urte, herri bakoitzak ez zituen talde propioa izateko nahi adina arraunlari, eta indarrak batu genituen. Ez pentsa halakoak egitea erraza denik, lehia handia dago eta kostaldeko herrien artean [Barreak], baina klubetako ardura dunek adostu zuten herri bakoitzak nahikoa arraunlari zituen momentuan bereizi egingo girela eta bakoitzak bere bidetik jarraituko zuela, eta halaxe izan da. Orain momentuan ikusgarria da, esaterako, kategoriatan zenbat neska dabilzan Ondarroan arraunean.

Emakumezkoen bigarren mailan diharduzue, eta atzetik aurrerako lana egin duzue ligan.

Bai. Talde oso gaztea dugu, nesken batzuek adina 19 urtetakoa izango da, eta aurtengo hirugarren denboraldia etorri zaizkigu klubera. Beste kirol jarduerak batzuetatik datozen neskak dira; kirolariak, baina arraunaz gutxi dakitenak. Horiek lehenbailehen egokitzea izango



Ondarroako emakumezkoen trainerua. IÑAKI SUAREZ

da egin beharreko lehenengo lana, blokea osatzea.

Zer-nolako urtea izan da?

Oso sasoi onean amaitu genuen liga, eta Kontxan ere lan txukuna egin genuen. Lehenengo mailan zortzi traineru daude eta bigarren mailan hamabi traineru gara. Bada, liga hasieran atzealdeko postuetatik borrokatzen ginen, bizpahiru traineru sailkatzen ziren gure atzetik, baina liga aurrera joan ahala hobetzen joan ginen. Ondarroan, esaterako, bosgarren sailkatu ginen.

Kontxan ere izan zineten, kanporaketa fasean.

Bai; sekulako esperientzia izan zen. Kontxan kanporaketa fasea aste barruan egiten dute, egue-nean, eta sailkatzen direnek asteburuan bertan izaten dute lehen jardunaldia. Bada, kanporaketa fase hori ikusteko Ondarroatik bizpahiru autobus joan ziren Donostiara. Euskal Herriko traineruekin batera galziarrak ere izan ziren lehian; guztira, hoguei traineru izan gi-

nen eta hamargarren postuan sailkatu ginen. Ez genuen kanporaketa fasea gainditu, baina emaitza ona izan zen guretako. Momentu hartan Donostiako portuko arrapalan bizi izandakoa ez dut berehalakoan ahaztuko, emozionatu egin nintzen, herri-tarrek egin ziguten harrera... Ondoren, gainera, gizonetakoan Ondarroak lehenengo postuan gainditu zuen kanporaketa fasea, eta herrian sekulako harrera egin ziguten, herri osoa zegoen kalean.

Zein izan behar da taldearen aurtengo helburua?

Helburu konkretuak jartzea ez dakit ona den, ondoren lortzen ez badira badirudielako urte txarra egin duzula. Helburua da iazko liga amaierako sententzioak errekuiperatzea, gozatzea, eta aurrerapausoa ematea.

Alde handia dago zuen eta gizonetakoan artean?

Txikitzen doa, baina oraindik alde handia dago. Adibidez, aurtengo Ondarroan bakarrik eman digute saria dirutan.

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegarieta) BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enjimerak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6 BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

"Azkenean, familia bat da Kokoxa antzerki taldea"

UNAI BARRUTIABENGOA 'KOKOXA' ANTZERKI TALDEKO KIDEA

"Harrera oso ona" izanda estreinatu zuen 'Meza beltza' pasa den astean Kokoxak. Abenduaren 19an ere hala izatea espero dute, 'Gu' antzezlanaren emanaldian

Jone Olabarria BERGARA

Duela urtebete ekin zion bideari Kokoxa antzerki taldeak. Jardunek antolatutako antzerki eskolan eman zituzten lehen pausoak taldeko kide gehienek, eta, egun, euren kabuz aritzen dira lanean, "giro paregabea".

Zergatik Kokoxa izena?

Arrainen zatirik preziatuena kokotxak direla esan ohi da, eta, guk geure burua preziatutzat dugunez... ba, halaxe. [Barre]

Zenbat lagunek osatzen duzue, egun, Kokoxa antzerki taldea?

Guztira, hamabost bat kide gara, gehienak Bergarakoak, baina badira inguruko herrietakoak ere. Batzuetan, zaila izaten da hamabost kide antolatu eta mugitzea, baina, azken batean, familia bat da Kokoxa.

Nola egiten duzue lan? Non?

Astelehenetan biltzen gara, Zabalotegi aretoan. Gaur egun, astero bi pertsonak hartzen dute ardura eta taldea gidatzen dute; lanak prestatzeaz gain, inprobisazioa ere asko lantzen dugu.

Pasa den astean estreinatu zenuten Meza beltza antzezlan; nolako harrera izan zuen?

Balorazioa oso positiboa da. Egin dugun bigarren antzezlan da eta harrera oso ona izan du. Bi pase egin genituen eta bakoitzean 30 pertsonara mugatu genuen.



Unai Barrutiabengoa, martitzenean, Arrasaten. JOKIN BEREZIARTUA

"GAZTETXEAREN EGITURAGATIK, ZELDA BAKOITZEAN MIKROANTZEZLAN BAT EGIN NAHI IZAN DUGU"

Izen ematea zabaldu, eta hamabost minutura beteta zegoen.

Nondik sortu zen obra honen ideia? Arimen Gauera begira zerbait prestatu nahi genuen. Kideetako batek Euskal Herriko kondairei buruzko liburu bat ekarri,

eta inkisizioarekin bueltaka bukatu genuen.

Formatu berezia izan du...

Hala da. Kartzela zaharraren egitura dela eta, betidanik nahi izan dugu mikroantzezlan formatuan zerbait antolatu, zelda bakoitzean esketx bat irudikatuz. **Abenduan itzuliko zarete...**

Bai; abenduaren 19an, *Gu* antzezlanarekin izango gara Seminarixoa. Ekainaren 20an estreinatu genuen, eta gure lehen lana izan zen. Emakumeak ditu ardatz, kritika sozial ugari egiten dituen antzezlan da.



Xokolat antzezlaneko une bat. PARAISSO ANTZERKI TALDEA

Txikienei zuzenduta, 'Xokolat' antzerkia bihar Seminarixoa

Txokolatea protagonista dela, seietan eskainiko du emanaldia Paraiso Antzerkia talde arabarrak

J.O. BERGARA

Familiei eta 3 urtetik gorako umeei zuzenduta, Paraiso antzerki taldearen *Xokolat* antzezlan bihar iritsiko da Seminarixora, 18:30ean. Lanak kontatzen duenez, espazio garbi eta perfektu batean materia bitxi bat sortuko da: txokolate-tableta. Bertan, ordena maite duen emakume bat bizi da, eta, ezustean, lagun "dibertigarri eta lotsagabeak" hankaz gora jarriko du ordena hori.

Egun batean, bi pertsonaiek euren begiradak gurutzatuko dituzte ezohiko gauza bat egi-

tearekin batera: txokolatea probatzea, dastatzea, gozatzea. Batean, dena aldatuko da; material gozo hau amets egiteko gonbidapen bilakatuko da.

Azoken esperientzia

Irudimenari eta ikusminari eskainitako lana *Small Size Performing Arts for Early Years* Europako proiektuaren barruan dago eta hainbat antzerki festibaletan egon da ikusgai 2018an: haurrentzako arte eszenikoan Europako azokan (FETEN) eta *Mostra de Igualda* haur antzerki azokan, esaterako.

Santa Zezilia egunaren bueltan, emanaldi ugari asteburuan

Musikarien eguna ospatzeko hainbat ekintza egongo dira: 'Musika airean', txistulariak eta Banda izango dira

J.O. BERGARA

Musikarien eguna da azaroaren 22an ospatzen den Santa Zezilia, eta herriko musikariek ekintzaz eta kontzertuz beteriko asteburua prestatu dute.

Hala, Bergarako Musika Eskolak *Musika airean* kontzertua antolatu du gaurko, 20:30ean hasita, Santa Marinan. Hain zuzen, San Pedro elizako Stoltz-Freres organoaren konponketarako dirua batzea da emanaldiaren helburuetako bat. Kontzertu sinfoniko-koral irekian, Orkestra Sinfonikoak, eskolako

abesbatzak, Aritzeta abesbatzak, Bergarako Orfeoak eta herriko hainbat musikaririk parte hartuko dute. Zapatuan, berriz, Bergarako txistulari taldeak kalejira egingo du herriko kaleetan zehar, 12:30ean.

Era berean, kontzertu "berezia" eskainiko du Bergarako Musika Bandak domekan, 12:30ean hasita, Udal Pilotalekuan. Kontzertuan "denetarik" entzuteko aukera egongo da, eta bi musikari gazteren debuta izango da: Ane Azkarate oboearekin arituko da eta Hodei Murgizu perkusioan.

Inkisizioa ardatz

Torturak, sorginen atxiloketak... Inkisizio garaietara itzuli zen Kokoxa taldea bere bigarren antzezlanean: *Meza beltza*. Kartzela zaharraren eraikin osoa bihurtu zuten agertoki; emanaldi hasiera eta bukaera ikusle guztiak batera jarraitu arren, erdiko eszenak taldeetan banatuta ikusi zituzten, gune ezberdinetan banatuta eta zelda bakoitzean eszena bat eginez.



Meza beltza antzezlanaren une bat. GOIENA

ZUT

Z BELAUNALDIAREN ALDIZKARIA

Euskaraz



Mugikorretarako!
Bideoak, argazkiak,
musika... modu
bertikalean! Ez biratu
mugikorra; edukiak
ZUTik, bertikalean!



Gazteen gaiak
Musika, youtuberrak,
erronkak,
elkarrizketak, outfit
onenak... Askotariko
gaiak




'IXA' websaila
Formatu bertikalean
egin den euskarazko
lehen websaila ZUTen
bakarrik ikus
dezakezu.



Eta zure edukiak!
ZUTen zure bideoak,
erronkak, memeak,
coverrak... jaso nahi
ditugu! Animatu eta
bidali!

Deskargatu doan!

 APP Store

 Play Store



Hainbat eraso matxista salatzeako urrian egindako elkarretaratzea, Zurrategi plazan. MIREIA BIKUÑA

Indarkeria matxistaren aurka, indarrak batuta

Azaroaren 25a astelehena dela aprobetxatuta, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira egingo den eguerdiko elkarretaratzeak bat egingo du erretiratu eta pentsiodunen asteleheneroko aldarrikapenarekin, 12:00etan, plazan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira elkarretaratzeak deitu dituzte. Azaroaren 25a astelehena dela aprobetxatuta, aurten, erretiratu eta pentsionisten aldarrikapenekin bat egingo dute. "Bi dira egingo ditugun ekintza nagusiak eta ordutegi zehatza dutenak. Batetik, goizeko kontzentrazioa. Eguerdiko hamabietan egingo da, Herriko Plazan. Gainera, azaroaren 25a astelehena izanik, erretiratuen astelehenero protestarekin bat egingo dugu. Arratsaldean, aldiz, zazpietan elkartuko gara berriz ere plazan, eta beste kontzentrazio bat egingo dugu", iragarri du Andramanuelak herriko emakume taldeak.

Erasoak bistaratzeko helburu Andramanuelak taldearen asmoa inguruan izan daitezkeen erasoak bistaratzeko da. "Hainbat komunikabidek helarazten dituzten mezuak oinarri hartuta,

badirudi emakumeokiko indarkeria urruti eta modurik makabroenean gertatzen den kontua dela. Baina emakumeok bizi guztian zehar askotariko biolentziak bizi izaten ditugu gure gorputzetan, eta, sarri, oso gertuko pertsonengandik jasotakoak izaten dira, gainera. Erasotzaileak, beraz, ez du zertan urrutiko gizon ezezagun bat izan izan daitezkeen arren", azpimarratu dute. Eta erasotua ere edonor izan litekeela diote: "Edozein emakumek jaso dezake eraso. Hau horrela, indarkeriaren gertutasun hori islatzeko, ekintza bat ere prestatu dugu". Herriarren artean harridura eragingo duen ekintza izango dela aurreratu dute.

INDARKERIA MATXISTAK DUEN GERTUTASUNA ISLATZEKO EKINTZA EGINGO DUTE

"Beti diogun bezala, indarkeria matxistari aurre egiteko estrategia gisa autodefentsa feministaren bidea hobesten dugu. Izan ere, autodefentsa feminista indibidualki ez ezik, kolektiboan gauzatzen jarraituko dugula argi utzi nahi dugu azaroaren 25ean", azpimarratu nahi izan du Antzuolako emakume taldeak.

Gazte txokoan ere aztergai

Asteburuan landuko dute indarkeria matxistaren auzia gazte txokoan. Gaia oinarri duen unibertsitate-lana egina dauka bertako hezitzaileetako batek. Hala, bideoklipetako jarrera matxistak landuko dituzte bihar eta etzi, elkarrekin.

Movember mugimenduaren baitan hainbat ekintza

Barrabiletako eta prostatako minbiziak kontzientzia zabaldu gura duen taldea Antzuolan ere jaio da

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolan, bailarako zenbait herritan bezalaxe, Movember mugimenduaren baitan taldea osatu dute. Hala, barrabiletako eta prostatako minbiziak kontzientzia zabaldu eta bizitza osasuntsua eramatearen aldeko apustua egiteko asmoz, hainbat ekintza antolatu dituzte herrian.

Ekimen horren baitan, Juan Pablo Sanzek bere esperientzia eta bizipenak elkarbanatuko ditu. Sanzek prostatan izan du gaixotasuna. Solasaldia azaroa-

ren 27an arratsaldeko zazpietan izango da, Olaranen.

Movember mugimendua, ordea, herritarrei zabaldu gura diete eta azaroaren 30ean, zapatua, egingo duten elkarretaratze batzeko dei ere egin gura diete antzuolarrei. "Asmoa da eguerdiko ordu batean Zurrategi plazan elkartzea Movember ekimenarekin bat egiten dugunok: ondoren, bibotea moztuko dugu eta pote batzuk hartuko ditugu jai giroan", azaldu du Gotzon Madina taldeko kideak.



Alaitz Urkiola pilotua Garazi Larrea zinegotziarekin saria jasotzen. IMANOL SORIANO

Kirolari kuttunena proposatzeko azken eguna da gaur, barikua

'Hirix' aplikazioaren bitartez egin behar da proposamena. San Esteban egunean egingo da sari banaketa

Maidar Arregi ANTZUOLA

Gaur dute antzuolarrek herriko kirolari kuttunenaren hautua egiteko azken eguna. Hirix aplikazioaren bitartez egin beharko dute. "Proposamena egiteko, herritarrek izen-abizenak eman beharko dituzte, eta aukeratutako kirolariaren izena jarri. Aukeraketa libre da eta kirolari batek lortutako emaitzak, ibilbidea... saritzeko aukera izango dute", dio Kirol zinegotzi Garazi Larreak. Gero, bozketa egingo dute. "Ondorengo egunetan udaltxean jarriko dugu bozkatutako botoa emateko buzoia".

Boto gehien jasotzen duen kirolariak abenduan Debagoieneko Kirol Sarietan Antzuola ordezkatzeko du. Eta San Esteban egunean herriko aitortza ere jasoko du.

Iaz, Alaitz Urkiolarendako Iaz, Alaitz Urkiola pilotua izan zen aitortza jaso zuen kirolaria. Lehenengoz antolatu zen sari-keta aberasgarria eta polita izan zela nabarmendu du Larreak: "Urkiolaren ibilbidea ezagutzen ez zuten askori pilotuaren lana gerturatu genion sariketari esker; polita izan zen".

Preso gaixoen kopurua haziz doala azaldu dute

Jaiki Hadi elkarteko psikologoak eta medikuak gaixorik dauden euskal preso politikoen egoeraz jardun dute asteon Olaranen. Tartean, Joseba Erostegei 'Eltzikorta' preso antzuolarraren egoeraz ere hausnartu dute bertaratu direnek

Maidar Arregi ANTZUOLA

Jaiki Hadi elkarteko Jabi Hernando medikuak eta Fernando Arburua psikologoak gaixorik dauden euskal preso politikoen egoera mahai gainean jarri dute asteon. Hainbat gai landu dituzte solasaldira batu ziren 32 antzuolarrarekin. Tartean, gai juridikoez edo zenbait ikerketaz ere hitz egin eta hausnartu zuten.

Hernando medikuak *Eltzikorta*-ren osasun egoeraz jardun zuen: "Gaitz larria dauka, baina bera ondo dago, eta, zorionez, beste espetxe batzuetan ez bezala, arreta nahiko duina dauka". Hernandok gaineratu zuen presoek duten baldintzen ondorioz gaixotasun asko kroniko bilakatzen direla espetxean. "Ez da ahaztu behar espetxetik irten ondoren osasun arazoek jarraitu egiten dutela".

Fernando Arburua psikologoak -Jaiki Hadiko eta Etxerateko osasun arloko kidea- presoek gaixotasunei aurre egiteko beharrezkoa duten laguntzen eta babesen inguruan jardun zuen. "Kalean eramangarria den gaitz bat espetxean hilgarri suertatu daiteke. Azpimarratu gurako nuke espetxean dauden presoek kopurua jaisten doan arren, preso gaixoen kopurua haziz doala. Izan ere, adinez zaharra-



Preso eta gaixo daudenen egoeraz solasaldia. AMAIA MUNDIÑANO

"EZ DA AHAZTU BEHAR OSASUN ARAZOEK ESPETXETIK IRTETEAN ERE JARRAITZEN DUTELA"

goak dira eta espetxealdiak ere luzatzen doaz".

Aldarrikapena

Horrekin lotuta, azaroaren 30ean, zapatua, *Ez dot moztuko bizarra* taldeak eta Sarek deituta, bai-

lara mailako manifestazioa egingo dute, *Larriki gaixo dauden presoak etxera, Eltzikorta etxera* lelopean. Zurrategitik 18:30ean abiatuko da manifestazioa.

Bestalde, hainbat presok eta preso ohik egindako artelanen erakusketa bihar zabalduko da Olaranen: azaroaren 23an, 18:00-20:00; hilaren 24an 12:00-14:00 eta 18:00-20:00; azaroaren 25ean, 26an eta 27an itxita. Hilaren 28an, 18:00-20:00; hilaren 29an, 18:00-20:00; hilaren 30ean eta abenduaren 1ean, 12:00-14:00 eta 17:00-18:30.

Etorkizunean nolako kultura gura duten aztertuko dute

Herritarrek hilaren 28an abiatuko dute Antzuolako kulturaren gaineko hausnarketa; hiru saio egingo dira

Maidar Arregi ANTZUOLA

Lehen hausnarketa saioan, herriko artista edo kultura elkarrekin kideak izango dira protagonista. Baina herritarrei irekia egongo da eta kulturaren gaineko kezka duen herritar oro gonbidatuta dago eztabaidetan parte hartzera. "Jada herritarren eta agente ezberdinen ikuspuntuak aztertu ditugu; hainbat elkarrizketa burutu ditugu eta kulturaren inguruko ikuspegi ezberdinak nabari dira, nahiz eta diagnostikoaren puntu askotan bat egiten duten", azaldu

du Aztikerreko teknikari Xabier Luquek. Modu horretan, elkarrekin ondorioak izango dira hausnarketaren abiapuntua. "Hausnarketarekin jarraitzeko, abenduan beste bi saio iragarri ditugu. Hala, abenduaren 12ko saioan, beste herri batzuetako esperientziak ezagutzeko mahai-ingurua egingo da; eta azkeneko saioan, abenduaren 19an, Antzuolan kultur jardueran egin beharreko aldaketa edo hobekuntzak ondorioztatzen saiatuko gara", azaldu du Aztikerreko teknikariak.

GORA ETA BEHERA



@HAUSNARREAN

Zaborra pilatuta eta erreta herri lurretan



Pikunietako Josebe Blancok Twitter bidez eginiko salaketak izan du eragina. Udalak neurriak hartu ditu eta herri lurretan lanean dihardutenek pilatutako zaborra jaso egin dute asteon.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

Presoen eta preso ohien erakusketa

Olaranen bihar zabalduko duten erakusketan, hainbat presoren eta preso ohien margolanak eta eskulturak izango dira ikusgai: Xabier Ugarte eta Joseba Arregi oñatiarrenak; *Eltzikorta*, Karmen Irizar, Patxi Olabarria eta Ramon Aldasoro antzuolarrarenak; Iñigo Akaiturri bergararrarenak; Josu Arkauz arrasatearrarenak; eta Pello Mariñelarena etxarriarrarenak.



Pello Mariñelarenaren lanak ikusgai dauden txokoa. A.M.

OHARRAK

Zine emanaldia

Cold november filma ikusgai, 18:30ean, Olaranen, hilaren 24an. Jugoslaviako gerra ardatz duen azpigituludun pelikula da.

Gaztaina-jana

Landatxope erretiratu elkarteak, urteroko ohiturari eutsiz, gaztaina-jana antolatu du zapatarako, 18:30ean.

San Esteban krosa

Abenduaren 26an egingo da San Esteban krosa eta izena eman daiteke udaletxean azaroaren 25etik abenduaren 5era bitartean -krosaren egunean izena eman daiteke, baina, kasu horretan, oparien zozketan ezingo da parte hartu-.



Unai Telleria Bolinaga, Londresko Soho auzoan beste artista batzuekin duen dendan. 943UT

Moda sortzaile hiriburuetan

Unai Telleria Bolinaga diseinatzaile elgetarra bere bidea egiten ari da, eta bi salmenta puntu berri zabaldu ditu; bata Londresen eta bestea Parisen. Denda kontzeptualak dira; beste sortzaile batzuekin kudeatzen dituen sorkuntza espazioak dira

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA
Erronka handia da; izan ere, moda kontuetan erreferentzia dira Londres eta Paris. Denda kontzeptualen aldeko apustua egin du elgetarrak. "Hiri handietan indarra hartzen ari den negozio eredu berri bat da", azaltzen du. "Eskaintza homogeneotik bereizteko elkartzen dira lauzpabost artista eta zabalitzen dute espazio bat non bakoitzak bere sorkuntzak aurkezten dituen". Londresko dendak *Never Fade Factory* du izena, eta Soho erdian dago. Parisko denda, berriz, *No Stock* da eta Le Marais auzo komertzialean dago. Txinan ere badu beste salmenta puntu bat, Hainan uharterako Nanyanhai hirian. "Nire bezero gehienak asiarrak edo Ekialde Ertainekoak dira", azaltzen du. "Dirua dute, moda kontuei garrantzia ematen die-

te, eta erreplikarik gabeko jantzi esklusiboak bilatzen dituzte".
Ibilbide luzea egin du Telleriak modaren munduan. Freelance izan da beti, eta askotariko erregistroak jorratu ditu: publizitatea, Inauteriak, antzerkia, kaleko moda... Bizileku izan ditu New York,artzelona eta Londres, eta bidaiatzerakoan erreferentziak hartzen direla dio. "Mundua ikustea oso ona da. Beste modu batera ikusten dira gauzak, eta asko ikasten da".
Arropa bilduma propioan dihardu orain buru-belarri, baina argi du bestelako lanak egi-

LONDRESKO DENDA SOHO ERDIAN DAGO ETA PARISKOA LE MARAIS AUZO KOMERTZIALEAN

ten jarraituko duela. "Modak aukera handiak ematen ditu, baina saldu nahi baduzu ezin dituzu gauza zoroegiak egin. Antzerkiarekin edo Inauterietako ikuskizunekin, aldiz, zorkeria oso handiak egin daitezke, eta asko gustatzen zait". Telleriak diseinatuko ditu, aurten ere, 200 bat jantzi Las Palmasko Inauterietako Erreginaren Galarako zein Drag Queenaren Galarako.

Metodikoa lanean
Sorkuntza prozesu guztiaren jarraipena egiten du Telleriak. "Negozio bat martxan jartzen duzuenekin ezinbestekoa da", dio. Londresko dendan du estudioa, eta egunean hamar bat ordu egiten ditu lan. "Batuetan, piezak egin behar dira; beste batuetan, tailerrera joan behar da... egunaren arabera", dio.

Zaindutako diseinuak eta lehengaiak



Elgetarra Parisko 'No Stock' dendan salgai dituen jantziekin. 943UT

943UT Duela urte eta erdi sortu zuen 943UT marka Telleriak. Gizonezkoendako arropa da, eta online ere saltzen du. Hurrengo pausoa da Los Angelesen ere saltokia ipintzea.




Telleriak sortutako arropak Londresko saltokian. 943UT

Diseinu berriak. Betiko jantziak oinarri hartu eta diseinu berriak sortzen ari da elgetarra azken boladan, baita ere ehun sintetikoak naturalekin nahasten. "Horrekin nabil bueltaka orain", dio.

"Londres eta Paris dira hiri erreferenteak"

UNAI TELLERIA BOLINAGA
MODA DISEINATZAILEA

Marka propioa indartzeko sorkuntza lanean da elgetarra. **Zure moduko diseinatzaile batek jarraitzen du moda?** Bai, noski. Modaren kontra egin nahi dutenek ere jarraitu egiten dute moda. **Zure lekua egiten ari zara. Zein da sekretua?** Egiten dudana gustuko dut, zentratuta nago honetan eta badakit nora joan nahi dudana. Baina beste edozein lanetan bezala, ezta? Modarekin



943UT

gertatzen dena da jakin egin behar duzula jendeak zer bilatzen duen, eta gaur zaude saltzen eta handik gutxira ez. Oso adi egon behar da. **Osasuntsu dago modaren sektorea?** Krisia badago, baina leku batuetan beste batuetan baino handiagoa. Londres eta Paris dira hiri erreferenteak moda kontuetan, eta bada jendea arropetan diru asko gastatzeko prest dagoena.

Zaintzarik gabe dabilta umeak mundu digitalean

Emoki elkarteko kidea da Jone Zalduegi eta hamar bat gurasoren aurrean egin zuen hitzaldia, astelehenean, Elgetan. Hainbat bideo-joko, sare sozial eta jarduera digital izan zituen hizpide. Gurasoei adi-adi egoteko eskatu zien

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

"Bideo-jokoekin ikusten ditugun bi arazo potoloenak dira umeek denbora asko pasatzen dutela jolasean eta ez direla konturatzen zein eragin duen jarduera horrek beraien emozioetan". Argi hitz egin zuen Zalduegik. Esan zuen bai familiek bai eskolek erreminta gehiago behar dituztela gertatzen ari denaren aurrean nola erantzun jakiteko.

Brawl Stars, *Fortnite* eta *GTA* bideo-jokoak aipatu zituen. Tik Tok sare soziala ere bai, eta, horrekin, batera *gamer* edo *influencer* diren youtuberren bideoek umeen egunerokoan duten eragina. "Guraso askok ez daki umea zein jokotan ibiltzen den, edo, jakinda ere, ez daki joko horretan zer dagoen. Ikusten dituzte marrakzi itxurako *skin*-ak edo pertsonaiak, eta odolik ez dagoenez lasai daude. Baina horiek guztiak jokalarik gazteak erakartzeko ondo pentsatutako mekanismoak dira", azaldu zuen.

Entretanimendurako eta estimulaziorako elementu pila dituzte umeak mundu digitalean, eta gurasoek, orokorrean, jarrera eskasa egiten dute. "Etxe batzuetan ez da gaia batera kudeatzen, eta gurasoak ahaldundu egin behar dira. Begiratu behar dute zein adinetarako



Emoki elkarteko Jone Zalduegi, gurasoendako saioa egiten, astelehenean. L.Z.L.

"ESKU HARTZE PLAN INTEGRALAK BEHAR DIRA; GURASOAK ETA IRAKASLEAK GALDUTA DAUDE"

jokoak diren eta informatu behar dira edukiaren inguruan".

Erabilera ohitura onak ezarri

Erabilera arauak ezarri baino gehiago, erabilera ohitura onak ezartzeko gomendioa egiten du

adituak. "Ordenagailurik ez logetan, mesedez", esan zuen. Horrekin batera, gomendatu zuen umei galdetzeko zein joko edota sare sozial duten gustukoak eta zergatik. "Ezinbestekoa da gai honi heltzea, bai etxetik, bai eskoletatik, bai irakundeetatik; izan ere, gurasoak eta irakasleak galduta daude. Ez dakite zelan jokatu".

Esku hartzeko plan integralak landu behar direla uste du, eta, bien bitartean, neska-mutikoak zertan ari diren gertuagotik zaintzeko aholkatu zuen.



NIRE USTEZ

SEBAS ARANZABAL

Desazkundea

Eguraldia aldatzen doa. Bukatu ziren elurte luzeak eta teilatuetakoko kandela izoztuak. Adituen arabera, gizakiok gara eguraldi aldaketaren erantzule nagusiak; gehienbat, mundu zati aberats honetan bizi garenok. Urteetan CO2 isurketa izugarriak egiten ibili eta gero, gu bezala bizi nahi duten herrialde txiroei klima aldaketaren aurkako neurriak hartzea exijitzen diegu, orain. Gizarte kapitalista globalizatu honetan gure bizi ereduarekin jarraitzeko, etengabe hazten jarraitu beharko dute ekonomiak eta barne produktu gordinak, eta horrek ondorio larriak sortuko ditu ingurumenean. Planeta bakarra dugu eta zeharo izorratu aurretik neurriak hartu beharrean gaude, nolabaiteko desazkundea bultzatuz. Horretarako, gutxiagorekin bizitzen ikasi beharko genuke, zoriontsu izateko gauza asko eduki eta etengabe erosketak egiten ibili ordez benetako zoriontasuna ingurukoekin harremanak sendotzea bilatuz. Bide horretan, kontsumo jarrerak aldatzea aurrerapauso galanta litzateke, urrutiko intxaurrei begiratu ordez inguruko baserritarrei eta ekoizleen produktuak erosiz.

Escamot Catala taldea abenduaren 7an Elgetan

Goiena komunitatea

Herrixa Dantzan / ELGETA

"Laugarren urtez hartuko dugu Elgetan Escamot Catala. Ohiko dantza giroaz gain, dimentsio politikoa ere eman nahi izan diogu aurten. Hala, Katalunian bizitzen ari den egoeraz hitzaldia antolatu dugu udaletxean eguerdian, ondoren *L'Estaca* abestea plazan, eta dantzaldi nagusiaren aurretik Katalunian dantzen ikastarotxo", azaldu du Patxi Monterok. Dantza tailerra Joan Codinak gidatuko du, 18:00etan. Prezioa 5 euro da, eta aurrez eman behar da izena, udaletxean edo *Elgeta.eus* webgunean. Etzi, berriz, Herrixa Dantzan dantzaldia izango da.

OHARRAK

Azaroaren 25a

Domekan, 12:00etan, Uxue Alberdi eta Miren Amuriza bertsoetan. Astelehenean, 19:00etan, elkarretaratzea plazan.

Pintxo-domeka

Domekan, 12:00etan, pintxo bereziak eta argazki lehiaketa. 13:00etan, Kidam magoa tabernaz taberna ibiliko da.

LH-6: zozketa

Ikasleen zozketako zenbaki sarituak dira 28 eta 58. Sariak jasotzeko daude.

Kontsumo taldea

Elgetako kontsumo taldearen aurkezpena egunean, hilak 28, 18:30ean, udaletxean.

Dirua jokatzeko 17 urterekin

Julen Sanchez 17 urterekin hasi zen dirua jokatzeko, txanpon-makina batean lehenengo eta kasinon gero. Emozioak kudeatzeko arazoekin lotzen du menpekotasunaren zergatia. 32 urterekin ari da adikzioa gaintzeko terapia amaitzen. Arazoei buruz hitz egiteko gomendatu zien gazteei, eta sentitzen dutena lasai eta errespetuz adierazteko.



Julen Sanchez, testigantza ematen, domekan, gaztelekuan. L.Z.L.

ZUZENKETA

Aurreko astean Kantsatzeko Mendi Taldearekin lotuta argitaratutako edukietan akatsa egin genuen. Mendi irteera eta baja-jana antolatu zituen Elgetako mendi taldeak eta aurreko domekan egin zituzten biak. Bada, bazkaria Ozkarbi elkartean izango zela argitaratu genuen orri honetan, *Goiena.eus* atariko albistean eta agendan. Bazkaria, ordea, Intxorta elkartean zen. Hori dela eta, barkatu eragozpenak.

PILOTA TXAPELKETA

EMAITZAK

Iban Retolaza-Enrike Elkoro / Sergio Bouzas-Jose Mari Zubiaurre **18-02**
Beñat Arabaolaza-Jon Irazabal / Iker Valle-Etor Garate **18-05**
Txomin de Vega-Diego Cantabrana / Eneko Ormaetxea-Alain Valle **14-18**

PARTIDUAK, GAUR, 19:00ETAN

Ainhoa Zeziaga-Maitena Mañarikua / Janire Lazkano-Uxue Larrea
Andoni Elorza-Oskar Sarasua / Beñat Arabaolaza-Jon Irazabal
Iban Retolaza-Enrike Elkoro / Zigor Martin-Gorka Bolinaga
Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarrera / Zigor Martin-Gorka Bolinaga



Artzubi baserri ondoan dagoen zubia. O.E.

Herri aldeko zubiak konpontzen hasi dira

Artzubikoa eta Olapotokoa konpondu behar dituzte eta beste bi hilabete beharko dituzte lan horiek egiteko. Obra horiek irauten duten bitartean, Olakua eta Olabarrieta arteko errepidea itxita egongo da eta merenderotik bideratuko dute zirkulazioa

O.E. OÑATI

Udana aldeko zubiak indartzeko lanak amaitu dituzte eta herri aldeko biak konpontzen eta eraberritzen hasi dira aste honetan. Beste bi hilabete beharko dituzte lan horiek egiteko eta bitarte horretan zirkulazioan aldaketak egongo dira. Izan ere, Olakuatik Olabarrieta auzorako errepide tartea itxita egongo da eta ibil-

gailuak merenderotik bideratuko dira, Fanpuena baserrira iritsi eta bide normalarekin jarraitzeko. Olabarrieta auzora autoz joateko baimen beharrik ez da egongo, baina Udana igozteaz debekatuta egongo da baimenik ez dutenentzat.

Bigarren faseko lan hauek iraun bitartean, gainerako ibilgailuek erabiliko duten bide bera erabi-

liko du Oñati eta Zumarraga arteko autobusak ere. Ikaste-teeetara doan autobusa, baina, handia da eta horrek ezingo du bide hori erabili. Olapotoko zubi gaineratik bidegorria egiteko proiektuaren inguruan, berriz, astelehenean izan ziren udal ordezkariak Foru Aldundian, eta erantzunaren zain daude, lan horiek egin ahal izateko.

Paseo bidea aldatzeko gomendioa

Ugarkalden gora merendero aldera doan bidea herritar askok erabiltzen dute egunero paseatzeko. Datozen bi hilabeteetan, obrek iraun bitartean, bide hori erabiliko dute ibilgailuek herritik Olabarrieta auzora joateko, eta, beraz, denbora tartea horretan bide hori paseorako ez erabiltzeko gomendioa egin du Oñatiko Udalak.



Olabarrieta auzoa. O.E.

17,2 milioi euroko aurrekontu proposamena 2020rako

2019ko zerbitzu guztiak mantendu eta 1,8 milioi euro inbertsioetarako izatea aurreikusi du Udal Gobernuak

O.E. OÑATI

Udal Gobernuak adierazi du 17,2 milioi euroko proposamena egin duela 2020ko aurrekontuetarako -2019koa 22,3 milioi eurokoa izan da-. Udalak, gainera, jakinarazi du kiroldegiko obren inbertsioari aurre egiteko udalbatzak 8,5 milioi euroko mailegua eskatzea adostu zuela irailean eta horrek "2020rako aurrekontuak murriztea" dakarrela.

Inbertsio sorta

Udalak adierazi duenez, segida emango diote 2019ko partaidetzazko aurrekontuetan finkaturiko inbertsio sortari: "500.000 euroko partida dago bi urteko epean exekutatzeko. Herritarrek partaidetzazko aurrekontuetan zehazturiko inbertsioak bi urtean egikaritzeko konpromisoa hartu genuen. Eta buru-belarri dihardugu horiekin".

Komuna Elorregin

2020an egingo dituen inbertsioen artean honako hauek aipatu ditu Udal Gobernuak: San Lorentzo eta Olakua auzoetako irisgarritasun planaren jarraipena egitea (15.000 euro); oinezkoen segurtasuna bermatzeko neurriak hartzea (50.000 euro); argiteria publikoan kontsumo txikiko teknologia duen LED argiztapena jartzea (100.000 euro); landa auzoei laguntza ematea (120.000 euro); landa bideak konpontzea (30.000 euro); Araozko ostatuko eta Natur Eskolako lanak amaitzea (170.000 euro). Eta Elorregiko autobus geltokian komuna jartzea nahi du Udalak: "San Prudentzian [Elorregi] komuna jartzea Aldundiari dagokio eta arazo honi irtenbidea eman beharrea gaude, herritar askoren eskaera baita. Saiakerak saiakera, ez dugu erantzun baimenik jaso".

Trukegunea jarriko dute plazan, objektuak utzi eta hartzeko

Gabonetan jasotzen diren jostailuak berrerabiltzeko aukera egongo da Kutxa Ekogunearen postuan

O.E. OÑATI

Gabonetan oparitarako jasotzen diren jolasak berrerabiliak izateko aukera erraztea da Trukegunearen helburua, eta jostailua utzi nahiz hartu duen umea "pozik" sentiaraztea. Kutxaren Ekogunea martxan jarri duen egitasmoa da Trukegunea eta Gipuzkoako hamar udalerritan egongo da, urtarrilaren 7ra arte.

Udalerririk gabe da Oñati. Eta astelehenean jarriko dute jostailuak trukatzeko gunea, Foruen plazan. Gune horretan objektuak era librean utzi eta jaso ahal izango dira, tarteko ordainketarik gabe. Uzten duen egoera onean utzi behar du, eta jasotzen duenak konpromisoa hartu behar du bereak izan diren jostailuak bezala erabiltzekoa. Gauza guztiak berriak izan barik, kontsumo arduratsuen eta jasagarriaren ga-



Ume bat panpina batekin. EKOGEUNA

arrantziak jabetzea da gune honen helburua. Gabonak gertu egonda, jostailuen adibidea jarri du Ekogunea, baina trukatu daitezke jostailuak ez diren objektuak ere. Hartu eta jasotzen duenak ez du zertan ezer utzi gunean.

Autodefentsa kolektiboa, indarkeria identifikatzeko

Azaroaren 25ean, elkarretaratzearekin batera, autodefentsa feminista kolektiboa egingo dute, Foruen plazan, 18:30ean. Egun horri lotuta, antzezlana egongo da gaur Santa Ana aretoan, 22:00etan, eta solasaldia eguenean kultura etxeko atikoan

Oihana Elortza OÑATI

Astelehenerako, elkarretaratzea deitu du herriko sare feministak azaroaren 25aren harira. Ez da elkarretaratze soil bat izango: autodefentsa ariketa kolektiboa egingo dute. "Genero indarkeria gaitzesteko eguna da azaroaren 25a. Baina indarkeriari aurre egiteko egoerak, indarkeria bera, identifikatzea izaten da eman beharreko lehen pausoa, eta horixe egiteko ariketa da astelehenekoa", dio Oñatiko sare feministako kide Mariasun Zelaiak.

Oinarrian dauden indarkeriaren forma ezberdinak bistaratzeko eta ikustarazteko saioa izango da astelehenekoa, ahalik eta herritar gehienekin batera egin gura dena.

Foruen plazan egingo dute autodefentsa kolektiboaren ariketa. Panelak jarriko dituzte, eta herritarrek bete egingo dituzte indarkeria egoerak zeintzuk diren jarrita. Panelak eurak eta ariketa egiteko materiala plazan egongo dira, erabiltzeko.

Ekintza horrekin batera, elkarretaratzea egingo da une berean tokian bertan, Foruen plazan, 18:30ean. *Genero indarkeriaren aurrean, autodefentsa feminista* leloarekin.



Eguaztenean egindako ipuin kontaketa. M.S.

Antzezlana eta solasaldia

Elkarretaratzeaz gain, antzezlana eta solasaldia ere egingo dira datozen egunetan. Antzezlana, esaterako, gaur, egubakoitza, izango da, Santa Ana aretoan, 22:00etan. *Panpinak* da obraren izena eta aktore bakarra egongo da taula gainean, Erika Olaizola. Urriaren 30ean estreinatu zuten obra hori eta hirugarren saioa da Oñatiko. Eguenean, hilak 28, bestalde, solasaldia egingo dute, kultura etxean, zahartze prozesuari buruz.

Oñatiko Udalaren Berdintasun Sailak eta herriko sare feministak, eragile biek, hartu dute parte aurten ere azaroaren 25aren bueltan prestatu diren ekitaldiak antolatzen. Bakoitzak bere ekarpena egin dio egitarauari eta partekatua izan da. Baina eragile gehiagok ere hartu dute parte. "Eguaztenean egindako ipuin kontaketa, adibidez, liburutegikoekin batera antolatu ditugu", dio Udaleko Berdintasun teknikariak, Jose Arriolabengoak.



EAJ

Pintaketak salatu ditu EAJK

Astean herrian agertu diren pintaketen harira, EAJK esan du errefusatu egiten dituela, eta gaineratu: "Penagarria da, oraindik, bestea iraintzea aurkako politikoari eraso egiteko, hitza eta elkarrizketa landu beharrean". Horrelako ekintzak "estrategia politiko-militarraren hondarrak" direla adierazi du EAJK, eta "desagertu" egin behar direla.

NIRE USTEZ



JOSU ZUBIA

Pedagogia, sorkuntza eta ertzak

Gaurko hitzak sorkuntzari eskainiko dizkiot. Sorkuntzan ari naizenez gero, gustatzen zait probokatzea eta bare dagoena pixka bat harrotzea, buruak martxan jartzeko. Baina mugekin topo egiten dut behin eta berriz. Politikoki zuzena ez den zerbaitegitaratu eta segidan datoz zuregana zuzentasunaren defendatzaileak sorkuntzak pedagogikoa izan behar duela esanez.

Sortzen den horrek balore egokiak transmititu behar omen ditu, hurrek bestela adibide txarrak izango dituztelako, eta noski, hori bizitzarako katastrofikoa da. Ez utzi dena gure esku.

Dena da berdintasuna, auzolana, elkarlana... eta horrelako hitz, esentziaz sakon, baina desitxuratuak.

Kokoteraino nago.

Ematen du hurrek itxura jakin bat eman behar dutela eta badakite hori. Trebatu egiten dira horretan, nahiz eta ez sinistu edo sentitu pentsamolde hori. Eta despistatuta daude. Badakite zer dagoen "ondo" eta badakite zer itxura eman; baina ez dakite izaten.

MIKEL ALTUBE

ARKITEKTO TEKNIKOA

GAATEO/COAATG zenb 01273

San Lorentzo, 42 behea
OÑATI

646 948 495

INDUSTRIA BEHARREI EGOKITUTAKO PROIEKTUAK

ETXEBIZITZEN BEHARREI EGOKITUTAKO PROIEKTUAK

OBRA ZUZENDARITZAK

GREMIOEN KOORDINAZIOA

ETXEETAKO ERREFORMA INTEGRALEN DISEÑUA ETA PROIEKTUA

GREMIOEN KOORDINAZIOA



Aloña Mendi eskubaloiko senior emakumezkoen taldea, partidu baten ostean. XABIER GURIDI

Lehen partidua irabazita, bide beretik segi guran

Jokatutako zazpi neurketetatik bakarria irabazi du Aloña Mendi eskubaloiko senior emakumezkoen taldeak, asteburuan Eraiken Eharialde talde gasteiztarraren aurka jokatutakoa. Lehen garaipena lortuta, bide beretik jarraitu nahi dute aurrerantzean

Maialen Santos OÑATI

Joan den asteburura arte, eskubaloiko senior mailako emakumezkoek ez dute garaipenik lortzeko aukerarik izan. Denboraldia hasi zutenetik jokatutako zazpi neurketetatik bakarria irabazi dute orain artean, eta ez dute bat bera ere berdindu. Hain zuzen, joan den asteburuan jokatutako partiduan eskuratu zuten Aloña lehen garaipena. Eraiken Eharialde Gasteizko taldea izan zuten bisitan Zubikoa kiroldegian, baina 27-25 amaitu zen partidua oñatiarren etxean geratu zen, azkenean. Xabier Guridi taldeko entrenatzaileak adierazi duenez, "kostata, baina iritsi dira lehen bi puntuak".

Hamazazpi jokalarik osatzen dute taldea, eta horietako sei inguruk gazte mailatik senior mailara egin berri dute jauzi. Taldeak aldaketa nabarmena jasan du azken denboralditik hona bitartean, ikasketengatik edota kontu pertsonalengatik, jokalarik batzuek taldea utzi behar

izan baitute. "Aspalditik jokatzen zuten zenbait jokalarik joan zaizkigu, eta, beraz, orain, talde gazteagoa dugu", azaldu du Guridik. Izan ere, taldearen batez beste adina eta, batez ere, garaiera "nabarmen" jaitsi dira.

Mailari eustea erronka

Euskadiko txapelketa jokatzen dihardute Guridiren neskek, eta sarritan talde beterranoagoen aurka jokatzea tokatzen zaie: "Aurkari askok jokalarik esperientziadunak dituzte, urteak daramatzate taldearekin jokatzen, eta, beraz, dagoeneko egokituta daude taldearen dinamikara". Alde horretatik, oñatiarrak esperientzia irabazten ari dira oraindik, eta, beraz, zenbait

TALDEAK ALDAKETA NABARMENA IZAN DU: BATEZ BESTEKO ADINA ETA GARAIERA JAITSI EGIN DIRA

talderen aurka irabaztea erronka izaten da haientzat. Hain justu, mailari eustea dute helburu nagusi. "Ez genuke mailaz jaitsi nahi, mantentzea da aurtengo gure lehentasuna", dio Guridik.

Joan den asteburuan lortutako garaipenari esker "itxaropentsu" azaldu da eta taldeak bide horretatik jarraitu dezan gurako luke: "Behin lehenengoa irabazita, aurrera begira jarraitu gura dugu, partidu gehiago irabaztea".

Hobetu beharrekoen artean kanpoko tiroak hobetu beharko lituzke taldeak, entrenatzailearen aburuz. Baina hobetzekoak "beti" daudela iritzita, taldearen abilezietan jarri nahi luke fokua. Hain zuzen, berak zuzentzen duen taldea bereziki azkartasun duen "trebea" dela uste baitu.

Asteburu honetan, bihar, Bera Beraren kontra jokatuko dute oñatiarrek aurkariaren etxean, eta, beraz, bigarren garaipenarekin etxera bueltatzeko aukera izango dute eskubaloiko neskek.



Nazioarteko argazki onenaren finaleko Felix Sanchezen argazkia. FELIX SANCHEZ

Felix Sanchezen argazkia, nazioarteko onenaren finalean

Bigarrenenez izango da lehiaketa horretako finalisten artean; bihar egingo dute sari banaketa, Monakon

M.S. OÑATI

Bigarren urtez jarraian aukeratu dute Felix Sanchezen argazki bat Munduko Atletismo Federazioak antolatutako argazki lehiaketako finalerako. Mundu osoko argazkilariek ateratako 112 lan aurkeztu dira, eta horien artean hiru heldu dira finalera; tartean, argazkilarik oñatiarrak Shelly-Ann Fraser-Pryce korrikalariari ateratakoa.

Lagunei esker, finalean

Argazkiak "bere historia" propioa du, gainera, Sanchezek azaldu duenez. Hasiera batean, beste argazki bat zuen gogoko, baina lagunek behin eta berriz esaten zioten argazki haren orde zuela, Shelly-Ann Fraser-Pryce korrikalariari Dohan (Qatar) ateratakoa, alegia. Azkenean, gomendioari "kasu egitea" erabaki zuen, eta orain finalisten artean dagoen argaz-

kia bidali zuen lehiaketara: "Hasieran, konbentziturata nongoen bestea bidali behar nuela, baina, azkenean, lagunei jaramon egitea erabaki nuen. Eta eskerrak".

Munduko txapelketan aterata

Pasa den urriaren lean ateratzen Shelly-Ann Fraser-Pryce korrikalariari argazkia Sanchezek, Sonny etxeko argazki kamara batekin, Dohan egin zen munduko txapelketan. "Munduko onena da. Ama izan da eta etenaldi bat egin du atletismoko txapelketetan, baina bueltatu da eta onena izaten jarraitzen du". Gaineratu duenez, "mezua" du argazki honek. Finalera heldu diren beste bi argazkiak ikusi ditu dagoeneko, eta "onak" direla aitortu du oñatiarrak. Bihar arte itxaron beharko du, beraz, atletismoko nazioarteko argazki onenaren saria aurreko nork eramango duen jakiteko.

Markel Irizarren lagunartekoak bihar egingo du bazkaria

Txirrindulari ohiaren familia-koak eta lagunak elkartzeko dira bihar, zapatua, lagunartekoak urtero egiten duen batzarrean. Azken urteetan bezala, elkarrekin bazkalduko dute Zubillagako Zotz tabernan, 14:30ean, baina, aurrez, bazkariaren aurretik bilduko dira horretarako izena eman duten guztiak. Hain zuzen, eguerdian txarangak lagundu-

riko poteoa egiteko asmoa dute lagunarteko kide direnek.

Iaz, 80 pertsona inguru bildu ziren lagunarteko antolatutako egunean, eta aurreko gutxi gorabehera, pertsona kopuru bera biltzea aurreikusten dute.

Aurtengo hitzordua berezia izango da, gainera, Markel Irizar eta haren gertukoentzat. Txirrindulariak abuztuan erretiroa hartu zutenetik egingo duten lehen bazkaria izango da bihar. Irizarren zaleak elkartzeko, beraz, biharko hitzorduak.



Odolusteak filmaren lantaldea grabaketa lanetan. GOIENA

Oñati protagonista duen filma, zinema aretora

Maiatzetik irailera bitartean, grabaketa lanetan aritu da 'Odolusteak' filmaren lantaldea eta asteburu honetan zinema aretoan estreinatuko da ikus-entzunezkoa. 45 minutu irauten du, Oñatiri buruzkoa da eta umorea ere badu ezaugarritzat

Maialen Regueiro OÑATI

Azken hilabeteetako lanak eman du bere fruitua eta asteburu honetan, Dwingi Dwingi taldearen *Odolusteak* filma estreinatuko da; horretarako, hainbat emanaldi izango dira. Honen harira, Ander Zelaia Dwingi Dwingi taldeko kideak hauxe adierazi du: "Herriarrei gustatuko zaielakoan gaude". Eta gehitu du: "Gure ingurukoek ikusteko aukera izan dute dagoeneko eta ikus-entzunezkoa gustatu zaiela esan digute". Aurrestreinaldia atzo egin bazuten ere, guztira hiru emanaldi ireki eskainiko dituzte.

Oñatiri buruzko lana

Hamabi pertsonaz osatutako lantaldea iaz abenduan hasi zen *Odolusteak* filmaren ideia osatzen. "Hasieran, ez geneukan argi zeri buruzko ikus-entzunezkoa izango zen, eta denbora-rekin ideia bat bururatu zitzaigun eta horri forma ematen hasi ginen. 2019ko otsailerako gidoia idatzita geneukan eta grabake-

Asteburuko emanaldiak eta sarrerak

Emanaldi guztiak zine aretoan izango dira. Emanaldi irekietarako sarrerak eskuratu behar dira txarteldegi digitalean, udal atarian edota Txokolateixan. Sarrerak agortu ezean, zine aretoan hartu ahal izango dira.

Hilak 22, egubakoitza

- 19:30 Verkami-ko mezenasendako bakarrik.
- 20:30 Emanaldi irekia.

Hilak 23, zapatua

- 19:30 Emanaldi irekia.
- 20:30 Emanaldi irekia.

tak maiatzetik irailera bitartean egin ditugu. Irailetik gaur egunera arte, gainontzekoak egiten aritu gara; postprodukzio lanak, alegia", adierazi du Zelaiak. Horrez gain, aipatu du, ikus-entzunezkoak 45 minutu irauten duela, "oso Oñatikoa" dela eta umore puntua ere baduela.

Youtuben zabalduko dute

Odolusteak filma Youtuben ikusteko aukera egongo dela aitortu du Zelaiak. Horrekin batera, aipatu du momentuz ez dutela inguruko herrietan aurkezteko aukeraz hausnartu.

Parte hartu dutenei eskertza

Ikus-entzunezkoa egiten aritu den lantaldeak proiektu hau aurrera eramaten lagundu duten guztiei eskertu nahi izan die: Oñatiko Udala, Ulma Taldea, Urbixako fonda eta Verkami plataforma bidez lagundu dutenei, Iñigo Idigoras Michael Zelaia, Xabi Calvo eta Iñaki Bizarrori, bereziki.



Motxila 21 musika taldea. FACEBOOK

Inklusioa eta musika uztartuz, Motxila 21 taldea gaztelekuan

Talde horrekin batera, Oñati eta Aretxabaletako musika eskoletako kideek ere parte hartuko dute emanaldian

M.R. OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskola duela bi urte hasi zen inklusioa eta musika uztartzen zituzten emanaldiak antolatzen. Lehen esperientzia 2017an izan zen, non Bergarako Ndank Ndank elkarteko kideekin batera emanaldia eskaini zuten. Inklusioaren gaiarekin jarraitzeko, musika eskolako kideei Motxila 21 taldea gonbidatzea egokia iruditu zitzaion. "Inklusioa eta musika uztartzen jarraitzeko talde honen emanaldia oso interesgarria iruditzen zaigu. Iaz, emanaldia lotzen saiatu ginen, baina ez zen posible izan", adierazi du Arantzazu Bikuñak, musika eskolako irakasleak. Hala, bihar, zapatua, Motxila 21 taldeko kideak gaztelekuan ikusteko aukera izango da, 18:30etik aurrera. Bikuñak aipatu du gogotsu daudela emanaldirako: "Ez dakigu zein izango den za-

patuko kontzertuaren emaitza, baina guk ilusioz antolatu dugu eta gogotsu gaude".

Motxila 21

Musika talde hau Nafarroako down sindrome elkarteko kideek eta boluntarioek osatzen dute; guztira, hamabi pertsona dira. Horiekin batera, Oñatiko eta Aretxabaletako musika eskoletako ikasleek ere hartuko dute parte.

Sarreraren salmenta

Biharko emanaldia ikusteko sarrerak aurrez erosteko aukera dago, j.a.musikaeskola.sarrerak@gmail.com helbide elektronikora mezu bat bidalita. Bihar, 17:30etik aurrera, gaztelekuko leihatilan erosteko aukera izango da honako prezio hauetan: helduek 10 eurotan eta 14 urtetik beherakoek eta 14 urte dutenek, zazpi eurotan.

Lau gitarristaren emanaldia Santa Anako agertokian

Musikegunak ekimenaren azken emanaldia izango da domekan, hilaren 24an, 19:00etan hasita, Santa Ana antzokiko agertokian. Entreatre taldea arituko da oholtza gainean; 1984an lau lagun gitarristak abiatutako proiektua, hain zuzen. Domekako emanaldirako sarrerak sei eurotan daude salgai, txarteldegi digitalean eta udal atarian.

Kalejira eta kontzertu berezia, Santa Zezilia eguna ospatzeko

Gaur Santa Zezilia eguna izanik, Oñatiko Musika Bandak 18:30ean kalejira egingo du herriko kaleetan zehar. Horrekin batera, domekan, Santa Zezilia eguneko kontzertu berezia eskainiko dute Musika Bandak eta parrokiako abesbatzak, Santa Ana antzokian, 12:45ean hasita. Joko dituzten piezen artean, *Galiziako rapsodia* dago.

"Amorruz borrokatzean akatsak egiten dira"

YAMAN MJAHEH NOGALES BORROKALARIA

KICKBOXINGA Arrasatekoak duela hamabost egun Eskoriatzan egindako txapelketan urrea jantzi zuen: "Kontrario gogorra zen, eman eta jaso ibili ginen"

Xabier Urzelai ARRASATE

Arrasateko Coliseum taldeko kidea da Yaman Mjahed Nogales (Arrasate, 2002), eta, berak aitortuta, borrokarako bizi da. Kick boxinga, MMA eta jiu-jitsu brasildarra tartekatzen ditu, eta Eskoriatzan K-1 borroka txapelketan ringera igo zen 57 kiloz azpiko junior mailako kategorian. Irabazi egin zuen konbatea.

Zer sentitzen da ringera igo eta aurrean duzun kontrarioak min egin diezazukeela jakinda?

Ez duzu horretan pentsatzen, nahiz eta entrenatzaileak ere horixe esaten didan, ringera igotze hutsa ez dela gauza txikia. Uste dut Eskoriatzan jendea harrituta geratu zela, borrokal dietan benetako kontaktua ikusi zutelako, benetako ukabilkadak eta ostikoak. Nire bigarren borrokaldia izan zen, eta, oraingoan, nahiz eta oso urduri egon, burua hotz mantendu nuen. Ringeant sentimentu barik borrokatu behar da, burua hotz duzula. Horrela, errazagoa da teknikan zentratzea, kontzentratuta egotea.

Lehenengo borrokaldia ezberdina izan zen, ala?

Amorrotuta igo nintzen ringera, kontrarioa egurtuko nuela kontzertituta. Serio, haserre aurrean nion, aurrean nuen laguna kikiltzea zen helburua. Oraingoan, zentzu horretan, ezberdina izan da, hutzago egon naiz. Amorruek ez du borroka hobeto egiten laguntzen, akats gehiago egiten dira. **Junior mailako azken urtea duzu hau; datorren urtean, seniorrak izango dituzu aurrean.**

Bai; bueno, ikusiko dugu. Niri, berez, MMA borroka gustatzen zait, eta horretan nabil burubelarri. Baina oraindik adin txikikoa naiz eta ezin dut borrokaldi horietan esku hartu. Datorren urtean, oster, bai. Diotenez, 30-40 urte dituen bo-



Yaman, erdian, MMAko eta K-1eko entrenatzaile Javirekin eta Patriciorekin. I.SORIANO

"ENTRENAMENDU BAT NEKAGARRIAGO DA, BAINA BORROKALDI BATEKO TENTSIOA ETA URDURITASUNA..."

rrokalaria amateur batek esperientzia handia du, baina ez du 20 urteko baten gogo. Profesional izateko, amateur moduan ibilbide polita egin behar da, eta horretan zentratu gura dut. **MMAko borrokalari profesional bilakatzea duzu buruan?**

Gustatuko litzaidake, hori daukat buruan, eta horretarako nabil lanean. Borroka daukat une oro buruan, hau bizitza estilo bat da. Hori bai, aurrerago ikusiko dugu; oraingoz, zaletasuna da.

Borroka arte horiek geroago eta ezagunagoak dira...

Pentsa; duela bizpahiru urte, Coliseum gimnasioan bizpahiru lagun ginen kick boxinga egiten genuenok eta gaur egun 25 lagun izango gara taldean. Batzuen dako, kirola egiteko modu bat da, ondo pasatzeko helburuarekin etortzen dira. Gu ere halaxe

ibiltzen gara, baina apur bat serioago.

Zelakoa izan zen Eskoriatzako borroka eguna?

Luzea. [Barre] Pentsa, 09:00etan pisaketak izan genituen, eta goiz osoan ez nuen jakin noiz borrokatuko nintzen. Eguerdian esan zidaten nire borrokaldia arratsaldean izango zela, eta bazkaltzera joan ginen. Gogoan dut bazkaldu eta gero lagun bati esan niola paseo bat ematen laguntzeko, tentsioak jota nengoelako. Ariketa apur bat eginez lasaitu nintzen. Edozein entrenamendutan borrokaldian baino gehiago nekatzen zara, baina egun osoko tentsio hori... Astebete behar izaten da borrokaldi batetik errekueratze.

Borrokali gogorra izan zen?

Bai; kontrarioa gogorra zen, gazte nafar bat. Ukabilkada bat ematen nion eta bueltan zetorkidan beste bat; guztiak erantzuten zizkidan, bazirudien ez niola minik ematen. Baina bai: azkenean, irabazi egin nion.

Hurrengo borroka, noiz?

Donostian, abenduaren 14an. Baina kick light-ekoa izango da, hor ez da kontaktu gogorrik egoten.

Oliver Hernandez triatleta arrasatearra hil da

TRIATLOIA Hiru urtez hezurretako minbiziaren kontra borrokan ibili eta gero, domekan hil zen 39 urteko atleta

X.U. ARRASATE

Domekan hil zen, 39 urterekin, Antxintxika Triatloi Taldeko kide Oliver Hernandez. Kirolerako aparteko dohainekin, Hernandezek, besteak beste, birritan zapaldu zuen Salamancako triatloiko podiuma –eskaera egin dute datorren urteko edizioa, Espainiako Txapelketa izango dena, Arrasatekoaren oroimenezkoa izan dadin-. Horrekin batera, 2017ko Gasteizko ironman proban *Oli* zazpigarren sailkatu zen, eta euskal atleten artean bigarrena izan zen. Horregatik, Euskal Federazioak urteko atleten artean nabarmendu zuen Hernandez, ibarreko beste atleta batzuekin batera.

Gaixotasunaren berri izan zuenetik, *Oli*-ren jarrera nabarmendu izan dute taldekideek beti, eta urte hauetan etengabeak izan dira animo keinuak. "Bo-



Oliver Hernandez. GOIENA

rrokalaria ausarta eta eredu zentzu guztietan. Horrela oroitu zaitugu, lehen lerroan, berdin kirolean zein bizitzan! Hizki larriz diogu, ohorea izan da guztiondako zure izerdien lekuko izatea"; hori esanez agurtu dira taldekideak.

Aretxabaletak Beti Gazte hartuko du domekan Ibarra

FUTBOLA Mondrak eta Bergarak kanpoan jokatu dute; Aloña Mendi lider dago, Beasainekin berdinduta

X.U. ARRASATE

Joan den astean Elgoibarren lortutako puntua borobiltzeko, garaipenaren bila kantxaratuko dira aretxabaletarrak domekan (Ibarra, 16:30). Adi, baina, lesakarrekin, azken lau partiduetatik hiru irabazi dituztelako eta bestea berdindu.

Mondrak eta Bergarak, berriz, kanpoan jokatu dute. Joan den astean, ondo errekueratu zuten bi taldeek, etxeko lehen garaipena lortuta. Bergarrek zortzigarren dagoen Mutrikuren zelaian jokatu dute (zapateria, 16:30) eta Mondrak Hernanin erroka polita izango du (zapateria, 16:30), talde horrek partidu bakarra galdu du-eta etxean.

Aloña Mendi, lider

Jokatutako hamar partiduetatik zortzi irabazita Aloña Mendi sailkapeneko lehenengo postuan



Gilen atezaina presionatzen. GOIENA

dago, Beasainekin berdinduta. Bi talde horiek datorren astean jokatu dute elkarren kontra, baina lehenago, oñatiarrek Orion jokatu behar dute (zapateria, 16:00).

Antzuolak, berriz, bosgarren dagoen Billabonaren bisita izango du bihar Estalan (16:00).

Aitor Mendizabalek ez du Aspen jarraituko

PILOTA Zortzi urtez Eibarko enpresaren elastikoa defendatzen ibili eta gero Antzuolako aurrelariak (1989) ez du Aspen jarraituko. Mendizabal III.ak berak aukeratu du agur esateko jokalekua; Astelenan izango da, hilaren 30ean

Xabier Urzelai ARRASATE

"Pena ematen dit, oraindik sasoi onean ikusten dudalako nire burua eta uste dudalako maila onean jardun dudala eta oraindik ere jardun dezakedala, baina duela bi aste inguru eman zidaten berria, ez dutela datorren urterako nirekin kontaktzen, eta onartu besterik ez dago. Salaberrik debutatu egin du, entzuten denez baliteke Gabonak bitartean beste pilotariren batek debuta egitea... Bueno, hilaren 30era arte, betiko errutinan jarraituko dut, jakinda hortik aurrera bizitza aldatuko zaidala. Espero dezagun hobera izatea", adierazi zion Aitor Mendizabalek GOIENARI eguaztenean, enpresak albistea ofizial egin zuen egunean.

Eibarren esango du agur

Antzuolako aurrelariak oraingoz ez du pilota alboratzeko asmorik, baina Eibarko Astelenan jokatuko du Asperen elastikoarekin azken partidua, hilaren 30ean. Antzuolarrak Tolosa izango du ondoan, eta Etxeberriaren eta Bikuñaren kontra neurtuko dituzte indarrak, Eskuz Binakako Txapelketako partiduaren atarian.

Jaialdi erakargarria da oso, aurreratu moduan, ondoren Irribarriak eta Rezustak Ezkurdiaren eta Martijaren kontra jokatuko dutelako. Hala, harmailak goraino beteta daudela esan ahal izango du Antzuolako aurrelariak agur. Seguru, gainera, herrikide asko ondoan izango dituela, debutaren egunean, 2011ko irailaren 17ko hartan, Zarauzko Aritzbatalde pilotalekuan izan zituen moduan: "Partidu berezia izango da, inolako zalantza barik. Zorionez, urte hauetan herrikide askoren babesa izan dut pilotalekuetan, asko izan dira nire partiduetara etorri izan diren lagunak, eta horrek asko pozten nau".



Aitor Mendizabal. IMANOL SORIANO

"ORAINDIK ONDO IKUSTEN DUT NEURE BURUA ETA PILOTAZ GOZATZEN JARRAITU GURAKO NUKE"

Zortzi urte profesionalean

Aipatu moduan, Aitor Mendizabalek 2011n egin zuen debuta, eta amateur mailan egindako lan onari –besteak beste, Elgetako lau eta erdikoa eta DV Torneoa irabazi zituen– urte hartan bertan eman zion jarraipena, Bigarren Mailako Lau eta Erdiko txapela irabazi zuen eta. Bere alde egindako apustuaren ordaina zen, neurri handian, baina orain arteko kirol ibilbidean gorriz markatuta daukan momentua 2016ko Buruz Buruko txapela da: "Ez da erraza momentu bakarrarekin geratzea. 2011n irabazitako txapelak ezustean harrapatu ninduen, profesionaleta iritsi berria nintzelako, baina 2016ko txapelak aukera eman zidan hurrengo urtean Lehenengo Mailako Buruz Burukoan esku hartzeko, eta gauza ederra izan zen hori".

Hausnartzeko tarte

Agur hilaren 30ean esango badu ere, Mendizabal III.ak abenduaren 31ra arte du Asperekin kontratua: "Denbora tarte hori hausnartzeko hartuko dut, aurrerantzean zer egin erabakitzeko. Baina, lehen esan moduan, oraindik ondo ikusten dut nire burua, eta pilotan gozatu egiten dut, ondo pasatzen dut. Hala, pilotan bi enpresa daude, baina horretaz gain ere badira enpresa txikiagoak, eta bertako pilotariek urtean jaialdi mordo batean hartzen dute esku. Bistakoa da ez dela maila berean izango, baina pilotaz gozatzen jarraitu gura dut oraindik".

Irakaskuntzan lanean

Mendizabal III.ak, pilotari profesional jardun arren, ez zituen ikasketak alboratu, eta iaztik irakasle dabil lanean: "Poliki-poliki, geroago eta ordu gehiago egiten ditut, eta hortik bideratuko dut orain ibilbide profesionala. Pilotari moduan, gure mailan, orain arte, bizitzeko ematen zuen, baina ez etorkizuna lotuta uzteko. Horrenbestez, irakasle jardutea da asmoa".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONA

Hernani-Mondra

Zapatua. 16:30. Zubipe.

Mutriku-Bergara

Zapatua. 16:30. Mutriku.

UDA-Beti Gazte

Domeka. 16:30. Ibarra.

ERREGIONAL PREFERE

Soraluze-Aretxabaleta

Zapatua. 17:00. Ezozia.

Antzuola-Billabona

Zapatua. 16:00. Estala.

Mondra-Ikasberri

Domeka. 18:30. Mojategi.

Orioko-Aloña Mendi

Zapatua. 16:00. Orio.

LEHEN ERREGIONALA

Elgoibar-Aloña Mendi

Zapatua. 18:30. Mintxeta.

Urki-Aretxabaleta

Zapatua. 15:45. Unbe.

OHOREZKO GAZTEAK

Beasain-Aretxabaleta

Domeka. 12:00. Loinaz.

Aloña Mendi-Mondra

Zapatua. 16:30. Azkoaga.

Bergara-Eibar

Zapatua. 16:30. Ipintza.

GAZTEAK

Antzuola-Aretxabaleta

Zapatua. 12:00. Estala.

Mondra-Elgoibar

Zapatua. 18:30. Mojategi.

Urki-Aloña Mendi

Domeka. 10:45. Unbe.

Aretxabaleta-Bergara

Domeka. 10:45. Unbe.

EMAKUMEZKO OHOREZ

Añorga-Leintz Arizme.

Zapatua. 15:30. Rezola.

Bergara-Intxaurdi

Domeka. 16:00. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Eskoriatza-Elorrietako

Zapatua. 18:00. M.Muñoz

EUSKADIKO TXAPELKE.

Mondrate-Aretxabaleta

Domeka. 18:00. Musako.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Ford Mugarri-Escolapi.

Domeka. 11:00. Iturripe.

Corazonistas-Fagor In.

Zapatua. 17:00. Gasteiz.

EUSK. TXAP. EMAKUM.

Bera Bera-Const. Aloña

Zapatua. 18:00. Donostia.

GIPUZKOAKO SENIOR.

Soraluze BKE-Tolosa

Zapatua. 19:30. Labegar.

SASKIBALOIA

EBA

Baskonia-MU

Domeka. 12:30. Gasteiz.

EUSKADIKO TXAPELKETA

Alkide. Ointxe-Mungia

Zapatua. 20:00. Iturripe.

Erroibide-Mekalki Alo.

Domeka. 12:00. Irun.

GAZTEEN EUSKAL LIGA

Fund. Bilbao-MU

Zapatua. 10:00. Bilbao.

GIP. SENIORRAK

Antigua-Bergara Sora.

Zapatua. 20:00. Donostia.

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Añorga

Gaur. 20:15. M.Muñoz.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Zarautz-ART

Zapatua. 15:10. Lasarte.

FUTBOLA Leintz Arizmendik oraindik ez du partidurik galdu

Emakumezkoen Ohorezko Erregionalean mailan Leintz Arizmendik lehenengo postuan jarraitzen du, jokatutako bederatzi partiduetatik zortzi irabazi eta azkena berdindu eta gero. Bihar, Añorgan jokatuko dute, 15:30ean. Saillkapenaren erdian dauden Bergarako neskek, berriz, domekan Intxaurdi hartuko dute (Ipintza, 16:00).

ESKUBALOIA Arrasateko taldeak Escolapios hartuko du domekan

Azken bi partidua irabazi egin ditu domekan Iturripen bisitari izango den Escolapiosek. Arrasatekoek gol bateko aldegatik galdu zuten Oñatin joan den zapatuan, eta zapore gazi hori lehenbailehen kendu gura dute ahotik (11:00). Fagor Industrialek, berriz, bigarren dagoen Corazonistasen kantxan jokatuko du Gasteizen, bihar.

ERRUGBIA Lider dagoen ARTk Zarautzen jokatuko du bihar

Joan den astean Iruñearen kontra 17-7 irabazi izanak sendotu egin du Arrasate Rugby Taldearen lidergoa; ligako zazpigarren garaipena izan zen. Hala, Julen Barrutiaren mutilek Michelinen –Lasarte– jokatuko dute zapatuan, 15:10ean hasita. Zarauzkoak hirugarren postuan daude, hamabost puntu batuta. Arrasatearrek 29 puntu dituzte.

ARETO FUTBOLA Derbia Mondratek eta Aretxabaletak etzi

Maila nazionalean bederatzigarren postuan dagoen Eskoriatzak bosgarren dagoen Almi Elorrietakoren kontra jokatuko du bihar Eskoriatzan (18:00). Euskadiko Txapelketan, berriz, derbia jokatuko dute Mondratek eta UDA Aretxabaletak domekan (18:00, Musakola). Arrasatekoak bosgarren daude eta Aretxabaleta-koak 13. postuan.



Kantari saioko aurkezleak eta koordinatzailea aurreko asteburuan Gasteizen grabatu zuten parte hartzaile batzuekin. ESTI LANAO

Debagoieneko artisten txanda Kantari saioan

Astlehenean zabalduko da berrikuntza askorekin datorren eskualdeko Kantari saioaren zazpigarren aldia parte hartzeko aukera; zazpi eta hamaika urte bitarteko artistek izena emateko 'Goiena.eus' atarian bete beharko dute eskaera orria

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Donostiako eta Gasteizko haurrak gogotsu aritu dira Goienaren Kantari saio berrietan. "Primeran joan da dena bi tokietan: parte-hartzaileek gozatu egin dute, etxeokok eta lagunek ere bai; nola ez, Kantari saioa egiten dugun guztiok ere primeran ibili gara", dio Kantari saioko koordinatzaile Aitor Agirianok.

Aurten bigarren urtez egin dituzte Kutxa Fundazioaren babesarekin Donostian; Kutxa Kultur Kluba aretoan grabatu zituzten eta telebistan eskaintzen ari dira dagoeneko. Laugarren aldia dute Gasteizen. Aurreko asteburuan grabatu zuten, Geu Euskara Elkartearekin, Arabako Alea aldizkariarekin eta Gasteizko Udalarekin elkarla-

nean eta Vital Kutxa Fundazioaren babesarekin. Horiei lekukoa hartuta, urtarrilean hasiko dira "etxeokok" grabatzen.

Izen-ematea, online Eskuorri batzuk banatuko dituzte ikastetxeetan, parte hartzeko informazioarekin; eta astlehenean, azaroaren 25ean, hasi eta abenduaren 5era bitar-

Aurpegi eta kantu berriak

Amaia Txintxurretak aurkeztu izan du Kantari baina lekukoa eman die Iker Gutierrez eta Beñat Arizabaletari; eta alboan izan dute, guztia koordinatzen, eskarmentua duen Aitor Agiriano.



Musikariak kantua grabatzen. X. U.

Kantu berria Debagoienean Hamahiru urtetan saioaren ikur izan den kantua berri eta martxoso batekin ordezkatzuko dutela azaldu du Agirianok:

"Amaia Txintxurreta eta Asier Castro Gauargi erromeria taldeko kideek sortutako da. Freskoa eta alai". Kantu hori, baina, ez da entzungo eta abestuko den berri bakarra: "Aurreko saioetako kantuez gain, musikari eta taldeen kantu berriak kantatzeko eta dantzatzeko aukera izango dugu. Euskarazkoak dira guztiak, garai eta estilo guztietakoak; hortaz, joan ahotsak berotzen eta gerria astintzen!", proposatu du Agirianok.

tean bidali beharko da parte hartzeko eskaera; aurreko aldia moduan, online egingo da. "Goiena.eus" atarian dagoen Kantari izeneko kanalean sartu eta erraz egiten da; mugikorretik, tabletatik edota ordenagailutik egin daiteke. Oso garrantzitsua da helbide elektronikoa eta mugikor zenbakia ongi jartzea, bide hori erabiliko dugu eta parte-hartzaileei informazioa bidaltzeko eta duten zalantza guztiak argitzeko".

Hiru, lau edo bost laguneko taldeetan hartu behar da parte, baina izena ematerakoan bakar-bakar egin behar da; kide bakoitzak bere eskaera bete behar du. "Abenduaren 9ko astean guztiek, Whatsapp mezu bidez, jasoko dute egokitu zaien kantua zein izango den, kantura eramango dituen lotura eta bestelako informazioa: entsegu eta grabazio lekua, eguna eta ordua".

Horrez gainera, *Gukantari.eus* atarian ere askotariko informazioa, emanaldietako argazkiak, saioak eta talde bakoitzak egindako saioaren bideoak izango dira ikusgai.

Urtarrilean lehen entseguak

Herri guztietako 7 eta 11 urte bitarteko haurrek hartuko dute parte eta Aretxabaletan, Oñatin, Bergaran eta Arrasaten izango dira entseguak eta grabaketak, hurrenez hurren. Martxora bitartean grabatuko ditugu eta entseguak emanaldien aurreko astean izango dira".

DONOSTIAKO ETA GASTEIZKO SAIO ARRAKASTATSUEN OSTEAN BADATOR ESQUALDEKOA

HALA BAZAN

GOIENA TELEBISTA, 90. HAMARKADAKO GATAZKAK (2. ATALA)
AZAROAREN 22AN, EGUBAKOITZEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
AZAROAREN 23AN, ZAPATUAN, 18:30EAN ETA 21:30EAN
ARRASATE TELEBISTAKO ARTXIBOA OINARRI DUEN SAIOA

goiena"
Zu hemen zaude.



"Obra berri bat dela sentituko du ikusleak"

MERTXE SALABERRI IZASKUN MURGIA ELKARTE LIRIKOKO ESZENA ZUZENDARIA Bihar estreinatuko du Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak hogeigarren zarzuela; duela hamabi urte egin bezala, 'El dúo de La Africana' obra eramango dute taula gainera

Jone Olabarria ARRASATE

Orain dela hamabi urte eskaini zuen *El dúo de La Africana* obra Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak. Aurten ere obra "dibertigarri" hau taularatu nahi izan dute, "berrikuntza ugarirekin". Azaroaren 23an, 24an eta 30ean 19:30ean egingo dute emanaldia eta azaroaren 29an, 20:00etan.

Nolako obra eramango duzue Amaia antzokira?

Amodio eta desamodio istorioak oinarri dituen lana da; opera konpainia merke bateko istorioak jasotzen ditu, opera bat nola gauzatzen den azalduko da. Azken batean, agertoki bat egongo da agertokiaren gainean eta azken ekitaldian opera hori antzetzten dute, hainbat momentu oso dibertigarriekin.

Abesbatzarentzat obra oso aproposa dela aipatzen zenuen...

Beste zarzuela batzuekin alderatuz gero, pieza ez hain ezagunak ditu; hala ere, oso musika polita du: koruak abesten duena, letrak... Entzuteko oso lan atsegina iruditzen zait niri.

Izan ere, beti egiten duzue lan abesbatzarekin...

Badaude zarzuela batzuk oso politak direnak eta egin ditzakegunak, baina horiek ez dute abesbatzarik. Abesbatza bat izatea eta mantentzea asko kos-



Mertxe Salaberri. JONE OLABARRIA

tatzen da eta aurten abesbatza barik egitea erabakiz gero ez dakigu hurrengo urterako abesbatza izango dugun. Beharbada, bai, eta beharbada, ez. Horrez gainera, abesbatza batek asko janzten du.

Obra bera izan arren, berrikuntza ugarirekin zatozte, ezta?

Pertsonaia gehienak berriak dira, eta, azken finean, bakoitzak bere ukitua emango dio. Aurretik ikusita duenak zerbait gogora dezakeen arren, obra berri baten aurrean dagoela sentituko du. Dekoratuak ere berriak dira;

minimalistak eta modernoak, baina oso ezberdinak.

Hortaz, ez ditugu ohiko zarzuelaren dekoratuak ikusiko?

Esaterako, agertokia ia hutsik ikusiko dugu lehen ekitaldian; azken finean, opera baten entsegu tokia da irudikatu nahi dena. Ez da herriko plaza, iturri edo ohiko zarzuelen dekoraturik egongo, baina elementu oso interesgarriak egongo dira.

Zenbat lagun arituko zarete aurten?

Elkarte lirikoan 50 bat kide gara; horiez gain, orkestrako musikariek ere parte hartzen dute. Pertsonaiei dagokienez, batzuk aipatzearen, Susana Vazquezek *Antonelli*-ren papera egingo du, sopranoa izango dena; Mikel Irizar *Querubini* izango da, konpainiako nagusia; eta Lander Ojanguren *Giuseppini* izango da, tenorea.

Nola iritsiko zarete emanaldira?

Eguna iristeko gogoz. Entseguak ondo joan dira, lan handia egin dugu. Edozelan ere, *El dúo de La Africana* zarzuela oso adierazgarria da; eta agertokian daudenek asko zaindu behar dituzte jestuak eta mugimenduak, esate baterako. Publiko guztiari gomendatuko niokeen lana da, urtero joaten denari eta baita lehen aldia izango duenari.

Berrikuntzaz beteta dator aurtengo Durangoko Azoka

Durangoko Azokaren 54. edizioa aurkeztu dute asteon; 200 kultur ekitaldi eta 439 berrikuntza izango dira

J.O. BERGARA

Lau egun iraungo du Durangoko Azokaren 54. aldiak: abenduaren 5ean hasi eta 8an bukatuko da. Eguaztenean egindako prentsurrekoan azaldu zuten, erakusmahai berriak izango

ditu aurten azokak, eta 405 nobedade; tartean, liburuak, diskoak, aldizkariak eta ikus-entzunezkoak

Produktuei dagokienez, 273 liburu, 91 disko, hamasei aldizkari, bost ikus-entzunezko eta

bestelako hogeitun produktu aurkeztuko dituzte. Autekoizleen plazan hamalau sortzaile batuko dira, disko, liburu eta ikus-entzunezkoekin.

Lehen aldiz, Sormen Beka banatuko dute, euskarazko kultur produktu bat garatzen lagunduko duena. Guztira, Durangoko Azokak 690.000 euroko aurrekontua izango du. Ohi bezala, telebista ibiltaria izango da, eta ikus-entzunezkoak hainbat modutan ikusteko aukera eskainiko dute.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko azaroko sariak!

Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Saskia

Parte hartzeko azken eguna: azaroaren 29a



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
ORATIKO BAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org

Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "azaroko izena" [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa.

Behar dugun LPD 15/1063 legearen arabera, gure informazio zuzendari Geroa Foruaketa Zerbitzuen Itzuli egiteko adarretatik baten artetik deitu. Datu biltegizten helburu bakarra da informazio zuzendariaren informazioa. Erabaki zuzendariaren artetik baten artetik deitu. Hala ere, berriz deitu: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

UNZUETA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkaria Otorduan atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea

[barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Bergarako Udaleri esker

"4kote abesbatza" ikuskizunerako sarrerak ditugu

Bergara | Seminarioa | Azaroaren 30ean | 19:00etan

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoari esker

Zarzuelarako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Azaroaren 29an 20:00etan eta 30ean 19:30ean

Plateruena Kafe Antzokiari esker

"Gotibu" kontzerturako sarrerak ditugu.

Durango | Plateruena Antzokia | Azaroaren 30ean | 20:30ean

PARTE HARTZEKO: AZAROAREN 28RA ARTE

E-postaz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "4kote/Zarzuela/Gotibu" [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa.

Behar dugun LPD 15/1063 legearen arabera, gure informazio zuzendari Geroa Foruaketa Zerbitzuen Itzuli egiteko adarretatik baten artetik deitu. Datu biltegizten helburu bakarra da informazio zuzendariaren informazioa. Erabaki zuzendariaren artetik baten artetik deitu. Hala ere, berriz deitu: kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitez


2019ko azarotik aurrera: 15€

Deitu: 943 25 05 05

kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!


ESKER ONA



Pedro Andrinua Basterretxea

Maria Luisa Iraolagoitiaren alarguna

2019ko azaroaren 17an hil zen, 87 urte zituela.



Pedro Irrintzi-ren heriotzagatik bere familiak jaso genuen dolumin eta laguntasunagatik, eskerrik zintzoena eman nahi dizuegu bera estimuan zenutela erakutsi diguzuen guztioi. Besarkada handi bat.

Bergaran, 2019ko azaroaren 22an.

OROIGARRIA

Oliver Hernandez Estrella

2019ko azaroaren 17an hil zen, 39 urte zituela.



Lausotu zaigu gaua lausotu eguna samina sentitzen da eta min astuna busti dira begiak bihotza biguna orain elkar heltzea da behar duguna iritsiko da unea zugatik laguna zerbait polita eskaini ahalko dizuguna.

Min bat dugu barruan gira eta bira baina mezu hau lagun zuretzat, begira begiratuko dugu zu zauden tokira bultzatuko gaituzu beltzetik argira zeru zabal horretan eginaz distira gaurdanik gure gauak argiago dira.

Ni Zara Zu Naiz
Arrasaten, 2019ko azaroaren 22an.

OROIGARRIA

Oliver Hernandez Estrella

2019ko azaroaren 17an hil zen, 39 urte zituela.



Gure ondotik joan zara, baina beti izango zaitugu gure bihotzetan. Taldekide eta pertsona ezin hobea izan zara. Gero arte, lagun.

Antxintxika triatloi taldea.
Arrasaten, 2019ko azaroaren 22an.

ESKER ONA



Elena Ecenarro Arregui

2019ko azaroaren 15ean hil zen, 71 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2019ko azaroaren 22an.

OROIGARRIA



Oliver Hernandez Estrella

2019ko azaroaren 17an hil zen, 39 urte zituela.



*Bidaide eta lagun!
Kirolari sutsu eta irribarretsu.
Beti aurrera, beti borrokan!
Irabaztea helburu eta hori guretzat eredu seguru.
Zure lagunek ez zaitugu inoiz ahaztuko!
Ikusi arte!*

Musakolako lagunak.
Arrasaten (Musakola), 2019ko azaroaren 22an.

OROIGARRIA

Oliver Hernandez Estrella

2019ko azaroaren 17an hil zen, 39 urte zituela.




Gure bihotz barrunean eramango zaitugu betiko, Oli.

Ez adiorik!


Estrella lehengusu-lehengusinak eta osaba-izebak.
Arrasaten, 2019ko azaroaren 22an.

ESKER ONA



Jose Luis Manterola Egana

2019ko azaroaren 19an hil zen, 72 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2019ko azaroaren 22an.

OROIGARRIA



Canuto Askasibar Sarrao

2018ko azaroaren 21ean hil zen, 81 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 24an, 12:00etan, Elgetako Andra Mari Jasokundeko parrokan.

*Zeruan izar bat piztu da
gure ondoan hutsunea sortu den heinean,
irrifar bat jantziko dugu hari begiratzean.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Elgetan, 2019ko azaroaren 22an.

OROIGARRIA

Oliver Hernandez Estrella

2019ko azaroaren 17an hil zen, 39 urte zituela.



Beti izango zara gure bihotzean.




Arrasate Herri Eskolako Komunitatea:
ikasle, guraso, irakasle eta ez-irakasleak.

Arrasaten, 2019ko azaroaren 22an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 22	ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Zapatua, 23	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Domeka, 24	ETXEBERRIA: Zarualede kalea / 38 / 943 77 16 30
Astelehena, 25	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15
Martitzena, 26	M. FCA. AZKOAGA: Ilurritz 17 / 943 79 79 99
Eguaztena, 27	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Eguena, 28	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 22	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Zapatua, 23	URRITIKOETXEA: Orivondo plaza 4 / 943 76 11 74
Domeka, 24	URRITIKOETXEA: Orivondo plaza 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 25	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Martitzena, 26	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguaztena, 27	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Eguena, 28	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
ONATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 22	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Zapatua, 23	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Domeka, 24	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Astelehena, 25	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Martitzena, 26	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguaztena, 27	JULDAN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguena, 28	JULDAN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

ARRASATE GAUEZ EGUNEZ	
(22:00etatik 09:00etara)	
2019ko abenduaren 31ra arte:	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
BERGARA GAUEZ EGUNEZ	
(22:00etatik 09:00etara)	
2019 osoan:	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COP Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguru izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

OROIGARRIA



Jose Luis Ochandiano Barañano

2019ko azaroaren 13an hil zen, 56 urte zituela.



Beti izango zara gure bihotzean.

Aramaixoko lagunak.
Aramaion, 2019ko azaroaren 22an.

TXUTXU-MUTXUAK

**1. Bergararik Oñatira**

Pol-Pol mendi taldeko umeek eta helduek mendi buelta egin zuten Oñatin. Hain justu ere, Berezaio eta Olabarrieta auzoetan ibili ziren. "Euriarekin, baina ederto".

2. Bibotedunak elkarrekin

Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko bibotedunak Elorregin elkartu ziren aurreko zapatuan. Askotariko ekintzak egin zituzten Movember ospatzeko.

3. Kirol argazkien egileak

Jose Agustin Gurrutxagak bi sari lortu ditu *Esqui de montaña* eta *Piraguisa* argazkiekin. Oskar Mansok eta Juanjo Lopezek ere eroan zituzten sariak, Bergarako lehiaketatik.

4. Euskal Herriko txapelketan

Irudietan dauden dantzariak parte hartu zuten Bergaran jokaturako 42. txapelketan. Maren Galvez lezoarrak eta Gorka Granado sopolarrak jantzi zituzten txapelak.

5. Vinicius-ekin erretratua

Embalan3 enpresako ordezkariak Empack Logistics Madrid azokan egon ziren kaxa tolesgarria aurkezten. Lanak bukatuta, Real Madrid taldeko jokalariekin afaldu zuten.

6. Argazki onenen egileak

Alberto Muñoz, Lander Madaria, Ramiro Torres, Eneko Iburguengoitia eta Unai Agirre saritu ditu Aloña Mendiko mendi sailak. Guztira, 311 argazki jaso zituzten.

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkaritzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Izar Lorenzo Martinez
Azaroaren 27an, 6 urte. Zorionak, Izartxo! Asko-asko maite zaittugu! Patxo handi bat, etxeko danon partetik!



ARRASATE
Malen Etxeberria Agirreureta
Azaroaren 26an, 3 urte. Zorionak familiaren partetik!



ARRASATE
Aimar Hernandez Lopez
Azaroaren 25ean, 5 urte. Zorionak, Aimartxo! Ondo-ondo ospatu zure bosgarren urtebetetze eguna! Besarkada handi bat, etxeko partetik.



HERNANI
Danel Gallego Jodar
Azaroaren 24an, 3 urte. Zorionak eta patxo handi bat, aititaren eta amamaren partetik. Oso ondo pasatu eguna!



ARRASATE
Alex Romero Carballeas
Azaroaren 24an, 6 urte. Zure sendiaren partetik, oso ondo pasatu zure eguna!




BERGARA
Maialen Etxeberria Mujika
Azaroaren 24an, 4 urte. Zorionak, Maialen! Egun ederra pasatu eta muxu pilo bat, familia osoaren partetik!



ARRASATE
Nora Axpe Pacios
Azaroaren 23an, 3 urte. Zorionak, sorgintxo! Oso ondo pasatu zure egunian. Patxo erraldoi bat, etxeko partetik! Muak!



BERGARA
Sara Taboada Muruamendiaraz
Azaroaren 23an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Muxu asko, familiaren partetik.



BERGARA
Oihan Fernandez Plumed
Azaroaren 23an, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Egun ona pasatu eta muxu handi bat, etxeko partetik.




OÑATI
Lucca Otxotorena Mendiola
Azaroaren 22an, urtebete. Zorionak, gure bihurritxo geldiezina! Muxu potolo bat etxeko danen, eta bereziki, Chloeren partetik.




ARRASATE
Zuriñe Lasa eta Irantzu Souto
Zorionak etxeko bi sorgin txikiei! Earki pasatu zuen urtebetetze egunak! Zurinek 36 urte, azaroaren 21ean eta Irantzuk 9 urte, azaroaren 22an. Muxu mordoio bioi, etxeko guztion partetik!



ESKORITATZA
Kati eta Ana Perea
Azaroaren 22an, 50 urte. Zorionak! Oso ondo pasatu eguna, *guapisimak!* Patxo handi bat, etxeko guztion partetik.



BERGARA
Iker Gomez Gimbert
Azaroaren 21ean, 12 urte. Zorionak familia osoaren, eta bereziki, Dylanen partetik!




OÑATI
Goizane Zelaia Altube
Azaroaren 21ean, 7 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Patxo asko, pila bat gura zaugun danon partetik!



OÑATI
Iker Isasti Arkauz
Azaroaren 21ean, 10 urte. Zorionak, txapeldun. Ondo pasatu zure egunian. Asko maite zaitugu. Alaitz, aitaxo eta amatxo.



BERGARA
Izar Akemi Etxeberria Ramirez
Azaroaren 21ean, 10 urte. Zorionak! Zure irribarreak gure bizitza argitzen du; beti pozten diguzu eguna! Amatxo, aitaxo eta anai-arreba guztiak.




ARETXABALETA
Xixili Olabe eta Garikoitz Blanco
Azaroaren 21ean, Xixilik 76 urte eta Garikoitzek 4. Zorionak, Xixili eta Garikoitz. Ondo pasatu eguna! Milaka muxu etxeko partetik.



ARRASATE
Lia Jodar Viguri
Azaroaren 19an, 9 urte. Zorionak eta patxo handi bat, aititaren eta amamaren partetik. Oso ondo pasatu eguna!



ARRASATE
Asier Murillo Filetin
Azaroaren 21ean, 5 urte. Zorionak, Asier! Gure etxeko mutiko handiak bost urte betetzen dituu! Patxo potolo bat!



ESKORITATZA
Ekaitz Aramendi Kortazar
Azaroaren 21ean, 39 urte. Zorionak, mutil eta ondo pasatu zure eguna, familia osoaren partetik. Muxu pilo bat.



BERGARA
Mikel eta Nahia Aristimuño Blazquez
Azaroaren 20an, 5 urte. Bost urte dagoeneko; zein azkar pasatu den denbora. Patxo potolo eta besarkada handia, etxeko partetik.



ESKORITATZA
Nora Gomez
Azaroaren 20an, 4 urte. Zorionak, Noratxo! Oso ondo pasatu zure egunian. Muxu handi bat, etxeko partetik.



BERGARA
Felixin
Azaroaren 20an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, Felixin, Bergarako Erraldoi Taldearen partetik.




OÑATI
Miren Hernandez Juan
Azaroaren 19an, 3 urte. Zorionak, Miren! Ondo pasatu zure 3. urtebetetzea! Muxu handi bat!



OÑATI
Irene Campagnoli
Azaroaren 19an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztion partetik. Ondo pasatu zure eguna! Muxu potolo bat!



OÑATI
Nora San Miguel Billar
Azaroaren 18an, 2 urte. Zorionak, printzesa, familia danaren partetik! Ederto ospatuko zure eguna. Patxo handi bat!



OÑATI
Asier Murillo Filetin
Azaroaren 18an, 22 urte. Zorionak beroenak *Hangover* taldeko adiskide den Axierr. Egun ona izan eta gozatu lagun artean. Muxu potolo bat.




ARRASATE
Oiana Sanchez
Azaroaren 18an, 34 urte. Zorionak, *txptxsk!* Aiur eta biok oso harro gaude zutaz! Ama ezin hobea eta lagun ikaragarria! Asko maite zaitugu.



OÑATI
Garazi Aitzelai Navarro
Azaroaren 16an, 4 urte. Zorionak, Garazi! Ondo-ondo pasatu eguna. Musu handi bat, etxeko guztion partetik.



OÑATI
Kimetz eta Izei Korta Iñarra
Kimetzek azaroaren 15ean, 10 urte eta Izei azaroaren 6an, 4 urte. Zorionak bixoiri! Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze egunak! Patxo handi bana, etxeko danon partetik.



ESKORITATZA
Itziar Kortazar Olabarria
Azaroaren 14an, 7 urte. Zorionak, bihotzal! Muxu eta besarkada handi bat, familia osoaren partetik.



ARRASATE
Lucia
Azaroaren 14an, 3 urte. Hiru urte bete ditu etxeko sorgintxo polittak. Familiakoen partetik, asko maite zaitugu eta oso ondo pasa ezazu eguna!



ELGETA
Unax Agirre Osa
Azaroaren 13an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Ja 10 urte! Edarto ospatuko ditugu danok batera. Asko maite zaitugu! Patxo mordo bat!



MUTRIKU
Nahia Iriondo
Azaroaren 13an, urtebetetzea. Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat, etxeko guztion partetik.

ZORIONTEKO HIRU BIDE

- Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu.
- Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Goienara batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 22

ARRASATE Gaztaina erreak
Umeek banatuko dituzte gaztainak, bukatu arte.
Herriko Plazan, 16:30ean.

OÑATI Bingo jokoa
San Martingo astearen baitan.
San Martin egoitzan, 17:00etan.

OÑATI Santa Zezilia eguna
Kalejira eta txokolate-jana egingo dute musika eskolakoek.
Etxaluzen, 17:00etan.

ARETXABALETA 'Gure arteko arrazakeria' lantzeko tailerra'
Luciana Alfarorekin.
Arkupen, 18:00etan.

ARAMAIO 'Diferentes formas de violencia contra las mujeres' hitzaldia
Norma Vazquez feministak egingo du berba.
Kultura etxean, 18:00etan.

OÑATI Santa Zezilia eguna
Udal musika bandaren kalejira, Foruen plazan hasita.
Foruen plazan, 18:30ean.

ARRASATE Autodefentsa feminista tailerra
Emakume gaztetxoendako.
Erdiguneko gaztegunean, 18:30ean.

BERGARA 'Spinning & Gim'
Azkaite Pelox Band taldearen zuzenekoarekin, Movemberren eskutik.
Agorrosinen, 19:30ean.

OÑATI 'Odolusteak' film laburra
19:30ean, proiektua ekonomikoki babestu dutenendako; eta 20:30ean, emanaldi irekia.
Santa Anan.

ESKORIATZA Santa Zezilia eguna
Udal Musika Bandaren kontzertua.
Zaldibar antzokian, 20:00etan.

BERGARA Santa Zezilia eguna
Kontzertu sinfoniko korala egingo dute.
Santa Marina parrokian, 20:30ean.

OÑATI 'Panpinak' antzezlan
Erika Olaizolaren eskutik.
Santa Anan, 22:00etan.

BERGARA 'Adimena zorrozteko ipuinak' saioa
Amaia Arriaranen eskutik.
Osintxun, 22:30ean.

ZAPATUA 23

OÑATI 'Udazkenaren mintzoa'
Pello Zabala gidari, Arantzazuko santutegiaren inguruan ibilaldi laburra egingo dute.
Parketxean, 11:00etan.

OÑATI EH Bilduren herri batzarra
2019-2023 planaren aurkezpena.
Gaztelekuan, 11:00etan.

ARETXABALETA Ipuin kontaketa
Miriam Mendozaren eskutik, 5 urtetik aurrerakoendako.
Haur liburutegian, 11:30ean.

OÑATI 'Azken balea' ikuskizuna
Tomaxen Abenturak taldearen eskutik. Sarrerak, 4,50 euro.
Zuazola institutuan, 16:30ean eta 18:30ean.



MOTXILA 21

OÑATI Motxila 21 taldea
Down sindromea duten kideez osatutako rock taldearen kontzertua. *No somos distintos* diskoa grabatu zuten 2012an, eta orduetik hainbat musikariren kolaborazioa izan dute. Besteak beste, El Drogas-ena.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 18:30ean.

BERGARA 'Xokolat' haur antzerkia

Paraiso Antzerkiak taldearekin, 3 urtetik gorako umeendako. Txokolate-tableta batean kokatzen den kontakizuna da. Sarrerak, lau euro.
Seminarixoan, 18:00etan.

ARRASATE Ping-pong eta mahai-futbol txapelketak
Gaztetxoendako.
Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Andre eta Jabe' ikuskizuna
Euskal emakume poeten bizitzak eta ahotsak jasoko dituzte Eider Perezek eta Leire Etxezarretak.
Udaletxe zaharrea, 19:00etan.

ARAMAIO Maiora Canemus abesbatza
Araba kantan egitasmoaren baitan.
Kultura etxean, 19:00etan.

OÑATI 'Odolusteak' film laburra
Emanaldi bikoitz irekia.
Santa Anan, 19:30ean eta 20:30ean.

ARRASATE 'El dúo de La Africana' zarzuela
Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren eskutik.
Amaia antzokian, 19:30ean.

ARRASATE Bacon Maiden taldea eta Piru DJa
Debalde.
Irati tabernan, 23:00etan.

DOMEKA 24

ESKORIATZA Orkatzategira ibilaldia
Debalde. Ez da aurrez izena eman behar. Itzulera, 13:00etarako.
Gaztelekuan, 10:00etan.

OÑATI Gaztagintza ezagutzen
Gomiztegiko sekretuak ezagutzeko aukera.
Arantzazuko Parketxean, 10:30ean.

OÑATI Santa Zezilia kalejira
Udal Musika Banda eta Aita Madina Txistulari Taldea.
Kaleetan, 10:00etan.

BERGARA Erretiratuen eguna
11:00etan, bigarren eskuko azoka; eta 14:00etan, bazkaria.
Osintxun, 11:00etan.

ELGETA Uxue Alberdi eta Miren Amuriza bertsoan
Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko.
Mendizaleen plazan, 12:00etan.

ARAMAIO Bizente Goikoetxea abesbatza
Santa Zezilia eguneko ospakizuna, meza ostean.
San Martin parrokian, 12:00etan.

ELGETA Pintxo domekak
12:00etan, argazki lehiaketa eta pintxo dastatzea; eta 13:00etan, Kidam magoa.
Elgetan.

AZAROAK 25
Indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko eguna
MANIFESTAZIOA - 19:30 - Seber Altube Plazan

**URRATZEN
GAIUZTEN
SASI GUZTIEN
GAINEAN,
SARETU!**

BERGARA Santa Zezilia kontzertua

Udal Musika Banda eta parrokiako koruak.
Santa Anana, 12:45ean.

OÑATI Santa Zezilia kontzertua

Udal Musika Banda.
Pilotalekuan, 12:30ean.

ARRASATE Autodefentsa feminista tailerra

Emakume gaztetxoendako.
Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Ez dok hiru!' antzerki akustikoa

Euskal musikaren "benetako istorioa" kontatuko dute Patxo Telleriak eta Mikel Martinezek. Sarrerak, lau euro.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

OÑATI Entrequatre gitarra laukotea

Musikegunak egitasmoaren baitan, Sarrerak, sei euro.
Santa Ana antzokian, 19:00etan.

ARRASATE 'El dúo de La Africana' zarzuela

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren eskutik.
Amaia antzokian, 19:30ean.

ELGETA 'Herrixa dantzan'

Ikasturteko lehenengo saioa egingo dute Patxi Monterorekin.
Espaloian, 20:00etan.

ASTELEHENA 25**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ARAMAIO Azaroaren 25eko kalejira

Zarata egiteko tresnak eramatea eskatzen da.
Kultura etxean, 17:30ean.

BERGARA 'Hortzetako pasta nola egin' ikastaroa

Izena emateko: 943-89 92 73, 943-89 92 72 edo info@bizikasi.com. Prezioa, hamar euro.
Irizar jauregian, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Lo que no se ve de la violencia de genero' hitzaldia

Las Guerreras talde feministaren eskutik. Debalde.
Kultura etxean, 18:00etan.

ARETXABALETA Azaroaren 25a: elkarretaratzea

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira.
Herriko Plazan, 19:00etan.

ELGETA Azaroaren 25a: elkarretaratzea

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira.
Mendizaleen plazan, 19:00etan.

ARRASATE Azaroaren 25a: elkarretaratzea

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira.
Seber Altuben, 19:30ean.

MARTITZENA 26**OÑATI Idazketa lantegia**

Joxe Mari Iturralderekin.
Liburutegian, 18:00etan.

ARRASATE Literatura eta psikologia solasaldia

Stefan Zweig idazlearen *Carta de una desconocida* liburua izango da hizpide, Silvina Fondrarekin.
Kulturaten, 18:30ean.

BERGARA 'El pasado y el futuro del cáncer' hitzaldia

Arkaitz Carracedok egingo du berba, Movemberrek gonbidatuta.
Seminarixoan, 19:00etan.

EGUAZTENA 27**BERGARA 'Zuria eta negro' hitzaldia**

Jose Manuel Mendezekin.
Seminarixoan, 10:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka

Garaiko produktuak erosteko.
Oxirondon, 18:00etan.

ARRASATE Ipuin kontaketa

Ane Gebararen saioa 4 urtetik gorako umeendako.
Santa Marinako auzo bibliotekan, 18:00etan.

ESKORIATZA Autodefentsarako aholku-tailerra emakumeentzat

Atama eskolako hiru irakaslerekin. Izena emateko: 943-71 31 36 edo josuvelasco@eskoriatza.eus.
Pilotalekuan, 18:30ean.

ANTZUOLA Movember: hitzaldia

Juan Pablo Sanzek bere esperientzia kontatuko du: prostatako minbizia eduki du.
Olaran etxean, 19:00etan.

ARRASATE 'Arrasate en la edad media' hitzaldia

Jose Angel Achonek egingo du berba, Iragana Astintzen zikloan.
Kulturaten, 19:00etan.

EGUENA 28**ARRASATE Sasoibide ibilaldia**

Aretxabaletara joan-etorria.
Biteri plazan, 10:00etan.

OÑATI Ipuin kontaketa

Ane Gebararen saioa 6-9 urte arteko umeendako.
Liburutegian, 18:00etan.

ESKORIATZA Ipuin kontaketa

Maidar Galartzaren saioa 4 urtetik gorako umeendako.
Bibliotekan, 18:00etan.

ARRASATE 'Zauriak' dokumentala

Eromena, gaizki egonak eta osasun mentala ikuspegi feministatik.
Kulturaten, 18:30ean.

ARRASATE Literatura solasaldia

Natalia Ginzburg idazlearen *Gure etxeko kontuak* liburuaren gaineko saioa, Alex Gurrutxagarekin.
Kulturaten, 18:30ean.

BERGARA 'Oparitu zuhaitz bat' egitasmoa

Kutsadura kimikoa, kooperatiba energetikoak eta Fiare banku etiko izango dituzte hizpide.
Liburutegian, 19:30ean.

ARRASATE Occhi Di Farfalla taldea

Bikote akustiko bezala jaio eta laukote elektriko izatera pasa den taldea Koaltur Ostegunetan.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA**BERGARA****SEMINARIXOA**

Retrato de una mujer en llamas
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.
La oveja Shaun
Domeka: 19:30.

OÑATI**KULTURA ETXEA**

El silencio de la ciudad blanca
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Abominable
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA**ARKUPE**

Downton Abbey
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.
Toy story 4
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR**COLISEO**

Si yo fuera rico
Zapatua eta domeka: 17:00.
Secretos de estado
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.
Pequeñas mentiras para estar juntos
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Si yo fuera rico
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ**BOULEVARD**

Frozen
Zapatua eta domeka: 13:30.
Egunero: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.
Egunero, martitena izan ezik: 12:30,

14:45, 17:00, 19:15, 21:30, 23:45.
Martitena: 17:00, 21:30.
Egubakoitzetik domekara: 18:45.
Egubakoitza eta domeka: 15:15, 17:30, 19:45, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:45.

Le Mans 66
Egubakoitzetik domekara: 18:50, 22:00.
Martitena: 15:45, 22:00.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 15:45, 18:50, 22:00.

El silencio de la ciudad blanca
Zapatua eta domeka: 12:45.
Egunero: 15:45, 18:05, 20:25, 21:25, 22:45, 23:45.

Si yo fuera rico
Egubakoitzetik domekara: 17:10, 19:15, 21:20, 23:25.
Astelehenetik eguenera: 19:15, 21:20.

Egunero: 14:05, 16:10, 18:15, 20:20, 22:25.
Zapatua eta domeka: 12:00.
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.

Joker
Egunero, martitena izan ezik: 18:45, 21:15, 23:50.
Martitena: 18:45.

La familia Addams
Egubakoitzetik domekara: 12:20, 16:55.
Astelehenetik eguenera: 17:10.

Malefica
Egunero, eguaztena izan ezik: 13:10, 16:45, 19:10.
Eguaztena: 19:10.

Terminator
Egubakoitza: 00:15.
Astelehenetik eguenera: 22:00.

Estafadores de Wall Street
Egunero: 21:45.

La oveja Shaun
Zapatua eta domeka: 12:15.
Egunero: 15:45.

KRITIKA**La audición ★★★★★**

Zuz.: Ina Weisse. **Herr.:** Alemania (2019). **Aktoreak:** Nina Hoss, Simon Abkarian, Jens Albinus. **Iraupena:** 99 minutu.

Eskakizun maila itogarria**IÑIGO ZABALA**

Ina Wiessek kontatzen digun istorioa musika munduan kokatuta dago. Biolin irakaslea den Annak aste batzuk ditu gaitasun handiko mutil bat musika saio baterako prestatzeko. Irakaslearen senarra musika-tresnak egiten dituen luthierra da, eta semea biolina jotzen ikasten ari da. Bere helburua lortzeko buru-belarri egingo du lan. Anna oso zorrotza da, perfekzioaren bila dabil, baina perfekzioa arriskutsua eta mingarria izan daiteke berarentzat eta gertu daudenentzat. Horrek eragiten dio oso ezegonkorra izatea, bere eta besteen buruari jarritako listoia oso altua delako. Horren ondorioz, beti aztertua sentitzen da. Aitarekin duen topaketekin

ikusten dugu jasandako heziketa oso zorrotza izan dela eta berak ere ikasitako neurriak erabiltzen dituela. Filmean oso ondo islatzen da musika munduak duen eskakizun maila. Ordu asko sartu behar dira perfekzio hori topatzeko, eta bide horrek eskatzen duen intentsitate fisikoa eta psikologikoa itogarria izatera hel daiteke. Ez da gauza erraza irakaslearen izaera konplexua ezagutzera ematea, eta Nina Hossek maisutasunez azaltzen du pertsonaiaren barnean ematen ari den zurrumbilo emozionala. Askotariko emozioak batera. Horren harira, eta oso zaila delako, aipagarria da benetan, Nina Hoss aktoreak egiten duen interpretazio bikaina.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Adinagatik

Gutxi dela, lagun bat lanetik botata egun batetik bestera. Lan egiten zuen enpresan hori gertatzea posible zela jakitun bazen ere, arduratuta dago. Berrogeita hamar urte beteko du laster, eta beste postu bat bilatzea kostatuko zaiolakoan dago. Kaleko dendariari aste gutxi barru bukatzen zaio kontratua. Hirurogei urte betetzear dago eta esperantza gutxi dauka beste lanen bat aurkituko duenik. Egoera arruntak dira biak. Ez litzateke horrela izan behar, baina bizi garen gizartean normalizat daude.

Adinarekin loturikoa ei da enpresetan gehien gertatzen den diskriminazioa, generoarekin edo arrazarekin erlazioz gertatzen den diskriminazioa, bereizkeriaren gainetik, eta zalapartarik atera gabe.

Lagunak kanpoko enpresa handi batean izan lezake, agian, aukera gehiago. Horietako lan eskaintza askotan, Estatu Batuetakoetan adibidez, horrelakoak esaten dira modu esplizituan: "Gure enpresa aukera-berdintasunean enplegatzailea da" edota "ez dugu diskriminatzen arrazagatik, erlijioagatik, generoagatik, elbarritasun egoeragatik, adinagatik...". Idatzita egoteak ez du adierazi nahi betetzen denik, baina aurrerapauso handia da.

BUKATZEKO



Zut aldizkari digitalaren aurkezpena, Tabakalera, 2de0-n. JAIONE MARTIARENA

Iritsi da gazteentzako 'Zut' aplikazioa

"Kalitatea, eduki bertikalak eta ikus-entzunezkoak" oinarri dituen doako aldizkari digitala da 'Zut', gazteei zuzenduta eta eduki berritzaileekin beteta

Imanol Beloki DONOSTIA
Jaio da Z belaunaldiari zuzenduta dagoen *Zut* izeneko aldizkari digitala. Gazteak hartzaile-xede izanik, ikus-entzunezkoak oinarri duen produktu multimedia bat da *Zut*. Hain zuzen, *Ttap* aldizkariaren anai-arreba gaztea. Izan ere, aplikazio hutsa

baino gehiago da, gazteak protagonista bilakatzea helburu duena. Euskal gazteek euskarazko edukiak kontsumitzeko joera berreskura dezaten bideoak, argazkiak, musika... modu bertikalean ikusteko sortu da, mugikorra biratu barrik, edukiak *zut*-ik ikusteko.



Zut aldizkari digitaleko azala. GOIENA

Gaztezulo-ren eta *Ttap* aldizkaria egiten duten ADM SLren artean sortutako proiektua da. ADM-ko kide dira: Tokikom, Esguard, Anboto, Baleike, Euskal Herria Irratia eta Goiena. Euskara hutsean izango da, erabat berritzailea, "Euskal Herrian ez baita horrelako proiekturik eza-gutzen".

Dagoeneko deskargatu daitezke aplikazioa mugikorretan. Horretarako bideak honako hauek dira: Android eta iOS gailuetan; www.zut.eus helbidean; eta Instagram-en @zut_aldizkaria.

Euskal Herrian aitzindari

Edukiak atalka aurkeztuko ditu, eta hamabostean behin eduki berriak eskuragarri izango dituzte gazteek, eta baita aurretik eskainitakoak behin eta berriz erreproduzitzeko aukera ere. *IXA-serie* aplikazioa -Euskal Herriko lehen telesail aplikazioa-, elkarrizketa nagusia, musika, youtuberren txokoa, telesailak, moda, sexologia eta lehiaketa-erronkak dira batzen dituen atalak. "Gazteen parte hartzea ezinbestekoa izango da, eta kontsumitzaile aktiboak izatea nahi dugu. Haiek izango dira aldizkariaren protagonistak".

Aurkezpena, 2de0-n

Atzo, eguna, egin zuten *Zut*-en aurkezpena, Tabakalera, 2de0-n. Bertan, *Gaztezulo*-ko zuzendari Gaizka Izagirrek eta Goienako kazetari Josu Bilbaok aplikazioaren berri emateaz batera, Donostiako ikasle batzuekin *focus group* bat egin zuten aplikazioaren gainean iritziak jasotzeko. Eta *Zut*-en kolaboratzaile Kattalinek zuzeneko musika eskaini zuen aurkezpena girotzeko.

ASTE BELTZA

%20

ko **DESKONTUA**
produktu guztietan

+ MONTURA DOAN zure betaurreko graduatuetan

2019ko azaroaren 30era arte balagarria. Kontuztatu itzazu zure optikan karpalariaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskalritza batzuetan erabil.

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com